

12/22

irizpena

Haur eta Nerabeen

Legearen aurreproiektuari buruzkoa

Bilbon, 2022eko irailak 30



CES
EGAB

Consejo Económico
y Social Vasco

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

Irizpena 12/22

I.- AURREKARIAK

2022ko irailaren 2an Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren idatzia sartu zen Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordean. «*Haur eta Nerabeen Legearen aurreproiektu*»ari buruzko txostena eskatzen zuen, 8/2012 Legeak, maiatzaren 17koak, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak, 3.1.b) artikuluan xedatutakoarekin bat etorrira.

Arau berri horrek hiru helburu ditu, lehen artikuluan adierazi duten bezala:

- a) Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldean bizi diren edo dauden haur eta nerabe guztiei bermatzea ordenamendu juridikoak aitortzen dizkien eskubide eta askatasunak egikaritu ahal izatea.
- b) Erantzunkidetasunaren ikuspegitik, ekintza publikoko sektore-eremu guztietan botere publikoek garatu behar dituzten ekintzak zehaztea, aurreko letran ezarritako helburua lortzeko.
- c) Jarduketa-printzipioak zehaztea eta sustapen-, prebentzio-, arreta- eta babes-jarduketa guztiei dagokien eskumen-esparrua ezartzea, baita koordinazio-, elkarlan- eta partaidetza-egiturak ere.

Berehala agiriaren kopia Batzordearen Osoko Bilkurako kide guztiei bidali zitzairen, proposamenak eta iritziak emateko eta lan-batzordeari helarazteko, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen funtzionamenduari buruzko araudiak xedatutakoari jarraituta. 2022ko irailaren 26an, Gizarte Garapenerako Batzordea bildu zen, eta hartutako akordioetatik abiatuta, irizpen proiektu hau egin zen, Kontseiluaren irailaren 30eko osoko bilkurari aurkezteko. Aho batez onetsi zen.

II.- EDUKIA

Hauexek dira «*Haur eta Nerabeen Legearen aurreproiektu*»aren edukiak: zioen azalpena eta 339 artikulua, atariko titulu batean eta hamaika titulu espezifikotan banatuta; ondoren, hamabost xedapen gehigarri, bi xedapen iragankor, xedapen indargabetzaile bat eta zazpi azken xedapen daude.

Zioen azalpenean azaldu dute gaiaren antolamendu oso eta sistematiko baten aldeko apustua egin dutela, nazioarteko joera orokorrari jarraituta, eta, bereziki, Haur eta Nerabeen Legeak izaera integrala duelako. Bestela esanda, Autonomia Erkidegoari esleitutako eskumenen esparruan, testu artikulatu bakar batean arautzen eta garatzen ditu haurrei eta nerabeei buruzko gai guztiak eta, batez ere, haien eskubideen egikaritzea ziurtatzera eta babestera bideratutakoak.

Oinarri horretatik abiatuta, gainerako ordenamendu juridikoarekin (Estatukoarekin, Europar Batasunekoarekin eta nazioartekoarekin) koherentea den erreferentzia-esparrua ematen da, errazago ezagutu eta uler dadin. Horren ondorioz, arauaren aplikazioak barne hartzen dituen EAEko administrazio publikoen jarduna errazten du, eta araua betetzera behartuta dauden pertsonak, eragileak, profesionalek, oro har, herritar guztiek, baita arauaren xede-populazioak eta nerabeek ere, erabakiak hartzeko modua argitzen du.

Hala, araudi-zatiketak nahastea, zailtasunak edo zalantzak sortzen zituen, araua egoera zehatzetan aplikatzeko unean; eta interpretazio eta erantzun desberdinak eragiten zituen gai berari buruz, arauzko xedapen jakin batzuk banaka, modu eskusiboan ala beste lege-gorputz batzuetan txertatutako xedapen espezifikoekin lotuta kontuan hartzen ziren. Inguruabar horiek guztiek, beraz, zalantzak eta ziurtasun eta segurtasun-falta juridikoko arazoak eragiten zituzten.

Premisa horietatik, diziplina anitzekoa eta zeharkakoa den ikuspegi global batetik jorratzen da legearen

edukia, prebentzio-ekintzari lehentasuna emanez, bereziki, edozein indarkeria motaren aurka, eta haurren parte-hartzea indartuta, bai prozeduren esparruan, baita elkarlanean aritzeko beste lan-espazio batzuetan ere.

Haurrei eta nerabeei dagokienez, Autonomia Erkidegorako erreferentziazko esparru juridiko berri bat onesten da lege honekin, ez dena soilik adingabeen babesean oinarritzen, baizik eta bizitzaren eremu guztietan, haien eskubideak aitortzeko, sustatzeko, prebenitzeko, leheneratzeko edo errestauratzeko bidean aurrera egiten duena, garatzen diren esparru publikoan zein pribatuan (hezkuntza, osasuna, familia, gizartea, arlo judiziala, etab.). Era berean, lege horrek edozein indarkeria-portaeraren edo motaren aurrean ere jarduten du, indarkeria non gertatzen den (familiar, gizartean, hezkuntzan eta abarretan), indarkeria erabiltzen duen pertsona nor den edo indarkeriazko ekintza noizbehinkakoa, ohikoa edo denboran zehar jarraitua den alde batera utzita.

Era berean, lege horrek adingabeen eskubideak egituratzen ditu, haurrak eta nerabeak eremu material autonomo gisa aitortzen eta finkatzen ditu, zeharkakoa izanik funtsean, eta alderdi ugari ditu, hainbat eskumen-eremurekin (gizarte-zerbitzuak, osasuna, hezkuntza, justizia, aisia eta denbora libre...) bereziki lotzen dutenak, nahitaez koordinatu behar baita horiekin. Ildo horretatik, haurrak eta nerabeak ez dira, inola ere, tradizioz harreman estua izan duten beste eskumen-eremu batzuen barnean bildutako arlotzat hartzen, adibidez, gizarte-laguntzari dagokionean, zeinarekin adingabeei zuzendutako ekintza publikoa lotzeko joera baitago edota harekin identifikatzeko.

Beraz, haurrak eta nerabeak berezko eremu materialtzat hartzen dira, eta, horren barruan, haur eta nerabeei dagozkien eta eragiten dieten hainbat gai sartzen dira haien eskubideak eraginkortasunez egikaritzean, hala nola arreta goiztiarra, nazioarteko adopzioa, babesgabetasun-egoeran dauden adingabeen babesa edo zigor-legearekin gatazkan dauden adingabeen gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartzea.

Lege horrek, nazioarteko eta Europako estandar, postulatu eta printzipioekin bat etorruta, aurrera egiten du adingabeak eskubideen titularrak diren subjektu gisa aitortzeko bidean, eta ez soilik babesa merezi duten subjektu gisa. Helburu hori lortzeko, eta abiapuntutzat hartzen duen filosofiaren arabera, haurrek eta nerabeek subjektu gisa duten autonomia sustatzea da haurrak eta nerabeak sozialki eta juridikoki babestea bermatzeko modurik onena, bizitzako lehen etapetatik hasita, beren eskubideak eraginkortasunez egikaritzeko eta baliatzeko beharrezkoak diren baldintzak ezartzea bultzatuz eta sustatuz; eta, modu berean, erabat eta harmonikoki ziurtatzea haien garapen fisikoa eta psikologikoa, barnean harturik arlo emozionala, kognitiboa, soziala eta afektibo-sexuala.

Lege honen xedea da araudia modu sistematikoan, osoan, koherentean eta eguneratuan arautzea, honako oinarritzko printzipio hauen gainean eraikia: adingabearen interes gorena gailentzea, integritasuna, haurtzaroaren transbertsalitatea politika guztietan, gizarte osoaren, sektore pribatuaren eta botere publikoen erantzunkidetasuna, eta haur eta nerabeen parte-hartzea eta herritartasun aktiboa.

Printzipio horiek kontuan hartuta, eta haur eta nerabeen eskubideak eraginkortasunez egikaritzen direla bermatzeko eta babesteko, lau esku-hartze ardatz nagusiren inguruan proiektatzen du edukia. Honako hauek dira: sustapena, prebentzioa eta detekzioa, arreta eta babesa eta adingabearen errekonstruzio integrala. Izan ere, hala, lortu nahi da bai kaltea erreparatzea, bai eta urratu diren eskubideak berreskuratzea ere. Jardun publikoa arlo horietan gauzatuko da, eta arlo horiek, denak batera, haurrei eta nerabeei eman beharreko arreta integrala eta sektore anitzekoa egituratzen dute,

eta legearen izaera integrala berresten laguntzen dute.

Horren harira, legeak nabarmentzen du beharrezkoa dela administrazio publiko guztiek begiratzea zer testuinguruk, egoerak edo portaerak zaildu, kaltetu edo urra ditzaketen adingabeen garapen fisikoa eta psikologikoa —barnean harturik arlo emozionala, kognitiboa, soziala eta afektibo-sexuala—, haiek prebenitzeko. Era berean, beharrezkoa da benetan egikaritzea adingabeen eskubideak, edozein jatorri dutela ere, aurrea hartu ahal izateko testuinguru, egoera edo portaera horiei, halakorik gerta ez dadin, edo mugatzeko egoera horietatik erator daitezkeen ondorio negatiboak, haien larritasuna edo haien iraupena.

Era berean, lege horrek ahalegin handia egiten du haurrek eta nerabeek parte hartzeko duten eskubidearen eduki substantiboa indartzeko, eta artikuluen zati handi bat bideratzen du neurriak gaitzera haien benetako parte-hartzea errazteko eta sustatzeko dagozkien bizitza publikoko gaietan, eta, bereziki, beren eskubideei eragiten dieten politika publikoak diseinatu eta horien plangintza egiten.

Azkenik, Estatuko legegintzako agertoki berriak eskaintzen duen aukera aprobetxatzen du haur eta nerabeen arloko eginkizunetan sakondu eta argitzeko nola banatzen diren eginkizun horiek EAEko administrazio publikoen artean, Autonomia Erkidegoan indarrean den eskumen-banaketaren arabera.

Xede horiek betetzeko, legearen aurreproiektuan **artikuluak** garatu dira, eta honako eduki-bloke hauetan antolatuta dira:

ATARIKO TITULUA.— XEDEA, EREMUA ETA JARDUKETA-ARDATZAK

I. KAPITULUA (1. artikulutik 5.era).— XEDEA ETA EREMUA

II. KAPITULUA (6. artikulutik 12.era).— DEFINIZIOAK ETA JARDUKETA-ARDATZAK

I. TITULUA.— XEDAPEN OROKORRAK

I. KAPITULUA (13. artikulutik 15.era).— PRINTZIPIOAK

II. KAPITULUA (16. artikulutik 21.era).— KOMUNIKATZEKO EGINBEHARRA ETA ISILPEAN GORDETZEKO EGINBEHARRA

II. TITULUA.— HAURREN ETA NERABEEN ESKUBIDEAK ETA EGINBEHARRAK

I. KAPITULUA (22. artikulutik 40.era) .— HAURREN ETA NERABEEN ESKUBIDEAK

- 1. atala (22. artikulutik 25.era).— Xedapen orokorrak.
- 2. atala (26. artikulutik 40.era).— Haurren eta nerabeen eskubideak.

II. KAPITULUA (41. artikulutik 44.era).— HAURREN ETA NERABEEN EGINBEHARRAK

III. TITULUA.— HAUR ETA NERABEEN ONGIZATEAREN ETA HAIEN ESKUBIDEEN EGIKARITZEAREN SUSTAPENA

I. KAPITULUA (45. artikulutik 47.era).— XEDAPEN OROKORRAK

II. KAPITULUA (48. artikulutik 53.era).– OINARRIZKO ESKUBIDEAK ETA ASKATASUN PUBLIKOAK SUSTATZEKO JARDUKETAK

III. KAPITULUA (54. artikulutik 56.era).– FAMILIAN HAZTEKO ETA HARREMANAK IZATEKO ESKUBIDEA SUSTATZEKO JARDUKETAK

IV. KAPITULUA (57. artikulutik 59.era).– BIZI-BALDINTZA DUINETARAKO ETA GIZARTERATZEKO ESKUBIDEA SUSTATZEKO JARDUKETAK

V. KAPITULUA (60. artikulutik 64.era).– OSASUNERAKO ESKUBIDEA SUSTATZEKO JARDUKETAK

VI. KAPITULUA (65. artikulutik 68.era).– HEZKUNTZARAKO ESKUBIDEA SUSTATZEKO JARDUKETAK

VII. KAPITULUA (69. artikulutik 71.era).– KULTURARAKO ESKUBIDEA SUSTATZEKO JARDUKETAK

VIII. KAPITULUA (72. artikulutik 76.era).– JARDUERA FISIKORAKO ETA KIROLERAKO ESKUBIDEA SUSTATZEKO JARDUKETAK

IX. KAPITULUA (77. artikulutik 79.era).– AISIALDI HEZIGARRIKO JARDUERAK SUSTATZEKO JARDUKETAK

X. KAPITULUA (80. artikulutik 81.era).– LAN-EREMUAN ESKUBIDEAK SUSTATZEKO JARDUKETAK

XI. KAPITULUA (82. artikulutik 83. artikulura).– INGURUMEN OSASUNGARRIA IZATEKO ESKUBIDEA SUSTATZEKO JARDUKETAK

XII. KAPITULUA (84. artikulutik 86.era).– INGURUNERAKO ETA MUGIKORTASUNERAKO ESKUBIDEA SUSTATZEKO JARDUKETAK

XIII. KAPITULUA (87. artikulutik 93.era).– INFORMAZIOERAKO ESKUBIDEA SUSTATZEKO JARDUKETAK

XIV. KAPITULUA (94. artikulutik 95.era).– INFORMAZIOAREN ETA KOMUNIKAZIOAREN TEKNOLOGIETARAKO ESKUBIDEA SUSTATZEKO JARDUKETAK

XV. KAPITULUA (96. artikulutik 101.era).– KONTSUMOAREN ARLOKO ESKUBIDEAK SUSTATZEKO JARDUKETAK

IV. TITULUA.– PREBENITZEA ETA DETEKTATZEA ZER EGOERA DIREN KALTEGARRI HAURREN ETA NERABEEN OSASUNERAKO, HEZKUNTZARAKO ETA ONGIZATE MATERIALERAKO ETA HAIK GIZARTERATZEKO, ETA EGOERA HORIEK ARTATZEA

- 102. artikulua.– Prebenitzeko, detektatzeko eta arretea emateko eginbeharra.

I. KAPITULUA (103. artikulutik 116.era).– PREBENITZEA ETA DETEKTATZEA ZER EGOERA DIREN KALTEGARRIAK OSASUN FISIKO ETA MENTALERAKO, ETA EGOERA HORIEK ARTATZEA

- 103. artikulua.– Gaixotasunen eta nahasmenduen prebentzioa eta detekzioa.

- 1. atala (104. artikulutik 105.era).– Garapen-nahasmenduen prebentzioa, detekzioa eta

arreta.

- 2. atala (106. artikulutik 107.era).– Sexu- eta ugalketa-osasunaren alorreko prebentzioa, detekzioa eta arreta
- 3. atala (108. artikulutik 109.era).– Obesitatearen prebentzioa, detekzioa eta arreta.
- 4. atala (110. artikulutik 114.era).– Osasun mentaleko nahasmenduen, jokabide arazotsuen eta mendekotasunen prebentzioa, detekzioa eta arreta.
- 5. atala (115.etik 116.era).– Istripuen prebentzioa eta arreta.

II. KAPITULUA (116. artikulutik 120.era).– PREBENITZEA ETA DETEKTATZEA ZER EGOERA DIREN KALTEGARRI HEZKUNTZA-GARAPENERAKO, ETA EGOERA HORIEK ARTATZEA

- 1. atala (117.etik 118.era).– Eskolagabetzearen eta eskola-absentismoaren prebentzioa, detekzioa eta arreta.
- 2. atala (119.etik 120.era).– Eskola-porrotaren prebentzioa, detekzioa eta arreta.

III. KAPITULUA (121.etik 126.era).– PREBENITZEA ETA DETEKTATZEA ZER EGOERA DIREN KALTEGARRIAK GIZARTERATZEKO ETA ONGIZATE MATERIALERAKO, ETA EGOERA HORIEK ARTATZEA

- 1. atala (121.etik 122.era).– Pobrezia-egoeren prebentzioa, detekzioa eta arreta.
- 2. atala (123.etik 124.era).– Bizitegi-bazterketaren prebentzioa, detekzioa eta arreta
- 3. atala (125.etik 126.era).– Gizarte-bazterketaren prebentzioa, detekzioa eta arreta.

V. TITULUA.– PREBENITZEA ETA DETEKTATZEA ZER INDARKERIA-EGOERA DAGOEN HAURREN ETA NERABEEN AURKA, ETA EGOERA HORIETATIK BABESTEIA

I. KAPITULUA (127.etik 129.era).– XEDAPEN OROKORRAK

II. KAPITULUA (130.etik 138.era)– HAURREN ETA NERABEEN AURKAKO INDARKERIAREN PREBENTZIOA

III. KAPITULUA (139.etik 156.era).– HAURREN ETA NERABEEN AURKAKO INDARKERIA-EGOEREN DETEKZIOA ETA ESKU-HARTZEA

VI. TITULUA.– BABESGABETASUNAREKIKO ZAURGARRITASUN-EGOERAK ETA BABESGABETASUN-EGOEREN PREBENTZIOA, DETEKZIOA ETA BABESA

I. KAPITULUA (157.etik 164.era).– XEDAPEN OROKORRAK

II. KAPITULUA (165.etik 168.era).– BABESGABETASUNAREKIKO ZAURGARRITASUN-EGOEREN ETA BABESGABETASUN-EGOEREN PREBENTZIOA

III. KAPITULUA (169.etik 174.era).– DESANPAROA DETEKTATU ETA BALORATZEA

IV. KAPITULUA (175.etik 256.era).– ADMINISTRAZIOAREN BABES-JARDUNA

- 1. atala (175.etik 185.era).– Administrazioaren babes-jarduna arrisku-egoeretan.
- 2. atala (186.etik 199.era).– Administrazioaren babes-jarduna desanparo-egoeretan.
- 3. atala (200.etik 208.era).– Zaintza bere gain hartzeko eta egikaritzeko prozedura.
- 4. atala (209.etik 222.era).– Zaintzarako eta tutoretzarako xedapen komunak.
- 5. atala (223.etik 224.era).– Zerbitzuetarako lehentasunezko irispidea.
- 6. atala (225.etik 234.era).– Familia-harrera.
- 7. atala (235.etik 244.era).– Egoitza-harrera
- 8. atala (245.etik 256.era).– Jokabide-arazoak dituzten adingabeak babesteko berariazko zentroak.

V. KAPITULUA (257.etik 281.era).– ADOPZIOA

- 1. atala (257.etik 269.era).– Adopzioa
- 2. atala (270.etik 277.era).– Nazioarteko adopzioa
- 3. atala (278.etik 281.era).– Adopzioaren ondorengo fasea

VII. TITULUA.– GIZARTE- ETA HEZKUNTZA-ARLOKO ARRETA EMATEA ZIGOR-LEGEAREKIN GATAZKAN DAUDEN ADINGABEEI

I. KAPITULUA (282.etik 283.era).– EREMU SUBJEKTIBOA

II. KAPITULUA (284.etik 286.era).– PRINTZPIOAK ETA BALIABIDE MATERIALAK ETA PERTSONALAK

III. KAPITULUA (287.etik 288.era).– PREBENTZIO-EKINTZA ETA NEURRIEN TIPOLOGIA

IV. KAPITULUA (289.etik 297.era).– NEURRIAK BETEARAZTEA

V. KAPITULUA (298.etik 300.era).– DIZIPLINA-ARAUBIDEA

VI. KAPITULUA (301.etik 303.era).– NEURRIAK BETEARAZTEKO JARDUKETA OSAGARRIAK

VIII. TITULUA.– ERAKUNDE ARTEKO LANKIDETZA ETA KOORDINAZIORAKO ORGANOAK ETA ORGANO AHOLKU-EMAILEAK ETA PARTAIDETZAKOAK

I. KAPITULUA (304.etik 306.era).– ERAKUNDE ARTEKO ETA SEKTORE ARTEKO ELKARLAN, LANKIDETZA ETA KOORDINAZIORAKO ORGANOAK

II. KAPITULUA (307.etik 309.era).– ORGANO AHOLKU-EMAILEAK ETA PARTAIDETZAKOAK

IX. TITULUA.– HAUR ETA NERABEENTZAKO ARRETAREN EREMUKO GARAPENA ETA HOBEKUNTZA

I. KAPITULUA (310.etik 316.era).– HAUR ETA NERABEENTZAKO INFORMAZIOA ETA ARRETAREN KALITATEA

II. KAPITULUA (317.etik 320.era).– HAURREN ETA NERABEEN BEHATOKIA

X. TITULUA (321.etik 323.era).– ESKUMEN-ARAUBIDEA

XI. TITULUA.– ARAU-HAUSTE ETA ZEHAPEN ADMINISTRATIBOAK

I. KAPITULUA (324.etik 331.era).– ARAU-HAUSTEAK

II. KAPITULUA (332.etik 336.era).– ZEHAPENAK

III. KAPITULUA (337.etik 339.era).– PROZEDURAZKO XEDAPENAK

III.- GOGOETA OROKORRAK

«*Haur eta Nerabeen Legearen aurreproiektua*» aurkeztu digute, hari buruzko gogoeta egin dezagun. Aurreproiektuaren bitartez, erreferentziazko esparru juridiko berri bat onesten da EAEn, haurren eta nerabeen arlo osoari buruz. Xedea, beraz, EAEn bizi diren edo bertan dauden haurrei eta nerabeei nazioarteko, Europako zein Estatuko ordenamendu juridikoak aitortzen dizkien eskubideak eta askatasunak bermatzea da.

Ontzat jotzen dugu esparru arautzaile hori, integrala delako, eta Estatuko ordenamendu juridikoarekiko koherentea delako. Izan ere, lagundu egiten du EAeko ordenamendu juridikoan dispersio txikiagoa egoten eta adingabeei eragiten dieten Estatuko zein autonomia-erkidegoetako arauen interpretazioa eta aplikazioa errazten.

Era berean, arau bermatzailea da. Haurrak eta nerabeak zuzenbideko subjektu gisa kontuan hartzen ditu, hainbat termino integratzen ditu: esaterako, maila guztietako sustapena, lege-proiektu guztietan haurren gaineko eraginari buruzko txostenen nahitaezkotasuna, haurren parte-hartzea eta beste batzuk. Azken finean, legearen integritasuna eta zeharkakotasuna kolektibo horren eskubideen erabileran integratzen ditu.

Era berean, ontzat jotzen da aurreproiektuaren zioen azalpenean Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Nazioarteko Konbentzioaren aipamena jasotzea, eta araudiak kolektibo horren eskubideei buruz eduki behar duen ikuspegitik abiatzea, kontuan hartuta konbentzio horren bitartez, estatuei eta administrazio publikoei eskatzen zaiela desgaitasuna duten haurren eta nerabeen oztopoak ezabatzeke.

Edukiari buruzko honako alderdi hauek aipatu nahi ditugu:

- **Zioen azalpena.** Arauari garrantzirik kendu gabe, gure ustez, zioen azalpena handiegia da (28 orri ditu), eta eduki edo kontzeptu batzuk errepikatu egiten dira.
- **Arauaren luzera.** Arauak arautzen duen eremua zabala dela jakinda ere, uste dugu luzeegia dela (horregatik, testuari egiten dizkiogun ekarpenak ere luzeak dira). Pentsatzen dugu edukiaren zati handi bat erregelamendu bidezko garapenen bidez egin litekeela. Legegintza-teknika hori hautatuz gero, gure gogoeta espezifiko eta gehitzeko proposamen gehienek ere bide horri jarraituko diote. Gainera, lege-aurreproiektuan hainbat gai jaso dira, baina zehaztu gabe utzi dira, gerora arautuko direlako; beraz, espero dugu Kontseilu honek, hala dagokionean, ekarpenak egiteko aukera izatea.

- **Figura eta organo ugari.** Gure ustez, ahalegin goresgarria egin da gaiari buruzko arauketa osoa lege-testu bakar batean bateratzeko, eta, hala, gai hori ulertzea eta aplikatzea errazteko; baina, bestalde, ahalegin horren eraginkortasuna neurri batean ezabatzen da izen batzuk bikoizten direlako, eta antzeko funtzioak dituzten organo ugari aipatzen direlako. Izenei buruz: koordinatzailea, eskola-eremuan eskumena duena (134. artikuluan); eta babes-ordezkaria, jarduera fisikoaren eta kirolen arloetako eskumenak dituen (137. artikuluan). Organoei buruz: Haurrentzako Erakunde arteko eta Sektore arteko Organoa (305. artikulua); Haur eta Nerabeentzako Euskal Kontseilua (308. artikulua); Haur eta Nerabeen Foroa (309. artikulua); Haurren eta Nerabeen Behatokia (317. artikulua eta hurrengoak), etab.
- **Prozesu parte-hartzailea.** Sustatu beharko litzateke arau hau egiteko prozesua parte-hartzailea izatea eta, beraz, haurren eta nerabeen benetako parte-hartzea kontuan hartzea. Horretarako, haur eta nerabeentzako hausnarketarako, prestakuntzarako eta eztabaidarako gune espezifikoak txertatu beharko lirateke, baita haiei laguntzeko beharrezkoak diren baliabideak ere. Horrez gain, garrantzitsua iruditzen zaigu babes-sisteman dauden edo egon diren hurrek ere parte hartzea.
- **«Adingabea» edo «adingabeak» terminoei buruz.** Oro har, testuan «haurrak eta nerabeak» aipatzen dira, eta termino horiek egokiak iruditzen zaizkigu; beste batzuetan, «adingabeak» aipatzen dira, eta artikulua batzuetan logikoa da termino hori erabiltzea pertsonen adingabetasunari erreferentzia egiteko diotelako. Adingabetasuna azpimarratu nahi denean, eta oinarri juridikoren bat duenean, egokitzat jotzen dugu «adingabeak» erabiltzea; bestela, egokiagoa iruditzen zaigu «haurrak eta nerabeak» erabiltzea.
- **Hizkuntza inklusiboa erabiltzea eta familien aniztasun aipatzea.** Testuan (28., 54., eta 56. artikuluetan, besteak beste), behin eta berriro aipatzen dira «ama» eta «aita», gaur egun dauden gainerako familia-ereduak baztertuta. Hortaz, egokiagozat jotzen dugu gurasoak aipatzea edo gaur egungo aniztasuna barne hartzen duen terminoren bat erabiltzea.
- **Landa-eremua.** Landa-eremuan bizi diren haur eta nerabeen errealtatea eta premiak ez dira berariaz aipatzen. Honako hauetan baino ez dira aipatzen: 74.d) artikuluan, kirol jarduerak landa-eremuetan sustatzeko; 83.b) artikuluan, natura- eta landa-ingurunea ezagutzeko bisitak eta ibilbideak jorratzen direnean; eta 95.2.b) artikuluan, hiru- eta landa-eremuetan IKT era parekidean ezagutzeko aukera sustatzeko. Erabat ados gaude gai horiek jorratzearekin, baina, gure ustez, landa-eremua orokorrean aintzat hartu behar da.

Gure ustez, landa-eremua orokorrean aintzat hartu behar da, eta landa-eremuan zerbitzuak eskuratzeko dauden oztopoak eta haur eta nerabe guztiek hiri- eta landa-gune seguruak izateko eskubidea ere bermatu behar dira.
- **Beste lege batzuekiko loturak.** Gure ustez, hurrekin eta nerabeekin zerikusia duten erreferentzia zehatzak eta beste lege batzuekiko loturak txertatu behar dira, baita horri buruzko koordinazioa ere. Hona hemen konektatu ahal diren beste manu batzuk: 2/2022 LEGEA, martxoaren 10ekoa, Gazteriarena; EAEko haurren kontrako indarkeriaren aurkakoa; 8/2021 Lege Organikoa, haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean osorik babesteari buruzkoa [gaztelaniaz, *Ley Orgánica 8/2021, de Protección a la Infancia y a la Adolescencia frente a la violencia*]; eta Atzerritarren Estatuko Legea.

- **Identitate sexualari eta genero-identitateari buruz.** Gure ustez, haur eta nerabe transexualen eskubideak eta askatasunak ez dira behar bezala zehaztu arauan, eta askatasun hori ez da artikulatzen, ezta bermatzen ere (24. artikuluan, adibidez, haurren edo nerabearen interes gorena gailentzeko eskubideari buruzkoan); beraz, gabezia horrek kezkatzen gaitu.
- **Nerabeak.** Egokitzat jotzen dugu nerabeak legean sartzea; hala eta guztiz ere, iruditu zaigu «nerabeak» hitza nolabait «betegarri» moduan erabiltzen dela, nerabeak eta haurrak kasu guztietan parekatzen baitira, aipatzen direnean. Gure ustez, artikulua batzuetan berariaz jorratu beharko litzateke nerabeen arloa, eboluzio-etapa horren ezaugarriak aintzat hartuta. Agian, adin-tarteak txerta daitezke (justiziari buruzko atalean, adibidez, adin-tarteen hutsunea sumatzen da; are gehiago, kontuan hartzen badugu hori araututa dagoela jada, eta erantzukizun penala izaten hasteko adina 14 urtekoa dela).
- **Irisgarritasun unibertsala.** Gure ustez, irisgarritasun unibertsala aipatu arren, praktikan, ez dira kontuan hartzen edozein desgaitasuni lotutako laguntza zehatzen premiak, interesdunek laguntza hori alde aurretik eskatu behar dutelako. Edozein hurrek edo nerabek, edozein arazo duela ere, alde aurretik eskaera bat helarazi beharrik gabe, aurreikusita eduki beharko litzateke administrazio publikoarekin aukera berdinetan harremanetan jarri ahal izateko laguntzak. Bereziki azpimarratu nahi dugu entzuteko desgaitasuna, maila guztiak kontuan hartuta. Gainera, proposatu egiten dugu zeinu-hizkuntza ere gehitzea, «hizkuntza nagusia» hitz egiten denean.
- **Kultura aniztasuna.** Beste herrialde batzuetako haurrak eta nerabeak legean aipatzen direnean, orokorrean, «hauen kultura» aipatzen da (33. artikuluan, adibidez, Kulturarako eskubideari buruzkoan). Gure aburuz, egokiagoa da «identitate kulturala» edo «jatorrizko herrialdea» esatea.
- **Eragileen arteko koordinazioa.** Gure ustez, hurrekin eta nerabeekin jarduten duten eragileen arteko koordinazioa ez dago behar bezala bermaturik arauan; hortaz, proposatu egiten dugu berariaz sartzea. Bestela, akatsak egiten jarraituko dugu, hala nola balorazioak errepikatzea hainbat administrazio publikotan, besteak beste.
- **Osasun mentala.** Legean honako hauek sustatu beharko lirateke: baliabideetarako irisgarritasuna, haurrak eta gazteak artatzeko psikologo eta psikiatren ratioa handitzea, baliabideen banaketa ekitatiboa bermatzea; eta gehiegizko patologizaziorik eta gainmedikaziorik gabeko zaintza. Era berean, kontuan hartu behar da osasun mentalak ez duela berekin ekarri behar gizarte-bazterketarik (nahiz eta pobreak osasun mentalari buruzko arazoak sor ditzakeen).
- **Eginbeharrak.** Proposatuta egiten dugu haurren eta nerabeen eginbeharrari buruzko kapitulua kentzea (41. artikulutik 44.era); eta hurrei eta nerabeei laguntzeko instantzia guztien erantzukizuna indartzea, hurrek eta nerabeek erabateko autonomia lortzen duten arte. Haurren betebeharrak, eginbeharrak eta erantzukizunak berezkoak dira, baita ordenamendu juridikoak aitortzen dizkien eskubideen titulartasunaren eta eskubideok gauzatzearen ondoriozkoak ere (uztailaren 22ko 8/2015 Lege Organikoak aitortzen duen bezala); horregatik, ez zaigu logikoa iruditu lege baten artikuluetan gai hori sartzea, zehazki, xedapen-zatian, gai horren dimentsioa juridikoa baino morala delako.

Illo horretatik, badirudi komeni dela eta gomendagarria dela haurren eta nerabeen artean betebeharrak, eginbeharrak eta erantzukizun horien ezagutza eta betetzea sustatzea familiaren, komunitatearen eta hezkuntzaren eremuetatik. Halaber, interesgarria da familiaren eta komunitatearen rol hori ere aipatzea.

- **Laguntza unibertsalak.** «Familia eta Haurtzaroaren aldeko Euskal Ituna» sinatu zuten erakundeek konpromisoa hartu zuten seme-alabak dituzten familia guztiei gutxieneko baliabide ekonomikoak bermatzeko eta haurren pobrezia prebenitzeko egiten ari diren jardueretan sakontzeko. Ildo horretatik, proposatu egin zuten Euskal Autonomia Erkidegoan prestazio ekonomikoen eredu unibertsal eta zabalagoa lortzeko urratsak egitea, seme-alabak dituzten familia guztiengana iristeko eta eraginkortasuna handitzeko, zerga-politikak eta gastu-politika publikoak aztertuta, eta, hala badagokio, egokituta, politika mota biek modu harmoniatsuan lagun dezaten haur-pobrezia prebenitzeko eta murrizteko helburuak lortzen.

Gure ustez, orain aztertzen ari garen legean haurren pobreziaren aurkako borrokari eta hazkuntzari lotutako prestazioen unibertsaltasuna aitortu eta sartu beharko litzateke, batez ere, prebentzioaren ikuspegitik, 18 urte bete arte.

- **Arartekoaren Haurren eta Nerabeen Bulegoa.** Legean bulegoa garatu behar da EAEn haurren eta nerabeen eskubideen defentsaren eta babesaren aldeko ikuskapen independentea egiteko funtsezko erakunde gisa. Gure ustez, bulego horrek Haurren EAeko Defentsa-erakundearen eskumenak izaten ditu, beraz, legean indar handiagoz jorratu beharko litzateke.

Izan ere, Haurren Eskubideen NBEren Batzordeak Espainiako bosgarren eta seigarren txosten konbinatuei buruzko azken oharretan (2018) gomendatzen du haurren eta nerabeen eskubideen ikuskapen independentea babesteko eta indartzeko behar diren neurriak hartzea.

- **Gaitasun handiak dituzten adingabeak.** Hezkuntzarako eskubidea arautzen denean, gaitasun handiko adingabeei buruzko aipamenaren hutsunea aurkitu dugu. Adingabe horiek ere egokitzapen eta doikuntza espezifikokoak behar dituzte, ahalik eta garapen akademiko eta pertsonal handiena sustatzeko, baita pertsona horiek integratzeko, gizarteratzeko eta sozializatzeko ere. Era berean, saiatu egin behar da gaitasun handietako adingabeek eskola porrotik ez izaten, bitartekoak falta direlako. 32.3 artikuluan berme hori jasotzen da desgaitasunari eta integratzeko zailtasunei lotutako hezkuntza-laguntzako behar espezifikokoak dituzten haurrentzat; beraz, ildo horretan, beste aurreikuspen hori ere txerta liteke.

- **Jatorri migratzaileko haurrak.** Familia-erreferenterik gabeko haur migratzaileek berariazko premiak dituzte, eta premia horiek kontuan hartu behar dira esku-hartze eta babes egokia eta espezializatua ziurtatzeko. Legearen aurreproiektuan, ordea, ez da aurreikusi neurri zehatzik.

- **Administrazioen babes-jardunaren esparruko zaintza.** Gure ustez, lege berri honen esparruan babes-politikak eta espazio seguruak diseinatu behar dira. Izan ere, bermatu egin behar da indarkeria mota guztiak detektatzea, indarkeriari buruzko informazioa ematea eta erantzuna ematea, betiere haurren eta nerabeen aurkako indarkeria mota guztiei aurrea hartzeko ikuspegitik: bizikidetzaren planak berrikustea; erantzukizunak jokabide-kode baten arabera eta profesionalen prestakuntzaren bidez definitzea; haurren eta nerabeen aurkako indarkeria mota guztiei modu integralean helduko dien informazio- eta erantzun-protokoloak berrikustea eta bateratzea; profesional guztiek protokoloa ezagutzen dutela bermatzea; baita adingabeekin zuzenean lan egiten ez dutenek ere; azkenik, ongizate- eta babes-koordinatzailearen figura berri bat sartzea, eta figura horrek prestakuntza espezializatua izatea.

IV.- GOGOETA BEREZIAK

Zioen azalpena

Legearen aurreproiektuaren **20. orrian**, hau da, zioen azalpenean, aipatu egiten da legea sortu dela *hiru helburu betetzeko*, baina, gure ustez, **eremu pribatuari erreferentzia** egin behar zaio.

Laburbilduz, gure iritziz, lege horrek eremu publikoa eta pribatua arautzen dituenaz, erreferentzia egin behar dio eremu pribatuaren erantzunkidetasunari.

ATARIKO TITULUA: XEDEA, EREMUA ETA JARDUKETA-ARDATZAK

I. kap.: Xedea eta eremua

2. artikulua. Eremua

Artikulu horretako **3. apartatuan** hauxe ezartzen da: «Lege honi lotuta egongo dira Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde-eremuan jarduten duten pertsona fisiko eta juridiko publiko zein pribatuak, baldin eta, beren eskumenen jardunean edo beren jardueren garapenean, haurren eta nerabeen eskubideak eraginkortasunez egikaritzeko bermean eragina duten politikak edo erabakiak hartzen badituzte, edo hurrekin eta nerabeekin ohiko harremanak izaten badituzte»

Gaztelaniazko idazkera honela hobetzea proposatzen dugu (euskaraz ez dago genero-arazorik.)

«3.– *Quedarán sujetas a la presente ley las personas físicas y jurídicas, públicas o privadas, que actúen en el ámbito territorial de la Comunidad Autónoma del País Vasco y que, en el ejercicio de sus competencias o en el desarrollo de sus actividades, adopten políticas o decisiones o realicen intervenciones que **incidan en la garantía del ejercicio efectivo de los derechos de niños, niñas y adolescentes, o se relacionen de forma habitual con ellos y ellas***».

3. artikulua. Arauek haurtzaroan eta nerabezaroan duten eragina

Artikulu horretako **3. apartatuan** hauxe ezartzen da: «*Eusko Jaurlaritzak, haur eta nerabeen arloan eskumena duen sailak proposatuta, arauak edo gidalerroak onetsiko ditu, eta bertan jasoko dira haurtzaroaren eta nerabezaroaren gaineko eraginaren ebaluazioa egiteko bete beharreko jarraibideak eta, hala bada gokia, eraginaren ebaluazio hori egin beharretik salbuetsita dauden arauak*».

Gure ustez, haurtzaroaren eta nerabezaroaren gaineko eragina beti ebaluatu behar da, salbuespenik gabe, beraz, arau guztien eragin hori ebaluatu beharko litzateke. Ebaluazioan bertan ondorioztatuko da aurrera egin behar den edo haurtzaroaren eta nerabezaroaren gaineko eraginik ez dagoen, ez zeharkakorik, ezta zuzenik ere.

Hori dela eta, iradoki egiten dugu azpimarratuta agertzen den testua **kentzea**.

4. artikulua. Aurrekontuen lehentasuna

Lehenik eta behin, artikulu horretako **1. apartatu**ko testua osatzea proposatzen dugu, zehazki, lodiz nabarmendu dugun testua txertatuta:

«1.– *Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoek, bakoitzak bere eskumen-eremuan, lehentasuna eman beharko diete aurrekontuetan lege honen xede diren haur eta nerabeei lotutako sustapen-, prebentzio-, arreta- eta babes-jarduketei, 1989ko azaroaren 20ko Haurren Eskubideei*

buruzko Hitzarmenaren 4. artikulua aplikatuta, bai eta ekainaren 4ko 8/2021 Legean ezarritakoa ere aplikatuta (zehazki, haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean osorik babesteari buruzko legea da)».

Horren zioa da araudiok arautzen dituzten eremu guztietan bermatu behar dela baliabide-zuzkidura.

Bigarrenik, gure ustez, artikulua horretan beste **apartatu bat txertatu** behar da, eta bertan xedatu behar da nola ebaluatuko den lehentasun hori aurrekontuetan. Honako testu hau proposatu dugu:

«4.– Administrazio publikoek haurtzaroan eta nerabezaroan egiten duten aurrekontu-inbertsioa urtero ebaluatu beharko da, eta bereziki zehaztuko dira gako-sailak, haurtzaroari esleitutako gastuaren kopurua eta aurrekontu-gastua gehiago edo gutxiagoa bideratu den haurren eskubideetara».

II. kap.: Definizioak eta jarduketa-ardatzak

6. artikulua. Kontzeptuak

Lehenik eta behin, gaztelaniaz, honako testu hau ezarri da artikulua horren hasieran: «*A los efectos de la presente ley, se adoptarán los siguientes conceptos...*» (euskaraz, «Lege honen ondoretarako, honako kontzeptu hauek erabiliko dira:»).

Uste dugu gaztelaniaz «*adoptar*» aditza ez dela egokiena, beraz, kontzeptu hori berrikustea proposatzen dugu.

Bigarrenik, uste dugu **kontzeptu gehiago jaso beharko liratekeela**. Kontzeptu horiek zioen azalpenean aipatzen dira, eta, gainera, artikuluetan ere agertzen dira. Kontzeptu zabalak dira, eta hainbat modutan interpreta daitezke. Zehazki, honako kontzeptu hauek proposatzen ditugu: desgaitasuna eta motak; hezkuntza-premia bereziak (eta zertan den ezberdina, desgaitasun aitortuaren aldean) eta osasun mentala (arazo larriak baino gehiago).

7. artikulua. Jarduketa-ardatzak

1. apartatuan letra lodiz nabarmendu ditugun **aldaketak eta gehikuntzak** proposatzen ditugu:

«1.– Haurrek eta nerabeek beren eskubideak eraginkortasunez egikaritzen dituztela bermatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoek, bakoitzak bere eskumen-eremuan, honako jarduketa-ardatz hauen inguruan antolatu beharko dituzte esku-hartzeak:

*a) **Haurren eta nerabeen tratu ona eta ongizatea**, beren eskubideak eraginkortasunez egikaritzea eta beren eginbeharrak beren gain hartzea sustatzea.*

*b) **Ingurune seguruak, tratu ona bermatzeko inguruneak eta ingurune inklusiboak sortzea adingabeen bizitzaren garapena gertatzen den eremu guztietan.***

Ingurune segurutzat joko da haurren eskubideak bermatzen dituen eta giro fisiko, psikologiko eta sozial babeslea sustatzen dituen, ingurune digitala ere barne.

*c) **Haurren eta nerabeen osasunerako, hezkuntza-garapenerako, ongizate integralerako eta gizarteratzerako egoera kaltegarriak prebenitzea, detektatzea eta haiei arretea ematea».***

Ongizatea ezin da soilik mugatu hezkuntzaren garapenera, eremu materialera edota gizarteratzera. Horren ordez, ikuspegi holistikoz heldu behar zaie haurren eta nerabeen eskubideei (ongizate integrala bermatze aldera).

Gainera, jarduketa-ardatzetako bat, eta, aldi berean, legeriaren beraren helburua da hauxe bermatzea: haurrak eta nerabeak garatzeko edo bertan egoteko erabiltzen diren eremu guztiak ingurune seguruak izatea, haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean osorik babesteari buruzko ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoan ezarritako baldintzetan.

10. artikulua. Arreta

Haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean osorik babesteari buruzko ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoarekin bat etortze aldera, arreta definitzeari eta bertan parte hartzen duten eremuei dagokienez, **1. apartatuan honako aldaketa hauek** egitea proposatzen dugu:

«1.– Lege honen ondoretarako, arretatzat joko da administrazio publikoek haurren eta nerabeen eskubideak behar bezala egikaritzen direla bermatzeko, bai eta haien garapen integrala eta harmonikoa **garatzen diren ingurune guztietan** bermatzeko ere, egiten duten politika-, estrategia- eta jarduketa-multzoa, indarkeria- edo babesgabetasun-egoerei lotuta dauden egoera kaltegarriak **edo kaltegarriak diren beste egoera mota batzuk** gertatu direnean egindakoena, hala nola...».

11. artikulua. Indarkeriaren aurkako babesa

Proposatzen dugu **1. eta 2. apartatu**etan letra lodiz nabarmendu ditugun **aldaketak eta gehikuntzak** egitea:

«1.– Haurren eta nerabeen aurkako indarkeriaren kontrako babesa honako hauek osatzen dute: **prebentziotik hasita** haur edo nerabe bat edozein indarkeria motaren **biktima den arte** edo hura izateko arriskuan dagoenean administrazio publikoek garatu beharreko politika, prozedura eta jarduketa guztiek, indarkeria hori gertatzen den eremua edozein dela ere, dela eskolakoa, komunitate-mailakoa, kirolekkoa, familiakoa edo bestelakoa.

Babesaren helburua da hurrek eta nerabeek edozein indarkeria motaren aurrean duten osotasun fisikoa, psikikoa, psikologikoa eta morala babesteko oinarrizko eskubideak bermatzea, beren nortasunaren garapen askea ziurtatuta. Horretarako, babes integraleko neurriak ezarri behar dira, eta, besteak beste, sensibilizazioa, prebentzioa, detekzio goiztiarra, babesa (arreta barne) eta kaltearen konponketa kontuan hartu beharko dira bizitzaren eremu guztietan.

2.–Lege honen ondoretarako, hau joko da indarkeriatzat: Espainiako Estatuak berretsitako nazioarteko itunetan eta hitzarmenetan **eta gai horri buruzko estatu-legeetan** jasotakoaren arabera, heldu batek edo adingabe batek egindako ekintza, ez-egite edo zabarkeriazko tratu oro, baldin eta adingabeak beren eskubideez eta ongizateaz gabetzen baditu, eta, betiere, beren garapen fisiko, psikiko edo sozial ordenatua mehatxatzen edo oztopatzen badu, edonola eta edozeren bidez eginda ere, informazioaren eta komunikazioaren teknologien bidez egindakoa barne, bereziki indarkeria digitala, eta noizbehinka nahiz modu jarraituan, familia barruan nahiz kanpoan gertatuta ere.

Ikuspegi integral batetik eta Haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean osorik babesteari buruzko ekainaren 4ko 8/2021 Legean ezarritakoarekin bat, indarkeriaren aurrean osorik babesteak berekin ekartzen du indarkeriari aurrea hartzea, hau da, prebentzioa. Bestela esanda, ingurune seguruak, tratu onekoak eta inklusiboak sortu behar dira, eta familiei arreta prebentiboa eman behar zaie, arrisku-faktoreak ezabatzeko eta prebentzio-faktoreak areagotzeko, hau da, gurasoei beren guraso-

erantzukizuna behar bezala garatzeko behar duten laguntza eman behar zaie.

Babes integral horrek, gainera, Administrazio Publikoaren esku-hartzea baino gehiago eskatzen du; beraz, lehen apartatutik administrazioari egindako erreferentzia kentzea proposatzen dugu.

Bestalde, nazioarteko araudia aipatzeaz gain, beharrezkoa da, gogoeta orokorretan adierazi dugun bezala, Estatuko araudiak ere aipatzea, besteak beste, honako hauek: 8/2021 Lege Organikoa, ekainaren 4koa, haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean osorik babesteari buruzkoa; eta 1/1996 Lege Organikoa, urtarrilaren 15ekoa, Adingabea juridikoki babesteari buruzkoa eta Kode Zibila eta Prozedura Zibilaren Legea partzialki aldatzekoa; bi legeek babes-estandar minimoak jasotzen baitituzte, eta proposatutako babes integraleko sistema ixteko funtzioa dute.

12. artikulua. Desanparo-egoeretatik babestea

Familia-erreferenterik ez duten eta berehalako arreta behar duten haur migratzaileen babesgabetasun-egoera barne hartzeko, **1. apartatuan** letra lodizko testua **gehitzea** proposatzen dugu:

«1.– Adingabe batek izan dezakeen babesgabetasun-egoera batek barnean hartzen ditu egoera hauek, *lege honetan araututako moduan eta irismenarekin*:

a) *Arrisku-egoera, kalifikatu den edozein mailatan, eta barnean harturik jaio aurretik izan daitezkeen arrisku-egoerak.*

b) *Desanparo-egoera.*

Era berean, berehalako harrera behar duten adingabe guztiak babesik gabeko egoeran daudela joko da, babes-neurririk ezarri ez bazaie ere».

I. TITULUA: XEDAPEN OROKORRAK

I. kap.: Printzipioak

13. artikulua. Jarduteko printzipioak

Proposatzen dugu letra lodiz nabarmendu dugun testua **gehitzea**:

«*Administrazio publikoek, haurrei eta nerabeei lotutako sustapen-, prebentzio-, arreta- eta babes- eskumenak erabiliz, honako printzipio hauetara egokituko dute beren jarduna, nahiz eta bete beharko dituzten beste batzuk ere, lege honen beste titulu batzuetan eta inplikaturako arloetan indarrean dauden sektore-legeetan ezarritakoetan berariaz jasotakoak*:

a) *Eskubideak bermatzeko printzipioa, jarduketan ardatz nagusi gisa. Horren arabera, haurrak eta nerabeak zuzenbideko subjektutzat jo behar dira, eta jarduketa guztien eta erabaki guztien erdigunean kokatu behar da beren banakako eta taldeko eskubideak errespetatzea, sustatzea eta defendatzea, bai familia-ingurunean bai gainerako bizitzako eta harremanetako testuinguruetan, baita erabiltzen dituzten zerbitzuen eta esku hartzen duten prozeduren esparruan ere. **Bereziki, arreta jarri behar da haurren eta nerabeen aurkako indarkeria mota oro debekatzeko, tratu ona sustatzeko eta adingabearen interes gorenaren ebaluazio formala egiteko.***

...

j) Erakunde arteko eta sektore arteko plangintza-printzipioa. Horren arabera, ekintza publikoaren koherentzia bermatzeko eta aurreko letran aipatutako politiken izaera integrala eraginkortasunez ezartzeko, honako hauek zehaztu behar dira: zer helburu bete nahi diren, zer baliabide ekonomiko jarriko den helburuok betetzeko; zer adierazle geografiko eta populazio- eta gizarte-adierazle hartuko diren kontuan helburu horien lorpen-maila baloratzeko; zer neurri hartu beharko diren horretarako, transbertsalitatearen eta diziplinartekotasunaren ikuspegitik; eta **zer aurrekontu esleitu den hori gauzatzeko**.

...

p) Gurasotasun positiboa sustatzeko edo gurasotasuna modu positiboan gauzatzeko printzipioa. Horren arabera, neurriak hartu behar dira sustatzeko gurasoen, legezko ordezkarien edo harreragile eta zaintzaileen portaera, haurren edo nerabearen interes gorenean oinarritua, eta adingabea ingurune afektiboan eta indarkeriarik gabe haztera bideratua, eskubideetan eta betebeharretan oinarritutako hezkuntza barne hartzen duena, gaitasunen garapena bultzatzen duena, aitortza eta orientazioa eskaintzen dituena, alor guztietan erabat garatzeko aukera ematen duena eta **familian bizitzeko duten eskubidea bermatzen duena**.

...

q) Jarduketak eta neurriak batez ere hezkuntzara bideratzeko printzipioa, jarduketa-eremu guztietan, haurren eta nerabeen gaitasun pertsonalak eta ikasteko gaitasunak sustatzeko, eta, horrela, garapen integral eta harmonikoa, erabateko gizarteratzea eta partaidetza aktiboa bultzatzeko.

Era berean, adingabeekin ohiko harremana duten profesionalen espezializazioa eta gaikuntza sustatuko dira, bereziki, indarkeria-egoerak goiz detektatzeko, adingabeen autonomia indartzeko eta berdintasuna sustatzeko, lege honetan eta araudi osagarrian jasotako gainerako helburuei kalterik egin gabe.

r) Sustapenari, prebentzioari, detekzio goiztiarrari **eta berehalako jarduketari** lehentasuna emateko printzipioa. Horren arabera, bultzatu egin behar dira haurren eta nerabeen ongizatearen alde egiteko eta eskubideak eraginkortasunez egikaritzeko sustapen-jarduketak eta eskubide horiek eraginkortasunez egikaritzea mugatu, eragotzi edo kaltetu dezaketen egoerak, edo eskubideak urratzen dituztenak, prebenitzeko ekintzak –edo, gertatuz gero, garaiz detektatzekoak–, bereziki, haurrak edo nerabeak edozein indarkeria motaren biktima izatea edo babesgabetasun-arriskuan edo -egoeran egotea

s) Prozedura-bermearen printzipioa. Horren arabera, bermatu egin behar da hurrei edo nerabeei eragiten dieten erabakiak hartzeko prozedura arautuak erabiliko direla, ez-arbitrarioak, efikazak, arinak eta prozedura-ekonomiaren, bizkortasunaren eta gardentasunaren printzipioekin bat datozenak, adingabearen ezaugarri eta beharrezane, haren inguruabarrei eta eskubideei egokituak **eta norberaren arabera bereziak**; bikoizketak saihestuko direla; eta, bereziki, birbiktimizazioa edo biktimizazio sekundarioa dakarten egoerak saihestuko direla».

Gomendatu ditugun hobekuntzek, azkenean, manua lerrokatzen dute Haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean osorik babesteari buruzko ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoan ezarritakoarekin, bereziki 4. artikuluekin, non ezartzen baitira arau honetan babestutako jarduketa guztiak arautzen dituzten printzipioak.

Era berean, proposatu egiten dugu haurren eta nerabeen aurkako indarkeria mota oro debekatzeari buruzko beharrezko aipamena sartzea, baita tratu ona sustatzea, adingabearen interes gorenaren ebaluazio formala egitea edo familian bizitzeko eskubidea bermatzea ere, besteak beste.

Azkenik, j) apartatuan neurriak eta helburuak gauzatzeko aurrekontuari buruzko erreferentzia sartu da, plangintza guztiek aurrekontua behar dutelako.

II. kap.: Komunikatzeko eginbeharra eta isilpean gordetzeko eginbeharra

19. artikulua. Haurrek eta nerabeek komunikatzea

Proposatzen dugu **1. eta 2. apartatu**etan letra lodiz nabarmendu dugun testua **gehitzea**:

«1.– Indarkeriaren biktima diren edo beste adingabe baten aurkako indarkeria-egoera baten lekuko diren haur eta nerabeek, baita babesgabetasun-egoeran daudela uste dutenek edo beste adingabe bat egoera horretan dagoela susmatzen dutenek ere, horren berri eman ahal izango diete udaletako zein lurraldeetako gizarte-zerbitzuei, Segurtasun Indar eta Kidegoei, Ertzaintzari, Foru-poliziarari edo Udaltzaingoari, Ministerio Fiskalari edo Agintaritza Judizialari, zuzenean edo aitaren edo amaren, legezko ordezkarien, harreragile edo zaintzaileen bitartez, **edo haur eta nerabeen konfiantzazko pertsona baten bitartez, betiere pertsona horri arrisku hori izateko zantzuak antzematen ez bazaizkio. Arreta eta tratu egokia bermatze aldera, agintaritza eskuduneko pertsona espezializatu baten laguntza bilatuko da komunikazio-prozesuan aritzeko.**

2.– Komunikazio hori errazteko, Eusko Jaurlaritzak, gizarte-zerbitzuen arloan dituen eskumenak erabiliz, haurren eta nerabeen, haien legezko ordezkarien edo haur eta **haurrek edo nerabeek izendatutako konfiantzazko pertsonaren** eskura jarriko du orientazioko, aholkularitzako eta informazio telefoniko edo telematikoko zerbitzu bat, konfidentziala eta anonimoa, **bai eta informazio-eta salaketa-mekanismo edo -kanal seguruak, konfidentzialak, eraginkorrak, egokituak eta eskuragarriak ere...**».

Uste dugu beharrezkoa dela haurrek eta nerabeek erreferentziazko pertsona batekin egon ahal izatea, babes-eragile gisa jardun dezan, betiere haien interes gorenerako arriskutsua izan daitekeenik ikusi ezean. Era berean, funtsezkoa da profesional espezializatuen esku-hartzea, haurrei laguntzeko eta haien komunikazioa errazteko.

Azkenik, informazio- eta salaketa-mekanismo edo -kanal seguruak, konfidentzialak, eraginkorrak, egokituak eta eskuragarriak aurkitu behar dira, haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean osorik babesteari buruzko ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoan ezarritakoarekin bat.

20. artikulua. Komunikazioen konfidentziasuna eta segurtasuna

Haurrak eta nerabeak komunikazioetan babesten direla bermatzeko, eta familiarik, zaintzaileengandik, harreragileengandik eta abarretatik datorren komunikazioan arreta berezia jartzeko, **1.a) apartatuan** letra lodiz idatzitako testua **gehitzea** iradokitzen dugu;

«1.– – Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoek, beren eskumenen eremuan, honako neurri hauek hartuko dituzte adingabeei eragiten dieten indarkeria- edo babesgabetasun-egoeren komunikazioetan konfidentziasuna eta segurtasuna bermatzeko:

a) Mekanismo seguruak, eraginkorrak, egokituak eta irisgarriak ezarriko dituzte, eskumena duten

*agintariei haur eta nerabeen aurka egindako edo haiei eragiten dieten indarkeria- edo babesgabetasun-egoeren berri eman dieten pertsonen konfidentzialtasuna, **babesa eta segurtasuna** bermatzeko, eta arreta berezia jarriko da informatzailea adingabearen familiakoa denean....».*

II. TITULUA: HAURREN ETA NERABEEN ESKUBIDEAK ETA EGINBEHARRAK

I. kap.: Haurren eta nerabeen eskubideak

22. artikulua. Haurren eta nerabeen eskubideak aitortzeko tresna juridikoak

Nazioarteko eta Europako Erkidegoko araudiei erreferentzia egiteaz gain, barneko araudiari ere erreferentzia egiteko xedez, letra lodiz idatzitako testua **1. apartatuan gehitzea** proposatzen dugu:

*«1.– Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren edo dauden haurrak eta nerabeak nazioarteko itunek aitortzen dituzten eskubide eta askatasunen titular dira, batez ere, Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioak eta Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzko Konbentzioak –biak Nazio Batuenak–, Haurren Eskubideak Baliatzeko Europako Hitzarmenak eta Haurrak sexu-esplotaziotik eta -abusuetatik babesteari buruzko Hitzarmenak –biak Europako Kontseiluarenak–, Haurren Europako Gutunak –Europar Batasunarena–, Espainiako Konstituzioak, ABJLOk, **Kode Zibila eta Prozedura Zibilaren Legea partzialki aldatzekoa eta 8/2021 Lege Organikoa, ekainaren 4koa, haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean osorik babesteari buruzkoa**, eta, oro har, ordenamendu juridikoak aitortzen dituztenak».*

23. artikulua. Eskubideak egikaritzea bermatzeko neurriak

1.b) eta 2. apartatuetan letra lodiz idatzitako testua **gehitzea** proposatzen dugu:

«1.– Haurrek eta nerabeek eskubidea dute beren eskubideak eraginkortasunez egikaritzeko eta defendatzeko, administrazio publikoetatik informazioa formatu eskuragarri eta ulergarrian jasotzeko, beren inguruabarretara egokituta, eta, hala dagokionean, eurek aukeratzen duten hizkuntza ofizialean; era berean, eskubidea dute laguntza eta sorospen egokia jasotzeko, beharrezkoa denean. Horretarako, honako hauek egin ahal izango dituzte: ...

*b) Haien ustez beren eskubideak urratzen dituzten egoeren berri ematea Ministerio Fiskalari **eta lege honetan eta araudi osagarrian jasotako gainerako agintari eskudunei**, dagozkien akzioak abiaraz ditzaten. ...*

*2.– Adingabearen interes gorena kontuan hartuta, ebazpen, neurri edo erabaki bat har daitekeen prozedura judizial –edozein jurisdikzio-ordenatakoa– edo administratibo orotan **bermatu beharko dira adingabearen parte-hartzea eta entzuna izateko eskubidea**, legezko ordezkarien bidez, edo, hala badagokio, defendatzaile judizial baten bidez, haiekin interes-gatazka edo desadostasuna badago, eta Ministerio Fiskalaren bidez, haren eskubideak eta interesak defendatzeko. Interes-gatazka dagoela joko da adingabearen iritzia adingabearen gainean hartzen den neurriaren aurkakoa bada edo haren eskubideak murrizten badira. Aurrekoa gorabehera, berrmatu beharko da adingabeak entzuna izateko duen eskubidea eta zer dioen entzunaraztekoa, baldin eta hark heldutasun nahikoa badu eta, nolahi ere, hamabi urte baino gehiago baditu».*

Lehenik eta behin, esparru-araudiak eta, hedaduraz, lege honek aipatzen dute salaketa-bide errazak, seguruak, eskuragarriak, eraginkorrak eta egokituak eskaini beharra, adingabeen aurkako indarkeria salatzeko. Hori dela eta, Haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean osorik babesteari buruzko ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoaren 17. artikuluan ere jasotzen da aurreikuspen hori

betearazteko erakunde eskudun ugari daudela, besteak beste, gizarte-zerbitzuak, Segurtasun Indar eta Kidegoak, Ministerio Fiskala edo agintaritza judiziala eta, hala badagokio, Datuak Babesteko Espainiako Agentzia.

Bigarren atalean, gure ustez, parte-hartzea ezin da soilik bermatu legezko ordezkarien bidez, baizik eta 12 urtetik aurrera zuzenean parte hartzeko aukera gehitu behar dela, aurreproiektu honetako 25. artikuluan (entzuna izateko eskubideari buruzkoan) jasotzen den bezala, eta Gazteriaren martxoaren 10eko 2/2022 Legean ezarritakoarekin bat.

24. artikulua. Haurraren edo nerabearen interes gorena gailentzeko eskubidea

Proposatzen dugu **letra lodiz** nabarmendu dugun testua aipatutako apartatuetan **gehitzea**:

*1.– Adingabe orok eskubidea du berari dagozkion akzio eta erabaki guztietan bere interes gorenaren **ebaluazio formala** jasotzeko, eta baloratua eta funtsezkotzat hartua izateko, eremu publikoan zein pribatuan.*

...

4.– Kasu bakoitzean adingabearen interes gorena interpretatzeko eta aplikatzeko, honako irizpide orokor hauek hartuko dira kontuan, hargatik eragotzi gabe legeria espezifikiko edo sektoreko legeria aplikagarrian zehazten direnak eta kasu bakoitzeko inguruabar zehatzen arabera egokitzat jo daitezkeen beste batzuk:

...

c) Adingabearen bizitza eta garapena indarkeriarik gabeko familia-inguru egoki batean oinarrituta egotea komeni izatea. Horretarako: ...

*– Babes-neurri bat hartzea erabakitzen bada, familia-harrerari emango zaio lehentasuna, eta ez egoitza-harrerari. **Bermatu egingo da egoitza-harrerako babes-neurrien aldizkako berrikuspena, familia-harreraren erregimenera aldatzea ziurtatzeko.***

...

5.– Irizpide horiek baloratzean, elementu orokor hauek hartuko dira kontuan:

*a) Adingabearen adina eta heldutasuna, eta **kontuan hartuko dira Haurraren Konbentzioaren 14. Ohar Orokorrean planteatutako funtsezko alderdiak, hala nola haurren gaitasunen eta ahalmenen bilakaera, denboraren pertzepzioa edo heldutasunaren kontzeptua, besteak beste.***

...

*d) Adingabea modu eraginkorrean **gizarteratzea** eta garatzea sustatzeko hartzen diren irtenbideen egonkortasuna mantentzeko beharra, baita edozein motatako egoera-aldaketa material edo emozionalek adingabearen nortasunean eta etorkizuneko garapenean eragin ditzakeen arriskuak murriztea ere.*

*f) **Haurraren edo nerabearen iritzia***

*g) **Haurraren edo nerabearen identitatea***

h) Familiako ingurunea zaintzea eta pertsonen arteko erlazioak mantentzea

i) Haurraren edo nerabearen zaintza, babesa eta segurtasuna, bizirik irauteko, hazteko eta garatzeko dituen aukerak ahalik eta gehien babesteko, ongizate fisiko, emozional eta sozialeko testuinguru batean.

j) Haurraren edo nerabearen osasunerako eskubidea

k) Haurraren edo nerabearen hezkuntzarako eskubidea

l) Kasu bakoitzean beharrezkotzat jotzen diren eta adingabeen eskubideak errespetatzen dituzten beste haztapen-elementu batzuk

....

6. Edozein jurisdikzio-ordenatako ebazpen oro eta adingabearen interes gorenerako neurri oro prozesuaren berme egokiak betez hartu beharko da, eta, honako hauek bereziki errespetatuko dira:

a) Adingabeak informazioa jasotzeko, entzuna izateko eta prozesuan parte hartzeko duen eskubidea, indarrean dagoen araudiaren arabera.

b) Prozesuan langile kualifikatuek edota adituek parte hartzea. Beharrezkoa izanez gero, profesional horiek prestakuntza nahikoa izan beharko dute desgaitasuna duten haurren premia espezifikokoak zehazteko. Adingabeari eragiten dioten erabaki bereziki garrantzitsuetan, arlo egokietan espezializatutako talde tekniko eta diziplina anitzeko baten kide anitzeko txostena egin beharko da.

c) Adingabearen gurasoek, tutoreek edo legezko ordezkariak edo defendatzaile judizial batek (haiekin interes-gatazkarik edo desadostasunik badago) eta Fiskaltzak prozesuan parte hartzea, haien interesak defendatzeko. Aurrekoa gorabehera, bermatu beharko da adingabeak entzuna izateko duen eskubidea eta zer dioen entzunaraztekoa, baldin eta hark heldutasun nahikoa badu eta, nolana ere, hamabi urte baino gehiago baditu.

d) Idatzizko erabaki bat hartzea, eta motibazioan honako hauek jasotzea: erabilitako irizpideak, irizpideok elkarren artean eta oraingo eta etorkizuneko beste interes batzuekin haztatzean aplikatutako elementuak, eta prozesuan errespetatutako bermeak.

e) Erabakia berrikusteko aukera emateko baliabideak egotea, adingabearen interes gorena funtsezkotzat hartu ez duenean, edo adingabearen garapenak berak edo erabaki hori hartzea eragin zuten inguruabarretan izandako aldaketa esanguratsuek hura berrikustea eskatzen dutenean. Adingabeek doako laguntza juridikorako eskubidea izango dute legez aurreikusitako kasuetan».

Gure ustez, lehenik eta behin, adingabearen interes gorenaren ebaluazio eta zehaztapen formalak (1. atala) bermatzen du Haurraren Konbentzioaren 14. ohar orokorrean horri buruz ezartzen dituen jarraibideak betetzea.

Era berean, Adingabea juridikoki babesteari buruzkoa eta Kode Zibila eta Prozedura Zibilaren Legea partzialki aldatzeko urtarrilaren 15eko 1/1996 Legearekin eta Haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean osorik babesteari buruzko ekainaren 4ko 8/2021 Legearekin lerrotatzen da, haurraren interes gorena lehentasunezkotzat hartzeko garaian bermeak betetzen direla bermatzeko. Era berean, funtsezko elementuen edukia garatzen da Ohar Orokorrean eta ABJLOn jasotako irizpideak bateratzen direlako, Save the Children GKEk eta Comillasko Unibertsitateak egin duten «*Guía para la evaluación y*

determinación del interés superior del niño» izeneko gida abiapuntutzat hartuta.

Azkenik, ikusi da egoitza-harrerako kasu eskasetan berrikusten dela babes-neurri hori, neurria hartu eta gero. Bereziki, ezin izan zenean haurra hartu, harrera-familiarik ez zegoelako. Gure ustez, neurrien aldizkako berrikuspenean ziurtatzen baldin bada, horrek bermatuko du egoitza-harreratik familia-harrerara aldatzea aztertzei aukera, familia berriak harrerarako prest daudenean.

25. artikulua. Entzuna izateko eskubidea eta zer dioen entzunaraztekoa

Lehenik eta behin, letra lodiz adierazitako **aldaketak 1. apartatuan** gehitzea proposatzen dugu:

*«1.– Adingabe orok eskubidea izango du entzuna izateko eta zer dioen entzunarazteko, inolako bereizkeriarik jasan gabe, bai familia-testuinguruan, eta **arreta berezia jarri behar da** berari eragiten dioten administrazio-**prozeduretan**, prozedura judizialean edo bitartekaritzakoetan, baldin eta bere testuinguru pertsonala, familiarra, eskolakoa edo soziala ukitzen duten erabakiak hartu behar badira; adingabearen iritzia behar bezala kontuan hartuko dira, betiere haren adinaren eta heldutasunaren arabera **moldatuta**».*

Izan ere, haurrek eta nerabeek eskubidea dute haiei eragiten dieten prozedura eta erabaki guztietan entzunak izateko eta zer dioten entzunarazteko. Hori bermatzeko sistemak moldatu eta egokitu behar dira.

Bigarrenik, **4. apartatuan** hauxe ezartzen da: *«Heldutasuna profesional espezializatuek baloratu beharko dute, kontuan hartuta haurraren edo nerabearen garapen ebolutiboa eta aztertu beharreko gaia ulertu eta ebaluatzeko duen gaitasuna. Nolanahi ere, nahikoa heldutasun duela ulertuko da hamabi urte beteta dituenean. Dena den, hori ezinezkoa bada edo haurraren edo nerabearen interesa dela-eta komeni ez bada, haren legezko ordezkarien bitartez jakin ahal izango da zer iritzi duen — betiere legezko ordezkari horiek adingabearen interesen aurkako interesik ez badute—, edo, bestela, lanbideagatik edo harekin aparteko konfiantza izateagatik haren iritzia era objektiboan eman dezaketen pertsonen bitartez.*

Deigarria iruditu zaigu haurrak edo nerabeak hamabi urte beteak dituenean heldutasun nahikoa duela jotzea; zigor-arloko erantzukizuna, ordea, 14 urte betetzen dituen hasten da. Arau zehatzen batean oinarritzen baldin bada, egokia izango litzateke arauaren erreferentzia sartzea, suposiziorik ez egiteko. Bestela, azpimarratutako testua **kentzea** proposatzen dugu.

26. artikulua. Oinarrizko eskubideak eta askatasun publikoak

Artikulu honetako **a) apartatuan** beltzez nabarmendutako **aldaketak** eta **gehikuntzak** egitea iradokitzen dugu:

«Haurrek eta nerabeek eskubidea dute oinarrizko eskubideak eta askatasun publikoak egikaritzeko, legeek ezartzen dituztenak ez beste mugarik gabe, eta botere publikoek beharrezkoak diren baliabideak ezarri beharko dituzte eskubide horiek eraginkortasunez egikaritzeko. Bereziki, honako eskubide hauek izango dituzte:

*a) Bizitzeko, osotasun fisiko eta psikikoa eta tratu ona izateko eskubidea, eta horrek berekin dakar haurrek eta nerabeek aukera izatea babestuak sentitzen diren ingurune **seguru** batean bizitzeko, non ez duten jasaten inolako beldurrik edo indarkeriarik edo utzikaririk.*

*Lege honen ondoreetarako, hau joko da tratu ontzat: **gurasoen**, legezko ordezkarien, harreragileen eta zaintzaileen eta, oro har, herritarren edota **haurrei eta nerabeei eragiten dieten ekintzak egiten dituzten gainerako pertsonen** ekintza oro, baldin eta, ordenamendu juridikoak haurrei eta nerabeei aitortzen dizkien eskubideak errespetatuta, aktiboki sustatzen baditu, elkarrekiko errespetuaren, gizakien duintasunaren, bizikidetza demokratikoaren, gatazkak modu baketsuan konpontzearen, legearen babes berdinen, aukera-berdintasunaren eta haur eta nerabeen bereizkeria-debekuaren printzipioak. **Gainera, tratu onaren kontzeptuak barne hartzen ditu haurren parte-hartzerako eskubidea eta haurren gaitasunak ahalik eta gehien garatzeko eskubidea...**».*

Hala da, Haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean osorik babesteari buruzko ekainaren 4ko 8/2021 Legean ezarri den «ingurune seguru» kontzeptuarekin lerrokatu behar delako. Kontzeptu hori 3. artikuluko m) apartatuan definitu da.

Haurrek eta nerabeek oinarrizko eskubide guztiak dituzte, eta, bereziki, erreferentziatzat hartu behar dira Haurren Eskubideei buruzko NBERen Konbentzioan eta haren ohar orokorretan jasotako eskubideak.

Bestalde, tratu ona ezin da soilik mugatu familiaren eta, oro har, herritarren eremuetara. Tratu ona haurrak eta nerabeak garatzeko eremu guztietara zabaldu behar da.

27. artikulua. Parte hartzeko eskubidea

Hauxe ezartzen da **1. apartatuan**: «*Haurrek eta nerabeek parte hartzeko eskubidea dute, hau da, familiaren bizitzan eta hurbileko harreman-guneetan eta beren inguruneko gizarte-, kultura-, arte-, kirol-, jolas- eta politika-bizitzan bete-betean parte hartzekoa, baita herritartasun aktiboan pixkanaka sartzeko aukera ere, adinaren eta garapen ebolutiboaren arabera*».

Gure ustez, haurrek eta nerabeek eremu politikoan parte hartzeko eskubidea ere jaso beharko litzateke.

28. artikulua. Hazkuntzarako, bizikidetzarako eta familia-harremanetarako eskubidea

Gogoeta orokorretan adierazi dugun bezala, eta idazkeran gaur egungo familia eredu guztiak kontuan hartzeko, gomendatu egiten dugu «ama» edo «aita» idatzi beharrean, «**gurasoak**» idaztea artikuluan osoan.

Bestalde, **5.a) apartatuan** hauxe ezartzen da: «*... inola ere ez da bisita-, komunikazio- edo egonaldi-araubiderik ezarriko, eta, halakorik badago, eten egingo da, honako inguruabar hauetakoren bat gertatzen zaion aitari edo amari dagokionez: a) Beste ezkontidearen edo haren seme-alaben bizitzaren, osotasun fisikoaren, askatasunaren, osotasun moralaren edo sexu-askatasun eta -ukigabetasunaren aurka egiteagatik hasitako zigor-arloko prozesuan sartuta egotea*».

Testuaren amaieran «hirugarrenen» kontzeptua ere **gehitzea** proposatzen dugu, gure ustez, kontzeptu hori ere garrantzitsua baita xede horretarako:

*«... inola ere ez da bisita-, komunikazio- edo egonaldi-araubiderik ezarriko, eta, halakorik badago, eten egingo da, honako inguruabar hauetakoren bat gertatzen bazaio aitari edo amari: a) Beste ezkontidearen, haren seme-alaben **edota hirugarrenen** bizitzaren, osotasun fisikoaren, askatasunaren, osotasun moralaren edo sexu-askatasun eta -ukigabetasunaren aurka egiteagatik hasitako zigor-arloko prozesuan sartuta egotea*»

30. artikulua. Ongizate materialaren oinarrizko mailarako eta gizarteratzeko eskubidea

Ongizate materialaren oinarrizko maila izateko eta gizarteratzeko eskubideari dagokionez, puntu horretan erreparatzen zaio gurasoen hazkuntza-erantzukizunari, besteak beste. Gure ustez, Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioan adierazten den bezala, hauxe gaineratu beharko litzateke: hori egitea ezinezkoa denean, administrazio publikoak izango dira bitarteko eskuragarri guztiak jartzeko arduradunak, hala izan dadin.

31. artikulua. Osasunerako eskubidea

Artikulu honen **4. atalean** letra lodiz adierazitako testua **gehitzea** gomendatzen da:

«4.– Oro har, hurrek eta nerabeek, paziente gisa, Euskal Autonomia Erkidegoko osasun-sisteman pazienteei aitortutako eskubide berak izango dituzte, eta, bereziki, honako eskubide hauek: ...

m) *Tratu gizalegezkoa, ulerbera eta haien intimitatearekiko begirunezkoa jasotzeko eskubidea.*

n) **Zainketa aringarri pediatrikoak.**

o) *Osasun-zerbitzuetan aplikatzekoa den araudian jasotako beste eskubide guztiak, bereziki, Euskal Osasun Sistemako pertsonen Eskubideei eta Eginbeharrei buruzko Adierazpenean jasotakoak.*

Zainketa aringarri pediatrikoen arazoa sortzen ari da gure gizartean. Haien premiak adinaren, gaixotasunaren bilakaeraren, familia-unitatearen eta kultura-ingurunearen arabera dira, eta osasun-, gizarte- eta komunitate-arloko erantzun koordinatuak behar dituzte.

32. artikulua. Hezkuntzarako eskubidea

Hauxe ezartzen da **4. atalean**: «*Haur-hezkuntzak garapen ebolutiboan duen garrantzia frogatuta dagoenez, aukera-berdintasunaren, ekitatearen eta gizarte-justiziaren ikuspegitik, hezkuntza-administrazioak, EAEko hezkuntza-sistema osatzen duten funts publikoekin sostengatutako ikastetxeen bitartez, bermatu beharko du haurrak doan eskolatzen direla jaiotzen direnetik, 0 eta 3 urte bitarteko etapa barne. Administrazio eta gizarte-eragile desberdinekin elkarlanean, hezkuntza-administrazioak zero urtetik aurrerako eskolatzeari ezarriko du, Euskal Autonomia Erkidegoko zero eta hiru urte bitarteko haurrentzako haur-eskolak arautzen dituen euskal eskola publikoaren araudian jasotako moduan. Nolanahi ere, ezarpen-prozesuan, lehentasuna emango zaie maila sozioekonomiko apalena duten guneei eta, oro har, hezkuntza-laguntzako berariazko premiak dituzten hurrei edo hizkuntza-premiak dituztenei».*

Gure ustez, berariaz jaso beharko litzateke hezkuntza-segregaziorik ez sortzeko konpromisoa, funts publikoen bitartez antolatzen diren hezkuntza-zentroetan lekuen eta ikasleen bidezko banaketa bermatuta, ikasleen ezaugarri pertsonalak eta sozialak kontuan hartuta.

34. artikulua. Jolaserako eta aisialdirako eskubidea

Hauxe ezartzen da: «*Hurrek eta nerabeek atsedenerako, jolaserako eta aisialdirako eskubidea dute, aisialdi hezigarria barne, ingurune irisgarri, seguru, osasungarri eta inklusiboetan hezteko, osorik garatzeko eta sozializatzeko funtsezko elementu gisa. Ondore horietarako, aisialdi hezigarritzat hartuko da garapen integralari laguntzen dioten aisialdiko jardueren multzoa, parte hartzeko ohiturekin, ingurumena errespetatzeko ohiturekin edo konpromiso-, elkartasun- eta gizarteratze-*

balioekin heziko dituztenak, eta berdinen arteko harremanak eta gizarte-gaitasuneko trebetasunez jabetzen laquntzen dieten jarduerenak».

Gomendatzen dugu azpimarratutako testua **ordeztea** eta lodiz nabarmendu dugun testua idaztea, egokiagotzat jotzen dugulako:

*«Hurrek eta nerabeek atsedenerako, jolaserako eta aisialdirako eskubidea dute, aisialdi hezigarria barne, ingurune irisgarri, seguru, osasungarri eta inklusiboetan hezteko, osorik garatzeko eta sozializatzeko funtsezko elementu gisa. Ondore horietarako, aisialdi hezigarritzat hartuko dira garapen integrala sustatzen duten aisialdiko jarduerak eta **honako eskumen eta balio hauek lortzeko hezkuntza ematen dutenak: gizarteratzea; babesa eta eskubide sozialak; euskal hizkuntza, kultura eta komunitatea; genero-berdintasuna; bizitza osasungarria; gizarte digitala; zientzia, teknologia, ezagutza eta berrikuntza; ekintzailatza eta enplegagarritasuna; bizikidetzaren demokratikorako balioak; pentsamendu kritikoa eta justizia soziala; kontzientzia klimatikoa; herritarren parte-hartzea, elkartasuna, boluntariora eta guztien ongia».***

III. TITULUA: HAUR ETA NERABEEN ONGIZATEAREN ETA HAIEN ESKUBIDEEN EGIKARITZEAREN SUSTAPENA

I. kap.: Xedapen orokorrak

45. artikulua. Haurren eta nerabeen ongizatea sustatzeko eginbeharra

Artikulu horren **4.d)** atalean letra lodiz adierazitakoa **gehitzea** gomendatzen da:

«4.– Titulu honetan sektore-eremuei esleitutako dibulgazio-ekintzak –berariazko edukia dutenak– alde batera utzi gabe, administrazio publikoek sentsibilizazio- eta kontzientziazio-ekintza orokorrak garatuko dituzte, honako alderdi hauei lotutakoak: ...

*d) Garatzen diren eremu guztietan, haur eta nerabeei tratu ona ematearen kultura, haien garapen integral eta harmonikorako eta gainerako pertsonetikiko gaur egun duten eta etorkizunean izango duten errespetu-gaitasunerako funtsezko baldintza gisa, **haien bizitza garatzen den eremu guztietan.***

Hori gomendatzeko zioa hau da: haurren eskubideak errespetatzeko, tratu ona sustatzeko eta indarkeria prebenitzeko legeak lortu nahi duen logika zabaltzea haien bizitzaren eremu guztietara.

II. kap.: Oinarrizko eskubideak eta askatasun publikoak sustatzeko jarduketak

53. artikulua. Parte hartzeko, elkartzeko eta biltzeko eskubidea sustatzeko jarduketak

Artikulu horren **4.c)** atalean letra lodiz adierazitakoa **gehitzea** gomendatzen da:

*«c) (Administrazio publikoek) bermatuko dute hurrek eta nerabeek eraginkortasunez parte hartzea, jarduteko ezar daitezkeen **instituzio-** eta sektore-eremuetako izaera orokorreko organo aholku-emaila eta partaidetza mistokoetan haiek ordezkatzu eta, bereziki, lege honen 309. artikuluan aurreikusten den Haur eta Nerabeen Foroaren bidez».*

Proposatzen dugu «instituzio- eta sektore-eremuak sartzea».

Hala eta guztiz ere, ezin dugu parte-hartze eraginkorra aipatu artikulu horretan bildutako baldintzetan. Izan ere, hurrek eta nerabeek Haur eta Nerabeentzako Euskal Kontseiluan ordezkariak dute, eta zuzeneko parte-hartzea Haur eta Nerabeen Foroan baino ezin da gauzatu (309. artikulua).

III. kap.: Familian hazteko eta harremanak izateko eskubidea sustatzeko jarduketak

54. artikulua. Familiei hazkuntza-eginbeharrak betetzen laguntzea

Artikulu horretako **1. apartatuan** letra lodiz nabarmendutako **aldaketak** eta **gehikuntzak** egitea iradokitzen dugu:

«1.– Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoek, bakoitzak bere eskumen-eremuan, zainduko dute **gurasoek**, legezko ordezkariak eta harreragile eta zaintzaileak beren ardurapean dituzten haur eta nerabeen gaineko arreta, hazkuntza, zainketa eta hezkuntzako eginbeharrak beren gain hartzen eta behar bezala garatzen dituztela. Halaber, zainduko dute horretarako aukera eta informazio- eta prestakuntza-bitarteko egokiak izan ditzaten eta haurraren edo nerabearen ongizatea bermatzen eta haren garapena sustatzen lagun dezaketen eremuetako zerbitzuak eskura ditzaten, baita, hala badagokio, dagozkion prestazio edo laguntza ekonomikoak eskura ditzaten ere.

Era berean, laguntza eta prestazio horietarako sarbide unibertsala sustatu beharko dute, adingabeak ardurapean dituzten familia guztiei gutxieneko baliabide ekonomikoak bermatuz eta haurren pobrezia prebenituz».

Lehenik eta behin, hiztegia gaur egungo familien ereduaren arabera egokitzea proposatzen dugu, jada aipatu dugun bezala. Bigarrenik, administrazioek laguntzak eta prestazioak jasotzeko aukera unibertsala sustatu behar dute, adingabeak ardurapean dituzten familiei gutxieneko baliabide ekonomikoak bermatzeko, haurren pobrezia prebenituz.

55. artikulua. Gurasotasun positiboa sustatzea

Jada dauden baliabideak eta programak eta, bereziki, hirugarren sektorean espezializatu diren erakundeek emandakoak, sustatze aldera, **1. apartatuan** letra lodiz nabarmendu ditugun **aldaketak** **gehitzea** proposatzen dugu:

«1.– Eusko Jaurlaritzak, haur eta nerabeen arloan eskumena duen sailaren bitartez, gurasotasun positiboa sustatzeko ekintzak egingo ditu, eta bereziki, honako hauek:

...

b) Hazkuntzarako guraso-trebetasunak eskuratzea errazteko programak ezartzeko eta sustatzeko **eta jada dauden baliabide espezializatueta bideratzeko** ekintzak, tratu onaren kultura, lotura afektiboaren eta atxikimendu seguruaren sorreran eta finkapenean oinarritutakoak; eta, bereziki, guraso, legezko ordezkari eta harreragile edo zaintzaileek emoziozko balioak eta gaitasunak eskuratzeke prestakuntza sustatuko du, baita haur eta nerabeen kasuan ere, haien etapa ebolutiboarekin bat etorrira.

c) Familia barruko gatazkak modu baketsuan negoziatzeko eta konpontzeko trebetasunak eskuratzea errazteko prestakuntza-programak ezartzeko eta sustatzeko eta **jada dauden baliabide espezializatueta bideratzeko** ekintzak, haurren eta nerabeen hazkuntza eta garapena ingurune afektiboan eta indarkeriarik gabekoan errazteko...

...».

56. artikulua. Gurasokidetasuna sustatzea eta familia eta lana bateragarri egitea sustatzea

1. apartatuko edukiari dagokionez, berriro ere aipatu nahi dugu hiztegia egokitu behar dela gaur egungo familia-ereduen arabera: esaterako, «aita eta ama» esan beharrean (gaztelaniaz, «*el padre y la madre*»), «aitak eta amak edo gurasoak» («*los padres y las madres*») izan beharko luke. Era berean, **1. b) apartatuan** letra lodiz nabarmendutako **aldaketa** egitea proposatzen dugu:

«1.– Eusko Jaurlaritzak, familia-politikan eskumena duen sailaren bitartez, neurriak hartuko ditu **gurasoek**, legezko ordezkariak eta harreragile eta zaintzaileak beren ardurapean dituzten haur eta nerabeei hazteko behar duten denbora eskaini ahal izan diezaieten, erantzunkidea den gizarte-antolaketa sustatuz. Neurri hauek hartuko ditu, bereziki: ...

b) Familia eta lana bateragarri egitea ahalbidetzeko eta errazteko neurriak hartuko ditu, arreta egokia emateko hazkuntza- eta zainketa-erantzukizunei, baita erantzukizun horiek gizonek eta emakumeek berdintasunez bete ditzaten ere, eta, bereziki, bizitza pertsonala, familiakoa eta lanekoa uztartzeko dirulaguntzak emango ditu, seme-alabei **hemezortzi urte arteko** arreta emateko, haien diseinuagatik eta muntagatik eszedentziako edo lanaldi-murrizketetako egoeretara jotzea errazteko...».

Bestalde, **1.d) apartatuan** hauxe ezartzen du: *Eusko Jaurlaritzak... enpresa-munduan, familia-kontziliazioaren eta hazkuntzako erantzunkidetasunaren kultura sustatuko du. Horretarako, sensibilizazio, aholkularitza eta laguntzarako ekintzak egingo ditu, enpresetan genero-berdintasuneko eta kontziliazioko planak egiteko, eta, bereziki hitzarmen kolektiboetan familia-kontziliazioan laguntzeko neurriak ezarriko ditu, batez ere, ordutegiak eta lan-baldintza malguak antolatzeari dagokionez, seme-alabak haztearen eta zaintzearen ondoriozko erantzukizunei behar bezala erantzun ahal izateko...».*

Testua artikuluko edukiaren arabera egokitzeko, letra lodiz nabarmendu dugun testua **gehitzea** proposatzen dugu:

«d) Enpresa-munduan, familia-kontziliazioaren eta hazkuntzako erantzunkidetasunaren kultura sustatuko du. Horretarako, sensibilizazio, aholkularitza eta laguntzarako ekintzak egingo ditu, enpresetan genero-berdintasuneko eta kontziliazioko planak egiteko, eta, bereziki **hitzarmen kolektiboetan gurasokidetasunean, erantzunkidetasunean eta familia-kontziliazioan laguntzeko neurriak** ezarriko ditu, batez ere ordutegiak eta lan-baldintza malguak antolatzeari dagokionez, seme-alabak haztearen eta zaintzearen ondoriozko erantzukizunei behar bezala erantzun ahal izateko...».

Bigarrenik, kontratu publikoaren xede den zerbitzua gauzatzen den bitartean kontziliazioa modu eraginkorrean aplikatzen dela bermatzea garrantzitsua denez, artikuluko horren **2. apartatuan** letra lodiz nabarmendutako testua **gehitzea** iradokitzen dugu:

«2.– Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoek, beren kontratazio-organoen bidez, klausula sozialak sartuko dituzte, lehentasuna emateko, kontratazio publikoko prozeduretan, familia, lana eta bizitza pertsonala bateragarri egiteko eta bateragarri egite hori langileen artean sustatzeko konpromisoa egiaztatzen duten enpresei, **eta klausulen aplikazioa sustatuko dute kontratuak gauzatzen diren bitartean.**

IV. kap.: Bizi-baldintza duinetarako eta gizarteratzeko eskubidea sustatzeko jarduketak

57. artikulua. Ongizate materialaren oinarritzko maila sustatzeko neurriak

Lehenik eta behin, artikulua izenburua honela aldatzea proposatu nahi dugu: «Ongizate material

egokia sustatzeko neurriak».

Halaber, **1. apartatuan** letra lodiz nabarmendu ditugun **aldaketak eta gehikuntzak** egitea proposatzen dugu:

«1.– Eusko Jaurlaritzak, kasu bakoitzean eskumena duten sailen bitartez, neurri egokiak hartuko ditu gurasoek, legezko ordezkariak eta harreragileak eta zaintzaileak **maila egokiko** diru-baliabideak **eta zerbitzuak** eskuratu ahal izan ditzaten beren seme-alaba adingabeei, edo beren ardurapean dauden haur eta nerabeei garapen integral egokia izateko behar duten ongizate material **egokia** bermatzeko. Zehazki, honako neurri hauek hartuko ditu: ...

b) **Pertsona helduen** laneratzea eta lan-baldintza duinak eta **egokiak** lortzea sustatuko duten enplegu-eta lan-politikak diseinatu eta ezarriko ditu, baita **bizikidetzaren unitate osoaren** ongizate material **egokia** bermatzeko adinako soldata sustatuko dutenak ere.

...

e) Hazkuntzarako eta zainketarako 55.1 artikuluan jasotzen diren guraso-trebetasunak eskuratzea erraztera bideratutako programen esparruan, etxeko ekonomia ondo kudeatzeko jarraibideak ikastea sustatuko du, ongizate maila **egokia** ahalbidetzen laguntzeko».

Horren zioa da asmoak ongizate maila egokia lortzea izan behar duela, haurren eta nerabeen garapen osorako beharrezkoak diren estandarren arabera, eta ez gutxienezkoa. Bestalde, gizarteratzeari ikuspegi integraletik heltzea proposatzen dugu, alderdi ekonomikoak eta materialak kontuan hartzeaz gain, zerbitzu gaitzaileak ere barne hartzeko.

Era berean, gure ustez, garrantzitsua da laneratzea lortzea soilik bizikidetzaren unitateko pertsona helduei.

58. artikulua. Etxebizitza duinerako irispidea izatea sustatzeko neurriak

Gure ustez, eraginkorragoa da dibulgazio- eta sentsibilizazio-ahaleginak bideratzea *outreach* kanpainak egitera, hau da, egoera ahulean dauden pertsonen laguntza zuzendutako etxebizitza sozialeko zerbitzuetara eta kasuan kasuko prestazioetara hurbiltzen. Hori dela eta, honako **aldaketa** hauek **lehen apartatuan** egitea proposatu dugu:

«1.– Eusko Jaurlaritzak, etxebizitza-arloan eskumena duen sailaren bitartez, dibulgazio-kanpainak egingo ditu **egoera ahulean dauden pertsonak eta familiak** jakinaren gainean jartzeko, sentsibilizatzeko eta kontzientziatzeko, haur eta nerabe guztiek etxebizitza duina izatea bermatzeko beharrari buruz. Halaber, egoera ahulean dauden pertsonen eta familien lagunduko zaie **etxebizitza sozialeko zerbitzuetara eta kasuan kasuko prestazioetara** hurbiltzen, eta **bertan emango diete** Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoek helburu horrekin garatzen dituzten **neurrien berri**.

Bigarrenik, uste dugu neurri horiek bat etorri behar dutela Etxebizitzari buruzko ekainaren 18ko 3/2015 Legearen helburuekin; eta, bereziki, gaitzakeria finantzarioari ez eragiteko helburuarekin, alokairu/hipotekara bideratutako ahalegin finantzarioak bizikidetzaren unitatearen diru-sarreraren % 30 gainditu ez dezan.

Horretarako, **2. apartatuan** honako **aldaketa** hau egitea proposatzen dugu:

«2.– Eusko Jaurlaritzak eta udalek, etxebizitza-arloan dituzten eskumenak egikaritzuz, etxebizitza duin

*baterako eskubidea bete dadin neurri egokiak sustatuko dituzte, etxebizitza duina Etxebizitzaren ekainaren 18ko 3/2015 Legearen 1. artikuluan ezarritakoaren arabera ulertuta. Helburu horrekin, neurri horiek bideratu beharko dira, gutxienez, saihestera jende-pilaketak eta irisgarritasun-falta eta pobrezia energetikoa; bermatzera etxebizitza bizigarritasuna, segurua eta osasungarria dela; eta **saiatzera gainkarga finantzariorik ez hartzen**. Azken helburua izango da pobrezia ez transmititzea belaunaldi batetik bestera».*

59. artikulua. Gizarteratzea sustatzeko neurriak

Lehenik eta behin gomendatzen dugu letra lodiz nabarmendu ditugun **aldaketak** 1. apartatuan **gehitzea**, zerbitzu-zerrenda osatze aldera:

*«1.– Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoek, bakoitzak bere eskumen-eremuan, haur eta nerabeen gizarteratzea bultzatuko dute, eskubideak egikaritzean aukera-berdintasuna bermatuz eta, bereziki, osasun, hezkuntza, **etxebizitza, energia-hornikuntza, nutrizioa**, gizarte-zerbitzu, kultura, jarduera fisiko, kirol eta aisia eskueran izateko orduan».*

Bigarrenik, aurreko artikuluan azaldutakoa berriro aipatuko dugu, hots, ahaleginak bereziki bideratu behar direla egoera ahulean dauden pertsonen informazioa eta sentsibilizazioa emateko kanpainetara. Hori dela eta, honako aldaketa hau **2. apartatuko a) puntuan** egitea proposatzen dugu:

«2.– Zehazki, honako jarduketak hauek egingo dituzte:

*a) **Egoera ahulean dauden pertsonak eta familiak jakinaren gainean jartzeko, sentsibilizatzeko eta kontzientziatzeko dibulgazio-kanpainak egingo dituzte, haur eta nerabe guztien gizarteratzea bermatzeko baldintza egokienak sustatzeko beharrari buruzkoak, gizarteratze horrek, bai haientzat, bai gizarte osoarentzat, orain eta etorkizunean duen eragin positiboari buruzkoak barne. Dibulgazio-kanpaina horien xedea izango da, halaber, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoek helburu horrekin garatzen dituzten neurrien berri ematea».***

Azkenik, **c) puntuan** honako testu hau gehitzea proposatzen dugu: «ekintzen doakotasuna»

V. kap.: Osasunerako eskubidea sustatzeko jarduketak

60. artikulua. Osasunerako eskubidea sustatzeko jarduketak-printzipioak

Gomendatzen dugu artikulua horretan honako **aldaketa** eta **gehituntza** hauek egitea:

*«1.– Osasun-administrazioak **haurrei eta nerabeei** beren beharretara hoberen egokitutako **doako osasun-laguntza eskainiko die, eta, horretarako, osasun-zerbitzu anbulatorioen eta ospitale-zerbitzuen eskutik arreta jasotzeko eskubidea bermatuko die, baita haur eta gazteen osasun mentaleko zerbitzuetan ere, lege honen 31.3 artikuluan adierazitakoaren arabera.***

*2.– Osasun-politiken plangintzaren esparruan, haur eta nerabeen beharrei erantzuteko beharrezkoak diren baliabide guztiak jarriko dira eskuragarri **lehen mailako arretako, arreta espezializatuko, arreta anbulatorioko eta ospitale-arretako osasun-zentroetan, prebentzioa eta osasun fisiko eta mentala behar bezala zaintzeko.***

*3.– Halaber, beharrezkoak diren bitartekoak jarriko ditu haur eta nerabeen **etxeko tratamendua eta komunitatean integratutako tratamendu anbulatorioa**, bultzatzeko, eta ahal den neurrian haien ospitaleratzea saihesteko. Horretarako, osasun-zentro anbulatorioetan toki egokiak prestatuko dira*

haur eta nerabeen beharrak asetzeko, haien jolastu beharra barne, eskuragarri dagoen lekuaren eta dauden bestelako aukeren arabera, segurtasun-araudiari jarraituta. Nolanahi ere, irisgarritasunaren arloan indarrean dagoen araudia betetzen dela zaindu beharko da.

4.– Ospitaleratzea nahitaezkoa denean, egonaldia ahal bezain laburra izango da. Ospitale-zerbitzuek, publikoek nahiz pribatuek, ospitaleratutako haur eta nerabeei eskubide hauek bermatuko dizkiete, 31. artikuluan jasotako eskubideez gain:

*a) Ematen zaien osasun-tratamendu osoari buruz eta tratamendu horrek izan ditzakeen ondorio positiboari buruz informazioa jasotzea **beren hizkuntza nagusian**; betiere beren adina, heldutasuna eta garapen ebolutiboa kontuan izanda, bai eta egoera afektibo zein psikologikoa ere.*

...

*c) Ospitalean dauden bitartean ahal bezainbeste denboraz izatea gurasoetako, legezko ordezkarietako, harreragile edo zaintzaileetako, edo zainketa-eginkizunak eskuordetuta dituen pertsonetako baten konpainia, baldin eta horrek tratamendu egokiak aplikatzea eragozten edo oztopatzen ez badu, eta **haurren eta nerabeen ongizatea arriskuan jartzen ez badu.***

...

*e) Ospitaleratu behar dituztenean, ahal dela, beste haur edo nerabe batzuen ondoan jar ditzaten, eta ez helduen ondoan. **Kasu guztietan lehentasuna eman beharko zaio tratamenduaren kalitateari.***

...

*j) **Ahalik eta gehien murriztuko dira itxaron-zerrenden epeak, kontuan hartuta denbora igarotzeak haurren eta nerabeen interes gorenean duen eragin atzeraezina.***».

Lehenik eta behin, **1. apartatuan** osasun-arreta publikoaren printzipioen eta ezaugarrien hutsunea aurkitu dugu. Printzipio eta ezaugarri horiek, besteak beste, arretaren doakotasuna, eskuragarritasuna eta kalitatea dira. Gainera, osasunerako eskubidearen sustapena ezin da mugatu artatze hutsera, hau da, gaixo dauden haur eta nerabeak artatzera soilik. Lehentasuna eman behar zaio prebentzioari, hurbilketa integral batetik abiatuta (zirriborro honen 31.3 artikulutik abiatuta).

Bigarrenik, garrantzitsua da **2. apartatuan** esplizituki aipatzea arreta espezializatua, eremu horretan baliabide urriak baitira, eta, gainera, eremu horrek hobetzeko zenbait alderdi dituelako, hala nola haurren eta gazteen osasun mentalaren arloa.

Era berean, **3. apartatuan** txertatu behar da etxeko tratamendua jasotzeko aukera (bereziki, adibidez, osasun mentaleko nahasmenduetan). Gainera, komeni da ziurtatzea tratamendu ambulatorioak komunitatean behar bezala integratuta daudela, haurren eta nerabeengan estigmatik edo segregaziorik sortu gabe.

Bestalde, 4. apartatuari buruz adierazi nahi dugu neurri egokia dela haurrak eta nerabeak beste haurrekin edo nerabeekin batera ospitaleratzea, baina, edonola ere, lehentasuna eman behar zaio tratamenduaren kalitateari. Horrez gain, egoki iritzi diogu aipatzeari itxaron-zerrendek txikiagoak izan behar dutela.

61. artikulua. Informazio eta dokumentazio klinikoaren arloko jarduketak

Lehenik eta behin, uste dugu komeni dela artikuluko horretako 2. apartatua honela osatzea:

«2.– (Zehazki, honako jarduketara hauek egingo dituzte): ... e) Hurrek, nerabeek, haien familiek eta legezko ordezkariak osasunaren eta osasun-laguntzaren arloan kexak, iradokizunak edo gomendioak helarazi ahal izateko mekanismoak eta komunikazio-bideak jarriko ditu, eta administrazioaren erantzun arrazoitua jasotzeko eskubidea bermatuko du.

Era berean, artikuluko amaieran **bi apartatu gehitzea** proposatzen dugu:

«3.– Edozein indarkeria motaren ondorioz adingabe bati osasun-laguntza eman behar badiote, osasun-zentro eta -zerbitzu guztiek duten osasun-jardunetarako protokoloa aplikatu beharko dute.

4.– Indarkeriaren biktima diren adingabeen arretari buruzko erregistroak sartu behar dira beren historia klinikoan. Intimitaterako eskubidea, datuen babeserako eskubidea eta paziente gisa adingabeek dituzten gainerako eskubideak betez, legezko ordezkariak, gurasoek edo senideek ezin izango dute adingabeen historia klinikoa eskuratu edo irakurri, adingabearen ongizate integrala arriskuan jartzen denean, eta haren interes gorenaren aurkakoa denean».

Horren arrazoa da hurrek eta nerabeek beren intimitatea eta pribatutasuna babesteko eskubidea dutela, eta horrek barne hartzen ditu datu pertsonalak eta klinikoak. Horiek horrela, indarkeriaren egilea gurasoetako bat, familiakoa edo zaintzaileetako izan daitekeelako susmoa dagoenean, arretaz zaindu beharko da adingabearen babesik gabeko egoera are gehiago ez handitzea.

Hortaz, eskubide horiek bermatze aldera, azaroaren 14ko 41/2002 Legean historia klinikoa eskuratzeari buruzko arauak bete beharko dira (lege horrek pazientearen autonomia eta informazio eta dokumentazio klinikoaren arloko eskubideak eta betebeharrak arautzen ditu).

62. artikulua. Sentsibilizazioa eta kontzientziakzioa

Gomendatzen dugu artikuluko horretako **1. eta 2. apartatuen edukia osatzea**:

«1.– Hurrek eta nerabeek ahalik eta osasun fisiko eta mentalik handienaz gozatzeko duten eskubidea bultzatzeko, Eusko Jaurlaritzak, osasunaren arloan dituen eskumenen eremuan, dibulgazio-ekintza orokorrak sustatuko ditu, haurren osasun ona sustatzeak duen garrantziari buruz gizarte osoa informatzeko, sentsibilizatze eta kontzientziatze, bereziki azpimarratuz osasuna ez dela gaixotasunik edo nahasmendurik eza bakarrik, baizik eta ongizate fisiko eta mentala ere bai. Ekintza horiek osatuko dira ohitura horiek sustatzeko funtsezkotzat jotzen diren esparruetan eta taldeetan, hau da, familien, haurren eta nerabeen esparruetan eta hezkuntza-esparruan ardaztutako beste batzuekin.

2.– Bereziki, dibulgazio-kanpaina horien esparruan, elikadura osasungarriaren, nutrizio egokiaren eta elikadura-nahasmenduen prebentzioaren onurak azpimarratuko dira, baita haurren eta nerabeen garapen eta osasun fisiko eta mentalerako jarduerak fisikoaren, jokoaren eta atsedenaldiaren onurak

63. artikulua. Haurren osasun-kartilla eta Osasun Txartel Indibiduala

Lehenik eta behin, **1. apartatua** honela idaztea iradokitzen dugu:

«1.– Jaiotzen den unetik bertatik haurraren osasun-kartilla igorriko da. Txartel horretan bilduko dira kalitatezko arreta goiztiarra bermatzeko beharrezkoak diren osasun-prebentzioko eta osasuna babesteko ekintzak.

Horren harira, gure ustez, ahalik eta zerbitzu eta jarduketan zorro osatuena egin beharko litzateke, arreta goiztiarraren ikuspegitik, eta haurtzaroko osasun-arriskuen prebentzioa ahalik eta gehien garatzeko irtenbide gisa. Gaur egun idatzita dagoen moduan, tarte handia uzten zaio diskrezionalitateari.

Bigarrenik, **2. apartatuan** hauxe ezartzen da: «*Beste autonomia-erkidego batetik edo beste herrialde batetik datozen haur eta nerabeen kasuan, haurraren osasun-kartilla osasun-zentroko pediatriarekin edo familiako medikuarekin, kasuan-kasuan, egindako lehen kontsultan emango da, Euskal Autonomia Erkidegoan duten egoitzaren arabera*».

Gure ustez, lehen kontsultara iristea ez oztopatzea ziurtatu egin behar da. Ildo horretatik, haurra heltzean edo dokumentazio hori eskatu bezain laster automatikoki entregatzeko aukera baloratu beharko litzateke.

64. artikulua. Osasuna sustatzeko hezkuntza-programak

Artikulu horren testua **honela osatzea** gomendatzen dugu:

«1.– Eusko Jaurlaritzak, osasun- eta hezkuntza-sistemen sailen arteko elkarlanaren esparruan, osasun-hezkuntzako programak diseinatu eta emango ditu ikastetxeetan, adingabeen adin desberdinetara egokituak. Programa horietan, lege honen IV. tituluko I. kapituluaren aipaturako gaixotasunen eta nahasmenduen prebentzioari buruzko edukiez gain, osasuna sustatzera bideratutako edukiak ere jasoko dira, eta **arreta berezia jarriko da suizidioaren prebentziora, zehazki, osasun mentalari buruz aurreikusitako prestakuntza-edukien esparruan.**

2.– Lehenengo paragrafoan adierazitako osasun-hezkuntzako programek ardaztat hartu ahal izango dute garrantzitsutzat jotzen den edozein gai, **xede-taldeen ezaugarrietara egokituta eta haur kalteberen profilei arreta berezia emanda.** Nolanahi ere, edukiak egituratu beharko dira informatzeko, sentsibilizatzeko eta kontzientziatzeko zer onura dituzten osasun fisikoan eta mentalean elikadura osasungarriak, jarduera fisikoak eta afektu-harremanen orekak; beti ere, indarrean den osasun-planeari xedatutakoaren arabera, edo kontuan izanik zer premia erabakitzen edo identifikatzen dituen osasun-agintaritzak.

Lehenik eta behin, osasun mentalaren edukiak aipaturako puntuan sartuta badaude ere, proposatzen dugu zentroetan ematen den prestakuntzan eremu horrek duen garrantzi berezia azpimarratzea, suizidioaren prebentziora arreta berezia jarrita, eta, gainera, gaur egun Eusko Jaurlaritza bera arlo horretan egiten ari den lanarekin bat etorrira.

Bigarrenik, beharrezkoa da eduki horiek haurren egoera sozioekonomikoaren arabera egokitzea, kalteberatasun-egoeran dauden haurrek eta nerabeek oztopo espezifikoak edo bestelako oztopoei aurre egin diezaieten (haurrak eta nerabeak har ditzakeen moduen barruan).

VI. kap.: Hezkuntzarako eskubidea sustatzeko jarduketak

65. artikulua. Hezkuntzaren esparruko jarduketa-printzipioak

Gure ustez, funtsezkoa da eskola gune segurua izatea, non bermatuta baitaude ongizatea eta tratua, indarkeriarik gabe. Izan ere, ezinbesteko betebeharra da hezkuntzarako eskubidea sustatzeko eta benetan eskubide hori baliatzeko.

Ildo horretatik, proposatzen dugu **artikulu horretako b) atala** honela osatzea:

«b) Ikastetxeetako hezkuntza- eta curriculum-proiektuetan honako alderdi hauek sartzea, eta eskolak ematean, eskola-bizikidetzan eta hezkuntza-komunitate osoaren pertsonen arteko harremanetan modu aktiboan sustatzea:...

- ***Eskolak, bertan ikasteko baldintza gisa, ingurune segurua, ongi izateko ingurunea eta tratua emateko eta jasotzeko ingurunea izan behar duela hartzea, haurren eta nerabeen aurkako indarkeria mota guztiak prebenitzeko eta goiz detektatzeko beharrezkoak diren ekintzak bultzatuta.***

68. artikulua. Haurren eta nerabeen ongizatea sustatzeko hezkuntza-programak

Heziketa afektibo-sexualari dagokionez, proposatzen dugu xedea handitzea, eta bertan indarkeria-egoeren prebentzioa, detekzioa eta komunikazioa sartzea.

Ildo horretatik, iradokitzen dugu **2.b) apartatua honela** osatzea:

«2.– Aurreko 1. paragrafoan aipatutako programen esparruan landutako gaiak erantzun egingo diete haur eta nerabeengan ikusitako beharren eta jokabideen bilakaerari eta gizartearen eta ingurunearen errealitatearen bilakaerari. Edonola ere, honako gai hauen inguruko programak emango dira: ...

*b) Heziketa afektibo-sexuala, hezkidetzaren esparruko bizikidetzaren positibora bideratua, ahalbidetu egingo duena eremu horretan erabaki informatuak hartzeko behar diren trebetasun eta jarrerak garatzea, eta **haurren eta nerabeen aurkako indarkeria-egoerak prebenitzea, detektatzea eta jakinaraztea**, sexualitateko eskubidea aitortuz eta ikuspegi inklusiboa, berdintasuneko eta generokoa, afektibitate- eta sexu-aniztasuna aintzatetsita, **baita desgaitasuna duten pertsonen eta hezkuntza-jarduera konpentsatzailea behar duten beste kolektibo batzuen ere**».*

Era berean, artikulua honetan komenigarritzat jotzen da mugikortasunari eta bide-segurtasunari, ingurumenaren babesari eta energia- eta ingurumen-iraunkortasunari berariaz heltzea.

VIII. kap.: Jarduera fisikorako eta kirolerako eskubidea sustatzeko jarduketak

72. artikulua. Jarduteko printzipioak

Hauxe ezartzen da **b) apartatuan**: «*Haur eta nerabeen garapen integrala sustatzeko asmoz, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoak, jarduera fisikoa eta kirola sustatzeko dituzten eskumenen eremuan, (...) arduratuko dira bermatzeaz haur eta nerabe guztiak aukera berdinekin dituztela kirol-jarduera fisikoa egiteko eta kirol-gaitasunak eta -ohiturak garatzeko; horretarako, ekintzak antolatuko dituzte kirolarekin lotutako genero-desberdintasunak eta -estereotipoak desegiteko*»

Zalantzak ditugu kontziliazio hori egiteko moduari buruz, edo eskolaz kanpoko kirol-jardueren finantziazioa aintzat hartuko den.

73. artikulua. Sentsibilizazioa eta kontzientziazioa

Hauxe ezartzen da **2. apartatuan**: «[EAEko administrazio publikoek] haur eta nerabeen jarduera fisikoa eta kirola sustatuko dute, bai eskolan, bai komunitatean, kirol-teknikari kualifikatuek zuzenduta eta programatuta».

Ildo horretatik, kirol-azpiegituretara doan sartzeko adina handitzea proposatzen dugu, haur eta nerabe guztiek aukera berdinak izan ditzaten.

74. artikulua. Jarduera fisikorako eta kirolerako irispidea

Hauxe ezartzen da **a) apartatuan**: «[EAEko administrazio publikoek] sustatuko dute jarduera fisikoko denbora eskola-ordutegian luzatzea, sedentarismorik egon ez dadin; bereziki, honako hauetara bideratutako neurrien bidez:

- *Eskola-bideak sortzea bultzatzea, bai eta joan-etorriak modu aktiboan egitea sustatzeko ekimenak ere, ikasleak kalean segurtasunez eta autonomiaz ibil daitezten eta espazio publikoaren erabilera eta gozamina berreskuratzeko, haien osasuna eta autonomia hobetzeko, eta jarduera fisikoak osasunean duen garrantziari eta onurei buruzko kontzientziazio-maila txiki-txikitatik handitzeko.*
- *Ikastetxeetan kirol-instalazio egoki eta irisgarriak daudela bermatzea, eta jarduera fisikoak eta kirolekoak egitea eskola-jardunaldian zehar, eskola-ordutegitik kanpoko kirol-jarduerak egiteko eskola-instalazio publikoen erabilera soziala erraztuz, betiere egoki erabiltzeko bermea badago, eta irakaskuntzako ekipamendu gisa duten eginkizun nagusia oztopatzen ez badute».*

Ildo horretatik, uste dugu gutxieneko adierazle bat jarri beharko litzatekeela ordu horien benetako igoera neurtzeko, ikastetxe bakoitzak jarduera fisikoko ordu kopuru desberdina ezartzen baitu, curriculumean ezarritako gutxieneko ordu kopurutik abiatuta.

IX. kap.: Aisialdi hezigarriko jarduerak sustatzeko jarduketak

77. artikulua. Jarduteko printzipioak

Beste puntu bat, hots, **e) puntua gehitzea** proposatzen dugu. Honela idatzita:

«Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoek, aisialdi hezigarriko jarduerak sustatzeko dituzten eskumenak egikarituta, honako printzipio hauen arabera jardungo dute: ...

e) Lege honen 34. artikuluan (jolasteko eta aisiarako eskubidea) adierazitakoa garatzen duten hezkuntza-aisialdiko planak, estrategiak, programak, zerbitzuak, espazioak eta jarduerak bultzatuko dituzte, EAEko, foru-aldundietako eta udaletako aisialdiko politikak artikulatuta».

78. artikulua. Sentsibilizazioa eta kontzientziazioa

Artikulu honetan letra lodiz adierazitako **aldaketa** egitea gomendatzen dugu:

«Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoek, kultura-, hezkuntza- eta aisialdi-arloan eta **haurren eta nerabeen arloan** dituzten eskumenak egikarituta, dibulgazio-jarduerak egingo dituzte, herritarrak informatzeko, sentsibilizatze eta kontzientziazio haurrek eta nerabeek aisialdirako eta, bereziki aisialdi hezigarriko duten eskubideari buruz, baita era horretako jarduerak egin ahal izateko

denborak eta espazioak bermatzeko beharrari buruz ere».

79. artikulua. Aisialdi hezigarriko jardueretarako irispidea

Lehenik eta behin, hauxe ezartzen da **1.h) apartatuan**: «*[administrazio publikoek...] eskola-instalazio publikoen erabilera soziala erraztea, eskola-ordutegitik kanpo haur eta nerabeentzako aisialdi hezigarriko jarduerak egiteko, betiere erabilera egokia izango dela bermatzen bada, eta irakaskuntzako ekipamendu gisa duten eginkizun nagusia oztopatzen ez badute*».

Gure ustez, eskola-instalazio publikoen erabilerarekin batera, herritar guztiei, orokorrean, erabiltzeko aukera eman beharko litzaieke.

Bigarrenik, hauxe ezartzen da **1.j apartatuan**: «*haurrak eta nerabeak sar daitezkeen jolasgune publikoetan egiten diren jardueren ezaugarriak arautzea, bai eta jolasgune horiek zaintzeko neurriak ere*».

Gure ustez, komeniko litzateke adieraztea nork egingo duen kontrol hori (gizarte-hezitzaileek, poliziak...).

XII. kap.: Ingurunerako eta mugikortasunerako eskubidea sustatzeko jarduketak

85. artikulua. Jarduteko printzipioak

Zehazki, **g) apartatuan** ezartzen da udalek hauxe bermatu beharko luketela: «*haurrei eta nerabeei bide-segurtasunaren eta hiriko mugikortasun jasangarriaren arloko heziketa emango zaiela*».

Gure ustez, berme horrek heziketa mota hori egungo eskola-curriculumera iritsi beharko luke.

86. artikulua. Hiri-mugikortasunari buruzko jarduketak

Gomendatu egiten dugu **1. apartatua** osatzea letra lodiz nabarmendutako testuaren bidez:

«1.– Hiri barruko eta hiriarteko mugikortasun-politikek haurren eta nerabeen ikuspuntua, berariazko premiak eta interes gorena hartuko dituzte kontuan, eta garraio publikoak erabiltzea erraztuko diete, arrazoizko baldintzetan edo doan, bereziki egoera ekonomiko ahulean dauden haur eta nerabeen kasuan».

Gure ustez, egoera ekonomiko ahulean dauden haur eta nerabeei arreta berezia eman behar zaie, mugikortasun horretarako sarbidea bermatzeko, eta mugikortasun hori gainerako baldintza berdinetan garatzera mugatu ez dadin.

Era berean, garraioa 12 urte arteko nerabeentzat doakoa izateko aukera aztertu beharko litzateke, eta irizpide zehatzak ezarri ahalko lirateke horretarako.

XIII. kap.: Informaziorako eskubidea sustatzeko jarduketak

88. artikulua. Informaziorako eskubidea sustatzeko jarduketak

Lehenik eta behin, artikuluko honetako **titulua** letra lodiz azpimarratutakoa **gehituz** aldatzea gomendatzen dugu:

*«Informaziorako eskubidea **gizarte-komunikabideen bitartez** sustatzeko jarduketak».*

Horrenbestez, xedapenaren izenburua birformulatzea proposatzen dugu, informaziorako eskubidea komunikabideen arlokoa den argitzeko edo zehazteko, eta ez komunikaziorako eskubidea, modu orokorrean ulertua. Komeniko litzateke gizarte-komunikabidetzat zer hartzen den definitzea, legearen ondoretarako: sare sozialak barne dauden ala ez eta abar.

Lehenik eta behin, **e) apartatua** honela osatzea iradokitzen dugu:

*«e) Sustatzea, **arrazoizko baldintzetan**, desgaitasunen bat duten haur eta nerabeek erabat gozatzea ikus-entzunezko komunikazioaz, eta jardunbide egokiak erabiltzea, haur eta nerabeak ez diskriminatzeke eta ondorio negatiborik ez izateko. Horretarako, irisgarritasuna bermatu beharko zaie desgaitasunen bat duten haur eta nerabeei, material eta zerbitzu horien arrazoizko egokitzapenak eginez, teknologikoak barne».*

Helburua da aipatutako gozamen-baldintzak arrazoizkoak izatea, nahiz eta desgaitasuna duten haurrek eta nerabeek gozamen hori izango dutela bermatzeko behar diren egokitzapenak eta teknologiak kostu handikoak izan; bestela, oztopo handiak izan daitezke, batez ere, pobrezian edo gizarte-bazterketan daudenentzat.

Hirugarrenik, honako **bi apartatu hauek gehitzea** proposatzen dugu:

*«h) **Administraziotik datozen dokumentuak, komunikazioak edo ekimenak hartzailleen eskura dauden formatuetara egokitzea; besteak beste, irakurketa errazeko metodoak, zeinu-hizkuntza, braillea edo atzerriko hizkuntzak erabilia. Era berean, haurren eta nerabeen eremuarekin zerikusia duten beste erakunde batzuen dokumentuak, komunikazioak edo ekimenak formatu horietara egokitzen lagunduko du.***

*i) **Alfabetatze digitala eta mediatikoa sustatzea, eboluzio-etapa bakoitzera eta familien egoera sozioekonomikora egokituta, gabezia materialek eta ekipo elektroniko eta informatikorik edo konektibitatez ezak eskubide hori gauzatzea oztopatu ez dezaten, legearen aurreproiektuko 40. artikuluan ezarritakoarekin bat».***

89. artikulua. Hedabideei ezarritako betebeharrak

Artikuluan letra lodiz nabarmendutako testua **gehitzea** iradokitzen dugu:

«Gizarte-hedabide guztiek, hala prentsa idatzian, telebista-bitartekoetan, irratan nola bitarteko telematikoetan, erantzunkidetasun-printzipioan oinarrituta, honako hauek egin beharko dituzte: ...

*b) Haurrei eta nerabeei zuzentzen dizkieten mezuek haurren eta nerabeen eskubideak susta ditzaten zaintzea, inola ere haien aurkakoak izan gabe eta, zehazki, elementu diskriminatzaileak, estereotipatuak, sexistak, arrazistak, xenofoboak, pornografikoak edo **aporofobikoak** izan gabe.*

*c) Haurrei eta nerabeei zuzentzen dizkieten mezuek berdintasunaren, elkartasunaren, **gizarteratzearen, kohesioaren, aniztasunaren eta pertsonetikiko errespetuaren balioak susta ditzaten zaintzea.***

Bestalde, zalantzak ditugu betebeharrak horiek arautzeko moduari buruz, edo zer egin, betetzen ez badira.

90. artikulua. Telebista- eta irrati-hedabideei ezarritako betebeharrak

Artikulu horretako **1. apartatuan** hauxe ezartzen da: «*Euskal Autonomia Erkidegoarenak diren telebista-kanalen emanaldiek, bai eta beste telebista-zerbitzu batzuen emanaldiek ere (zerbitzu horiei baimena ematea Autonomia Erkidegoko Administrazioari dagokionean), honako betekizun hauek bete behar dituzte: ...*

b) Haurrentzako eta nerabeentzako programak ematean, haurren eta nerabeen ohituretara egokitutako ordutegia errespetatzea.

Ondore horietarako, haurren audientziako edo babes indartuko ordu-tartetzat hartuko dira, 13 urtetik beherakoentzat gomendatutako edukiak jarri beharrekoak, 07:00etatik 09:00etarako eta 17:00etatik 20:00etara bitartekoa, lanegunetan, eta 09:00etatik 12:00etara, larunbat, igande eta estatu-mailako eta autonomia-erkidegoko jaiegunetan.

Era berean, programak soilik emango dira 22:00etatik 06:00etara, baldin eta adinaren arabera sailkapenak adierazten badu ez dela gomendagarria hamazortzi urtetik beherakoentzat.

c) Ezingo da eman programarik edo ikus-entzunezko edukirik doako indarkeriako edo pornografiako eszenarik edo mezurik duenik».

Lehenik eta behin, **b) apartatuari** buruzko galdera bat sortu zaigu: zer gertatuko den haurrentzako programazioa baino ez duten kanalekin.

Bigarrenik, **c) apartatuari** dagokionez, gure ustez, aipatzen diren ordu-tarteak aurreko apartatuan ezarritakoak baldin badira, informazio hori jaso beharko litzateke.

92. artikulua. Haur eta nerabeentzako publizitatea egiteko debekuak

Artikulu horretan, lehen ere aipatu ditugun beste batzuetan bezala, gure ustez falta dira debeku horiek betearazteko kontrol-neurriak.

93. artikulua. Haurrak eta nerabeak protagonista dituen publizitatea

Lehenik, artikulu horretako **1.a) apartatuan** hauxe ezartzen da: «*Haurrak eta nerabeak protagonista dituen eta Euskal Autonomia Erkidegoan hedatutako publizitateari dagokionez, honako hau ezartzen da: a) Haurren eta nerabeen eskubideei egokitutako irudia aurkeztu beharko du».*

Gure ustez, zer hartuko den kontuan (araudia, legeria) zehaztu beharko litzateke; bestela, idatzita dagoen moduan, testua anbigua da, eta hainbat modutan interpretatu daiteke.

Bigarrenik, **1.c) apartatuan** hauxe ezartzen da: [Haurrak eta nerabeak protagonista dituen publizitateak] «*ezin izango ditu haurrak eta nerabeak egoera arriskutsuetan edo haien osotasunaren aurka egiten duten egoeretan erakutsi, ezta sexu- edo indarkeriazko jardueran edo jarreretan ere».*

Geure buruari galdetzen diogu xedapen hori gerrako jostailuen iragarkiei aplikatuko zaien (pistolei eta bestelako armei, adibidez).

XIV. kap.: Informazioaren eta komunikazioaren teknologietarako eskubidea sustatzeko jarduketak

94. artikulua. Sentsibilizazioa eta kontzientziakzioa

2.a) **apartatuaren** idazkera honela osatzea gomendatzen dugu:

«2.– Bereziki, kontzientziakzio- eta hezkuntza-kanpaina espezifikokoak egin beharko dituzte, honako helburu hauek lortzeko:

a) Internet, sare sozialak eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiak modu seguruan eta arduratsuan erabiltzea sustatzea, oro har, eskaintzen dituzten aukerak aprobetxatzearen eta erabilera positiboaren ikuspegitik, **bai eta edozein indarkeria motari aurrea hartzeko ikuspegitik ere...**».

Gure ustez, kontzientziakzioa eta sentsibilizazioa indarkeria mota oro prebenitzeko ikuspegitik ere egin behar dira, eta ez soilik sexu-indarkeriari aurre egiteko.

XV. kap.: Kontsumoaren arloko eskubideak sustatzeko jarduketak

97. artikulua. Kontsumitzaile-eskubidea sustatzeko jarduketak

Guk proposatzen dugu b) **apartatuaren** idazkera honela osatzea:

«Eusko Jaurlaritzak, kontsumoaren arloan eskumena duen sailaren bidez, zaindu egingo du haurrek eta nerabeeek, berariazko beharrianak eta ezaugarriak dituzten kontsumitzaile gisa, dituzten eskubide eta interesak errespetatu eta sustatu egiten direla, eta bereziki defendatzen eta zaintzen direla. Horretarako, honako neurri hauek hartuko ditu: ...

b) Kontsumoaren arloan, **harreman**etarako, informaziorako eta komunikazioetarako teknologiak behar bezala erabiltzen lagunduko du.

Gaur egun bolo-bolo dabilta **harreman**etarako, informaziorako eta komunikazioetarako teknologiak. Horretan, sare sozialak ere barne hartzen dira; izan ere, sare sozialek garrantzi handia dute publizitate- eta kontsumo-plataforma gisa, bereziki gazteenen kasuan.

99. artikulua. Ikus-entzunezko materialari lotutako mugak

Artikulu horretako 1. **apartatua** osatzea proposatzen dugu, letra lodiz nabarmendutako testua **gehituta**:

«1.– Debehatuta dago haur eta nerabeei haien garapenari kalte egin diezaieketen bideoak, bideo-jokoak edo ikus-entzunezko edozein material saltzea, alokatzea edo **mailegatzea**, nolana ere, indarkeria, pornografia edo harreman pertsonaletan esplotazioa erakusten duten edukia daukatena, balio sexistak edo estereotipatuak sustatzen dituztenak edo emakumeen kontrako indarkeria-adierazpenak banalizatzen dituztenak, tratu apalessgarria islatzen dutenak, delitu-jarduerak egitera zirikitzen dutenak, edo edozein arrazoiengatik elkartasunik eza edo bereizkeria sustatzen dutenak lege honen 13. b) artikuluan zehaztutako moduan, edo haien garapenerako kaltegarria izan daitekeen beste edozein eduki dutenak».

Baliteke kontzeptu hori «alokatzeko» kontzeptuan ere sartuta egotea, baina guk proposatzen dugu kontzeptu hori gehitzea, argiagoa izan dadin, adibidez, liburutegien edo material horiek hartu eta banatzen dituzten beste gune batzuen jardunari dagokionez.

101. artikulua. Zerbitzuetarako irispiderako mugak

Artikulu horretako **2. apartatuan** espezifikoki arautzen dira haurrak eta nerabeak joko-establezimendu eta -lokaletara sartzeko mugak:

«2.– Haurrak eta nerabeak joko-establezimendu eta -lokaletara sartzeko, Jokoa arautzeko azaroaren 8ko 4/1991 Legean eta hura garatzeko araudian xedatutakoa bete beharko da. Bereziki, haur eta nerabeentzat debekatuta dago:

a) Dirua edo balio ekonomikoa duten gauzak jokatzen diren zori, dema eta ausazko jokoetan parte hartzea, orobat diru-saria ematen duten jolas-makinak erabiltzea eta apustueta parte hartzea, Euskal Autonomia Erkidegoan Jokoa arautzen duen azaroaren 8ko 4/1991 Legeak ezarritako moduan.

b) Beren nortasunaren garapenerako kaltegarria izan daitekeen edukia duten jolas-makinak erabiltzea, eta, nolahi ere, indarkeria, pornografia edo harreman pertsonaletan esplotazioa erakusten duen edukia daukatenak, tratu apalesgarria islatzen dutenak, delitu-jarduerak egitera zirikatzeko dutenak, edo edozein arrazoiengatik elkartzunik eza edo bereizkeria sustatzen dutenak lege honen 13. artikuluan zehaztutako moduan, edo haien garapenerako kaltegarria izan daitekeen beste edozein eduki dutenak».

Gai horren garrantzia dela eta, hainbat gai aipatu nahi ditugu, gure ustez, xedapen horretan bildu beharko liratekeelako:

- Lehenik eta behin, bermatu egin behar da adingabeek ezin dutela halakorik erabili, ez modu fisikoan, ezta modu digitalean ere. Web-bitartezko joko-sistemetan sartzeari dagokionez, kontrol-mekanismoak jarri beharko lirateke, haietan ez sartzeko modu efektiboan debekatzeko. Kanal elektronikoen, informatikoen, telematikoen edo interaktiboan bidez jokatzen denean, egiaztapena jokalaria joko-sisteman identifikatzen den bakoitzean egin beharko da.

- Enpresak izan beharko ditu adingabea modu eraginkorrean sartzeko eragozteko behar diren mekanismoak, bai fisikoki, bai digitalki. Debekuari buruzko informazio-etiketaz gain, kontrol-mekanismo egokiak ezarri beharko dira adingabeak webgune horietara sar ez daitezela.

- Debekatu egin beharko litzateke horrelako lokalak leku jakin batzuetatik hurbil jartzea, hala nola administrazio publikoen eta zuzenbide publikoko erakundeentzako zentroetatik eta bulegoetatik, osasun-zentroetatik edo gizarte-zerbitzuen zentroetatik eta haien bulegoetatik, ikastetxeetatik eta hezkuntza-zentroetatik, kultura-zentroetatik, kirol-zentro eta -instalazioetatik, haur eta nerabeentzako arreta- eta aisialdi-zentroetatik eta adingabeak egoten diren beste edozein lekutatik. Distantzia horrek gutxienez 1000 metrokoa izan beharko du, aipatu berri ditugun zentro horien sarreratik edo irteeratik.

- Joko arduratsuko politikek adingabeentzako prebentzio-, sentsibilizazio-, esku-hartze- eta kontrol-ekintzak barne hartu behar dituzte, kolektibo horri babes berezia eman beharri erantzuteko, jokoak adingabearen garapenean izan dezakeen eragin negatiboagatik, helduaroan betikotu baitaiteke. Era berean, jokoak haurrengan eta nerabeengan dituen ondorio negatiboak konpontzeko ekintzak garatu beharko dira, eta adingabeen aisialdi osasungarriko alternatibak eskaini beharko zaizkie, jolasak haurrengan eta nerabeengan dituen ondorio negatiboak prebenitzeko edota konpontzeko elementu gisa.

Prebentzio-ekintzak jokoaren jardunbide egokien sentsibilizaziora, heziketara, informaziora eta hedapenera zuzenduko dira, baita jokoaren praktika desegoki batek izan ditzakeen ondorioetara ere. Ekintza horiek sentsibilizazio-jarduerak eta eskoletako prebentzio-kanpainak barne hartu behar

dituzte, Administrazioak ezarrita.

IV. TITULUA: PREBENITZEA ETA DETEKTATZEA ZER EGOERA DIREN KALTEGARRI HAUR ETA NERABEEN OSASUNERAKO, HEZKUNTZARAKO, ONGIZATE MATERIALERAKO ETA GIZARTERATZEKO, ETA EGOERA HORIEK ARTATZEA

102. artikulua. Prebenitzeko, detektatzeko eta arreta emateko eginbeharra

Hauxe ezartzen da **4. apartatuan**: «*Prebentzio-ekintzaren eraginkortasuna bermatzeko, lege honen 9. artikuluan ezartzen den moduan, tresna tekniko baliozkotuak ezarri beharko dira titulu honetan araututako jarduketa-eremu guztietan, agertzea edo garatzea prebenitu nahi diren egoerei dagokienez, premia handienak dituzten edo egoera zaurgarrienean dauden familiak eta haurrak eta nerabeak identifikatu ahal izateko.*

Horretarako, faktore horiek dituzten herritarren azpitaldeentzat berariaz diseinatutako prebentzio-neurriak aplikatzea gomendatzen duten arrisku-adierazleak ezarri eta definitu beharko dira, eta baita, beren egoera indibiduala dela-eta, identifikatutako faktoreekiko zaurgarritasun handiagoa duten haurtzat eta nerabetzat hartutakoei dagokienez ere».

Horrenbestez, tresna teknikoak eta arrisku-adierazleak garatzeko gaia jorratzen da, baina ez da zehaztu zeintzuk diren edo nork definituko dituen.

I. kap.: Osasun fisiko eta mentalerako kaltegarriak diren egoeren prebentzioa, detekzioa eta arreta

103. artikulua. Gaixotasunen eta nahasmenduen prebentzioa eta detekzioa

Guk proposatzen dugu **1. apartatuaren** idazkera honela osatzea:

*«1.– Eusko Jaurlaritzak, osasunaren arloan dituen eskumenak egikaritzuz, eta Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuak, III. tituluan jasotako osasunaren sustapenerako jarduketekin batera, haur eta nerabeen gaixotasunak –gaixotasun arraroak barne– prebenitzera eta, hala badagokio, garaiz, **batzuetan jaio aurretik edo haurdunaldian bitartean ere bai**, detektatzera bideratutako jarduketak antolatuko dituzte, osasunerako arrisku-faktoreekiko esposizioa murriztuz eta babes-faktoreak indartuz».*

Proposamen hori egiten dugu haurdun dagoen amaren jaio aurreko baheketari heltzeko. Gai hori berriro jorratuko dugu 104. artikuluan.

104. artikulua. Garapen-nahasmenduen prebentzioa eta detekzioa

Lehenik eta behin, **1. apartatua** honela osatzea iradokitzen dugu:

*«1.– Eusko Jaurlaritzak, gizarte-, osasun- eta hezkuntza-zerbitzuen arloan dituen eskumenak egikaritututa, eta foru-aldundiek, gizarte-zerbitzuen arloan eskumena duten sailen bitartez, behar diren jarduketak egingo dituzte garapen-nahasmenduak edo kalte horiek jasateko arriskua prebenitzeko edo, hala badagokio, garaiz detektatzeko, arreta goiztiarreko esku-hartze integralaren esparruan, hau da, 0 urtetik 6 urtera bitarteko haurrei, haien familiei eta inguruneari zuzendutako jarduketa guztiak biltzen dituen esparruan, diziplinarteko osasun-, hezkuntza- eta gizarte-ikuspuntutik. **Jarduketa horiek haurdunaldian ere egingo dira**».*

Gure ustez, jaio aurretiko etapa gako da proposatu diren prebentzio-jarduketaren inguruan.

Bigarrenik, **2.c) apartatuan** hauxe ezarri da: «Zehazki, honako jarduketa hauek egingo dituzte: ...

c) Sortzetiko gaixotasunen prebentzioa eta detekzio goiztiarra, baita urritasun psikiko eta fisikoena ere, indarrean dagoen lege-esparruak, etikak, teknologiak eta lehendik dauden baliabideek osasun-sistemari ezartzen dizkioten mugekin soilik, eta, bereziki, jaio aurretik eta jaio berritan sortzetiko gaixotasunak bahetzearen bidez, haurren gorreria garaiz detektatzea barne».

Gure ustez, «lehendik dauden baliabideak» aipatzea arraroa da eskubide gisa egituratzen baldin bada, baliabideen urritasunak ezin baitio eragin eskubidearen eraginkortasunari. Hori dela eta, azpimarratutako testua **kentzea** proposatzen dugu.

Gainera, 2. artikuluko horretan **f) epigrafea gehitzea** proposatzen dugu, zehazki, honako testu hau ezarrita:

«f) Zehazki, obesitatea eta gehiegizko pisua kontrolatu behar direnean, haurdun dauden emakumeek gehiegizko pisua bahetzeko eta haurdunaldiko diabetesa izateko programetan parte hartzea bermatuko da, bai eta nutrizio-prestakuntzako programetan parte hartzea ere, bai haurdunaldian, bai ondorengo etapetan. Haurdunaldian, edoskitzaroan eta lehen haurtzaroan amak osasuntsu elikatzeko neurriak bultzatuko dira (0 urtetik 3 urtera).

Hirugarrenik, artikuluko horretako **3. apartatuan** hauxe ezartzen da: «Aurreko paragrafoan xedatutakoa gorabehera, haurduna 25 urtetik beherakoa denean, eta ama izango denaren jokabidea edo haren inguruabar berezi eta zaurgarriak direla-eta kontzebituaren ohiko garapenean edo osasunean eragina izan dezakeen jaio aurreko arriskuko egoera posiblea denean, gero kontzebituaren arrisku- edo desanparo-egoeraren deklaraziorik ez egoteko edo, azken batean, hori gertatzea saihesteko, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuak, haurdunaldian zein jaiotzaren ondoren, arreta berezia eskainiko die amari eta haurtxoari, eta, hala badagokio, haien familiari». Arreta espezializatua etxez etxekoa izan daiteke, beharrezkoa dela baloratuz gero».

Gure ustez, jaio aurreko arrisku-egoerak nahikoa izan behar du, amari eta haurrari arreta berezia emateko. Ez da ulertzen artikuluko horren idazkeran arreta hori lotzea 25. urtetik beherako emakumeei baino ez. Hori dela eta, azpimarratutako testua **kentzea** proposatzen dugu.

Azkenik, letra lodiz adierazitako **aldaketak 4. apartatuan gehitzea** proposatzen dugu:

«4.– Nolanahi ere, osasun-langileek eta gizarte-arloko langileek emango dute arreta, eta honako alderdi hauetan jardunbide egokiak edo hobekuntzak bermatzeko edo gehitzeko esku-hartzeak sartuko dira:

*a) Osasuna eta arriskuen prebentzioa sustatzea; bertan sartzen dira haurra jaio aurretik amaren osasuna hobeto zaintzeko jokabideak, ohitura osasungarriak (elikaduran, jarduera fisikoan, atsedendian, osasun **mentalean** eta **ongizate** emozionalean), eta tabakoaren, alkoholaren eta bestelako substantzien kontsumoa saihestea edo, hala badagokio, murriztea...».*

106. artikulua. Sexu- eta ugalketa-osasunaren alorreko prebentzioa eta detekzioa

Artikulu horretan ez dira aipatzen esku hartzen duten eragileak, eta, gure ustez, eragile horiek gizartearen zein osasunaren arlokoak izan behar dute. Era berean, gurasotasun onari buruzko alderdiak sartu beharko liriateke.

108. artikulua. Obesitatearen prebentzioa eta detekzioa

Lehenik eta behin, **2.b) apartatua** honela osatzea gomendatzen dugu:

«2.– Zehazki, neurri hauek hartuko dituzte: ...

*b) Dibulgazio-kanpainak, gizartea informatzeko, sentsibilizatzeko eta kontzientziatzeko haur edo nerabearen garapenean obesitateak dituen ondorio negatiboen inguruan, baita **obesitateak geroago, helduaroan, izango dituen ondorioen inguruan** ere, haur eta nerabeei, familiei, eskolei eta komunitateko eragileei zuzendutako dibulgazio-kanpainen eta jarduketa-giden bidez.*

Proposamen horri dagokionez, eta aurretik azaldutakoa berretsita, adierazi nahi dugu gehiegizko pisuaren ondorio negatibo nagusietako bat helduaroan sortzen dituen osasun-arriskuak direla.

Bigarrenik, **2. apartatuko d) puntuan** hauxe aipatzen da: «*behar bereziak edo zaurgarritasun handiagoa duten taldeak identifikatzea, eta berariazko jarduketak diseinatu eta aplikatzea*».

Arreta bereziko taldeetan lehentasunezko arreta eskaini behar zaie haurrei eta nerabeei, ospitaleratze-maila txikiagoak izaten dituzten familietan. Nazioarteko ikerketen arabera, adinaren eta sexuaren araberrako aldeak alde batera utzita, haurren obesitateak eta gehiegizko pisuak gradiente sozial argia dute, eta diru-sarrera txikiak dituzten etxeen unitateei eragiten diete gehien. Janari osasungarria eskuratzeko arazoek edo eskolaz kanpoko kirol-jarduerak ordaintzeko zailtasunek, besteak beste, gehiegizko pisuaren prebalentzia handiagoa eragiten dute.

Hirugarrenik, artikuluko horretako **2.f) apartatuko** testua osatzea proposatzen dugu, zehazki, lodiz nabarmendu dugun testua gehituz:

*«f) Eskola-ingurunean jarduera fisikoa areagotzeko neurriak: eskolako patioak jolaserako eta jarduera fisikorako gune bihurtzea, oinarri fisikoko jokoak sustatzea jolas-orduetan, lehiarik gabeko jardueren eskaintza, **arrazoizko baldintzetan**, handitzea».*

Bestalde, 2.d) idatz-zatiari buruz esandakoaren ildotik, bermatu egin beharko litzateke, behintzat, «f)» puntuko eskaintzaren igoera haur eta nerabe guztientzat eta, bereziki, diru-sarrera txikiak dituztenentzat eskuragarria edo arrazoizkoa izango dela.

Gero, 2.g) puntuan hauxe ezartzen da: «*Osasun-arloko profesionalak sentsibilizatzea, prestatzea eta ahaldundzea, obesitateari eta gehiegizko pisua prebenitzeko, detektatzeko eta tratatzeko duten zeregina indartzeko*».

Horren harira, azpimarratu beharko litzateke dietista-nutrizionistaren figura erregulatzeko eta asistentzia ambulatorioan dietetikako goi-mailako teknikari gehiago sustatu beharra. Gainera, haurren obesitatea (eta gehiegizko pisua) tratatzen duten profesionalen diziplina anitzeko taldeak sortu behar dira. Talde horietako kideak pediatriak, pediatriako erizainak, psikologoak, dietistak eta dietista-nutrizionistak izango dira, eta osasun-zentroetan informazio berezia, nutrizioaren arloko esku-hartzeak eta laguntza psikologikoa emango dizkiete obesitate-arrisku handia duten familiei.

Azkenik, letra lodiz adierazitako **aldaketak 2.l) apartatuan** gehitzea proposatzen dugu:

*«l) Xedapenak ematea, haur eta nerabeei zuzendutako menuetatik, ekitaldietatik eta **makina saltzaileetatik** elikagai eta edari ez-osasungarriak eta prozesatuak kentzeko. **Ildo horretatik, zaindu***

egin beharko da eskolako janarien kontratazio publikorako prozedurek elikagaien kalitatea behar bezala baloratzea eta kalitate baxuenerako eskaintzak zigortzea».

Gai horiei dagokienez, proposatzen dugu ikastetxeetan edo haurrentzako beste instalazio batzuetan makina saltzaileetan zabor-janaria, hau da, elikagai kaltegarriak debekatzeko agindua zabaltzea. Hartu behar diren xedapenen artean, azpimarratu beharko litzateke administrazio publikoek gaitasuna dutela kontratu publikoetan sartzeko elikadura-zerbitzuen edo *catering*-zerbitzuen kalitate handia saritzeko klausulak, baita prezioa irizpide bakartzat hartzen dituztenak zigortzekoak ere.

Osasun mentaleko nahasmenduen, jokabide arazotsuen eta mendekotasunen prebentzioa, detekzioa eta arreta.

Atal horren izena aldatzea eta haxe erabiltzea gomendatzen dugu:

«Nahasmendu mentalen, jokabide-nahasmenduen eta adikzio-nahasmenduen prebentzioa, detekzioa eta arreta».

Hori proposatu dugu, gure ustez, izenburu horrek hobeto laburbiltzen baitu artikuluko edukia. Horrez gain, errespetu handiagoa erakusten dio kolektiboari, eta egokiagoa da terminologia juridikoaren ikuspegitik.

110. artikulua. Prebentzioa eta detekzioa

Lehenik eta behin, **1. eta 2. apartatu**etan lodiz nabarmendutako testua gehitzea proposatzen dugu:

«1.– Eusko Jaurlaritzak, osasunaren eta hezkuntzaren arloan dituen eskumenak egikaritzuz, behar diren neurriak hartuko ditu, haur eta nerabeengan nahasmendu mentalak, jokabide-nahasmenduak eta adikzio-nahasmenduak prebenitzeko eta detektatzeko, haien eragina eta prebalentzia murriztera bideratuta. Era berean, neurri egokiak hartuko ditu nahasmendu mentalak dituzten haur eta nerabeen estigmatizazioa prebenitzeko.

2.– Foru-aldundiek eta udalek, gizarte-zerbitzuen arloan dituzten eskumenak egikaritzuz, jokabide arazotsuak izateko arriskua duten edo dakarten jokabide-nahasmenduak prebenitzen eta detektatzen parte hartuko dute, hezkuntza- edo prestakuntza-zentroarekin eta dagokion osasun mentaleko zentroarekin koordinatuta. Era berean, neurri egokiak hartuko ditu jokabide-nahasmenduak dituzten haurren eta nerabeen estigmatizazioa prebenitzeko.

Terminologia-aldaketaren justifikazioa aurreko argudioan oinarritzen da, eta gehitutako azken esaldia lotuta dago Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioak estatu eta administrazio publikoei ezartzen dien betebeharrari, hau da, desgaitasuna duten pertsonak dituzten oztopoak ezabatzeko eta gaixotasun mentalei lotutako estigmatizazioa saihesteko betebeharra. Bestalde, duela gutxi osasun-sistema nazionalako osasun mentalaren 2022-2026 aldiko estrategia onartu da: «*Estrategia de Salud Mental del Sistema Nacional de Salud 2022-2026*», eta haxe ezartzen du 5.3 artikuluan: «gaixotasun mentalak dituzten haurren eta nerabeen diskriminazioaren eta estigmatizazioaren aurka borrokatzea».

Bigarrenik, **bi apartatu** gehitzea proposatzen dugu:

«4.– EAEko administrazio publikoek dibulgazio-kanpainak egingo dituzte, gizartea haurren eta nerabeen osasun mentala zaintzearen garrantziaz informatzeko, sentsibilizatzeko eta kontzientziazteko. Horretarako, osasun mentalerako arrisku-faktoreak saihesteko dituzte, dibulgazio-kanpainen bidez eta haur eta nerabeei, familiei, eskolei, komunitate-eragileei eta, oro

har, gizarteari zuzendutako giden bidez.

5.– Eusko Jaurlaritzak nahasmendu mentalekin lotutako gizarte-estigma desagerrarazteko estrategia bat egingo du, gizarte-diskriminazioaren aurka borrokatzeko, eta, bereziki, osasun mentaleko arazoak dituzten haur eta nerabeen diskriminazioaren aurka. Estrategia horrek haurtzaroon eta nerabezaroon nahasmendu mentalekin lotutako estigma desagerraraztea bultzatzeko ekintzak jasoko ditu».

4. apartatua honako gai hauek jorratzen dira: osasun mentala zaindu beharra, gizarteari oro har, familiei eta hezkuntza-komunitateari osasun mentala zaintzearen garrantziaren berri ematea eta arrisku-faktoreak (kontsumoak, indarkeria, jazarpena, etab.) saihestea.

5. apartatuak Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioak ezarritako aginduari jarraitzen dio. Agindu horren arabera, desgaitasunei lotutako oztopoak kentzea agintzen da; izan ere, osasun mentaleko arazoak dituzten haurrek eta nerabeek bizi dituzten oztopoak lotuta daude egungo gizarte-estigmaren ondoriozko diskriminazioari. Era berean, arestian aipatu dugun osasun-sistema nazionaleko osasun mentalaren estrategian ere jaso da.

111. artikulua. Prebentzio- eta detekzio-neurriak

Lehenik eta behin, **1. apartatua** letra lodiz azpimarratutakoa **gehitzea** gomendatzen da:

«1.– Aurreko artikuluan xedatutakoa betez, Eusko Jaurlaritzak, bere eskumenak egikaritzuz, honako helburu hauek lortzera bideratutako neurriak hartuko ditu:

*a) Nahasmendu mentalen, **jokabide-nahasmenduen eta adikzio-nahasmenduen prebentzioa** osasun publikoko lehentasuntzat hartzea.*

...

*e) Eskolako curriculumean garatzea **osasun mentalaren sustapenarekin eta zaintzarekin, suizidioaren prebentzioarekin, adikzioekin eta hezkuntza emozionaleko gaitasunak eskuratzearekin lotutako gaiak.***

...

*g) **Jokabide-nahasmenduak prebenitzea, bereziki, jokabide errepikakorrek edo disozialak, gizarte-arauak eta hirugarrenen eskubideak urratzen dituzten haur eta nerabeei zuzenduta...**».*

1.a) apartatua justifikatzen da arestian aipatu dugun terminologia juridikoari buruzko arrazoi beraren bidez,

1.e) apartatua testua gehitu dugu beharrezkoa baita emandako gaiak eskola-curriculumean sartzeari, osasun mentalaren prebentzioan aurrera egiteko eta adingabeen hezkuntza emozionala hobetzeko modu gisa. Hezkuntza emozionala laguntza psikosozialaren funtsezko osagaia da, eta, gainera, haurren eta nerabeen ongizatea eta osasun mentala hobetzen laguntzen du. Gainera, hezkuntza emozionalak ikasteko gaitasuna eta jardun akademikoa hobetzen ditu.

1.g) apartatuari dagokionez, gure ustez, jokabide-nahasmenduen prebentzioak orokorra izan behar du, eta arreta berezia jarri behar du adierazitako kasuetan.

1. apartatu horretan **honako puntu hauek gehitzea** proposatzen dugu:

- «k) Haurren eta nerabeen osasun mentalean eragina duten eskola-jazarpeneko, bullying-eko edo antzeko jokabideak prebenitzea.*
- l) Ikerketan, azterlanetan eta informazio-sistemetan inbertitzea.*
- m) Ongizate pertsonala, pertsonen artekoa eta gaitasunak eta ezagutzak sustatzea.*
- n) Haurren eta nerabeen eta haien familien osasun mentalean eragin argia duten arrisku-faktore sozialei, hala nola, pobrezari, gizarte-bazterketari, harrera- eta adopzio-prozesuei, gizarte-kalteberatasuneko egoerei, diskriminazioari eta xenofobiari eta abarri arreta emateko politikak bultzatzea».*

Era berean, gure ustez, bermatu egin behar da lehen mailako arretan psikologoak daudela, edota zentroetako arreta psikologikoa indartu behar dela.

Bigarrenik, **4. apartatuan** letra lodiz azpimarratutakoa **gehitzea** gomendatzen dugu:

«4.– Berariaz, Eusko Jaurlaritza, foru-aldundiak eta udalak, bakoitza bere eskumen-eremuan, elkarlanean arituko dira, eta beren jarduketak koordinatuko dituzte, adikzioak prebenitzeko, honako helburu hauek lortzeko ekintzen bidez: ...

*b) Substantzien kontsumoaren, adikzio-portaeren, **pantailei lotutako adikzioaren** eta jokabide-adikzioak sor ditzaketen bestelako jokabide arriskutsu eta gehiegizkoen ordeko aisialdi-ereduak sustatzea, batez ere, gazteen eta nerabeen artean.*

*c) **Harremanetarako, informaziorako eta komunikaziorako teknologia berriak gaizki erabiltzearekin edo gehiegi erabiltzearekin lotutako arriskuei aurrea hartzea».***

Azkenik, artikulu horretako **5. apartatuari** buruz, prebentzio-neurriak zabaltzea proposatzen dugu: haurtzaroko eta nerabezaroko osasun mentaleko arazoei lotutako praktika eta arazo jakin batzuk prebenitzeko eta eteteko, genero-ikuspegia txertatuta. Hona hemen arazo horietako batzuk: tratu txarrak (zabarkeria eta indarkeria), sexu-abusua, bullyinga, ziberjazarpena, sexortsioa, suizidioa, sexu-orientazioagatiko eta genero-identitateagatiko diskriminazioa, xenofobia, alkohol-kontsumoa, substantzia toxikoekiko adikzioak, teknologiak eta apustuak, bai eta beste arrisku-jokabide batzuk ere.

112. artikulua. Osasun mentaleko nahasmenduak dituzten haurren eta nerabeen osasun-arreta

Lehenik eta behin, **1. apartatuan** azpimarratutako testua **gehitzea** gomendatzen dugu:

*«1.– Eusko Jaurlaritzak, osasunaren arloan eskumena duen sailaren bitartez, haurren eta nerabeen osasun mentaleko beharrei tratamendu eta arreta integrala emateko programak garatuko ditu, osasun-sare publikotik. **Horretan, lehen mailako arretaren (familia-medikuak, pediatrik eta psikologo klinikoak edo sanitarioak) eta komunitate-zentroen zeregina indartuko du osasun mentaleko eta ongizate psikologikoko arazoan prebentzian, detekzioan, diagnostikoan eta tratamenduan».***

Bigarrenik, **2. apartatuan** nabarmendutako testua gehitzea proposatzen dugu:

*«2.– Oro har, programa horiek nahasmendu mentalen diagnostikoa egin zaien **edo, diagnostikoa egin ez arren, diagnostikoa osatzeko balorazio bat egin behar zaien** haur eta nerabeei zuzenduko zaizkie, eta, bereziki, honako ezaugarri hauetakoren bat edo batzuk dituzten haur eta nerabeen berariazko arreta-premiak kontuan hartu beharko dituzte:*

*a) **Nahasmendu mentalak edo desgaitasun intelektuala**, baina saihestu egin beharko da desgaitasun horrek sintoma psikiatrikoak ezkutatzea...».*

Gure ustez, idazkera hori berrikusi behar da, argiagoa izan dadin. Horrez gain, uste dugu «nahasmendu mentalak edo desgaitasun intelektuala» erabili behar dela «desgaitasun intelektual baten ondoriozko desgaitasuna»ren orde, eta Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Konbentzioan ezarritako irizpidea bete behar dela.

Horrez gain, **2. apartatu** horretan beste **puntu bat gehitzea** proposatzen dugu:

*«h) **Patologia dualak, hots, nahasmendu mentalak izatea eta aldi berean substantziak kontsumitzea**».*

Garrantzitsua iruditzen zaigu patologia duala nahasmendu gisa agertzea, hau da, nahasmendu mentalak eta adikzio-nahasmenduak aldi berean dituzten adingabeen patologia, kontuan hartuta gero eta nerabe gehiagok jasotzen dutela diagnostiko hori. Horren harira, gure ustez, adikziorik gabeko nahasmendu mental batetik bereizi behar da.

Hirugarrenik, letra lodiz adierazitako testua **3. apartatuan gehitzea** proposatzen dugu:

*«3.– Haurren eta nerabeen osasun mentalerako arreta, haien berariazko premien arabera, ospitaleko unitate espezializatuetan, intentsitate handiko anbulatorioetan (eguneko ospitaleetan), **etxe**ko **arretan** eta osasun mentaleko zentroetan eman beharko da, eta guztiek haur eta nerabeen psikiatrian eta **haur eta nerabeen psikologian** espezializatutako osasun-langileez hornituta egon beharko dute. Osasun mentaleko arazoak dituzten helduen ekipamenduetatik bereizita eta bananduta egongo dira».*

Hori proposatu dugu zenbait kasu larritan etxe arreta behar delako, Osasunaren Lege Orokorren 20. artikuluan ezarritakoarekin bat etorrira (zehazki, apirilaren 25eko 14/1986 Legea da). Era berean, haurren eta nerabeen psikologiaren aldeko apustua egin behar da, ratioa handitu behar da, arreta terapeutikoak gehiegi ez geroratzeko, eraginkorrak izan daitezen. Sistemak arreta psikologikoa txertatzearen aldeko apustua egin behar du lehen mailako arretan eta arreta espezializatuan, zehazki, haur eta nerabeen osasun mentalaren arloan.

Gure ustez, osasun-sistemak prebentzioa eta arreta goiztiarra ere sustatu behar ditu, arriskuak gauzatu aurretik, arazoa diagnostikatu ondoren soilik jardun beharrean.

Azkenik, artikulua horren edukiari dagokionez, adierazi nahi dugu osasun-sare publikoak osasun mentaleko arazoei ematen dien arreta baino ez dela kontuan hartzen, eta hori egokia da, baina ez da kontuan hartzen sare alternatiborik, ezta hirugarren sektorea ere.

Bestalde, nahasmendu mentalaren diagnostikoa dutenei soilik ematen zaie arreta, eta kasu larrietan baino ez da ematen diagnostiko hori. Hortaz, ez dira nahasmendutzat hartu zailtasun emozionalak, antsietatea edo estresa, eta nahasmendu arinak edo prebentzioa ez dira aipatzen.

113. artikulua. Gizarte- eta osasun-arloko arreta

Berriro aipatuko dugu patologia dualari buruz **2.b) apartatuan** jaso dugun **gehikuntza**. Hauxe dio:

«2.– Oro har, eta Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 46. artikuluan jasotako aurreikuspenekin bat etorrita, arreta mota horretan bereziki artatuak izan daitezkeen kolektiboen artean daude honako ezaugarri hauetakoren bat duten haur edo nerabeak: ...

b) **Patologia duala**, hau da, adikzio-portaeren ereduak garatzen dituzten substantzien kontsumo arazotsuak, gehiegikeriak edo haiekiko mendekotasuna dituzten haur eta nerabeek nahasmendu mental bat izatea aldi berean, Adikzioen eta Droga-mendekotasunen Arreta Integralari buruzko apirilaren 7ko 1/2016 Legean aurreikusitako moduan.

II. kap.: Hezkuntza-garapenerako kaltegarriak diren egoeren prebentzioa, detekzioa eta arreta

117. artikulua. Eskolagabetzearen eta eskola-absentismoaren prebentzioa eta detekzioa

1.b) apartatuan jasotzen dira ahalik eta lasterren eskolatzen laguntzeko neurriak, lege honen 32.4 artikuluan ezarritakoa aplikatuta.

Horren harira, 0-6 urte bitarteko haurren eskolatzeari eta zero urtetik aurrerako eskolatzeari dagokienez, legean ezartzen da hauexek aplikatuko direla: «Haur Hezkuntzako ikastetxe pribatuetan matrikula ordaintzetik salbuesteko neurriak Eragin Anitzeko Errenta Adierazle Publikoa (IPREM) baino errenta txikiagoak dituzten familietan».

Egokia eta beharrezkoa iruditzen zaigu diru-sarrera txikiak dituzten familiak kontuan hartzea eta, horrela, familia guztietako haurrei hezkuntzarako sarbidea bermatzea, baina, gure ustez, helburua etapa goiztiarretan eskolatzeari sustatzea bada, etapa horietan hezkuntzaren doakotasuna sustatu beharko litzateke.

III. kap.: Ongizate materialerako eta gizarteratzeko kaltegarriak diren egoeren prebentzioa, detekzioa eta arreta

Kapitulu horren izena aldatzea eta hauxe erabiltzea gomendatzen dugu:

«**Ongizaterako** eta gizarteratzeko kaltegarriak diren egoeren prebentzioa, detekzioa eta arreta».

Gure ustez, ongizatea ezin da soilik mugatu hezkuntzaren garapenera, eremu materialera edota gizarteratzera. Horren ordean, ikuspegi holistikoz heldu behar zaie haurren eta nerabeen eskubideei (ongizate integrala bermatze aldera).

121. artikulua. Haur-pobreziako egoeren prebentzioa eta detekzioa

Lehenik eta behin, artikuluko horretako **1. eta 2. apartatu**etan honako **aldaketa** eta **gehikuntza** hauek egitea proposatzen dugu. Letra lodiz nabarmendu ditugu:

«1.– Botere publikoek haurren eta nerabeen pobrezia prebenitzera bideratutako neurriak hartuko dituzte, estrategia integralen bidez. Estrategia horiek, **ongizate material egokia eta gako-zerbitzuak erabili ahal izatea** bermatzeaz gain, eragina izango dute familia-bizitzaren baldintza sozioekonomikoetan, pobreziaren egiturazko kausei konponbidea emate aldera.

2.– Berariaz, lege honen III. tituluko IV. kapituluaren jasotako ongizate materiala sustatzeko neurriez eta

haurrak garatzeko eta gizarteratzeko funtsezko zerbitzuak eskuratzearaz gain, honako helburu hauek lortzeko jarduerak garatuko dira:

a) *Neurriak antolatzea beren ardurapean seme-alaba adingabeak dituzten pertsonak laneratzeko laguntzeko, ekintza positiboko irizpideak ezarrita, honako hauek lehenesteko:*

– *Haurrak edo nerabeak dituzten familia-unitateak beren ardurapean dituzten pertsonak laneratzeko, baldin eta iraupen luzeko langabezian, enplegu-intentsitate txikiko egoeran edo **jardunik gabe** badaude, eta, batez ere, aldi berean familia ugaria badute.*

– *Sektore ekonomiko feminizatuenetako lan-baldintzak hobetzea **eta arreta berezia ematea kontziliazioa areagotzeari eta sustatzeari.***

Bestalde, **2.c) apartatuan** hauxe aipatzen da: «*Familia-ekonomian eragin handia izan dezaketen pobrezia edo osasun fisiko eta mentalerako ohitura kaltegarriak, hala nola substantziak hartzeko adikzioak edo ausazko jokoak, prebenitzera bideratutako dibulgazio-kanpainak antolatzea*».

Beraz, pobrezia eta adikzio-portaerak lotzen dira, eta horrek norberaren pobrezia buruzko estereotipoak indartzen ditu. Gainera, ez da ulertzen pobrezia prebenitzeko dibulgazio-kanpaina baten helburua. Gure ustez, estrategiarik onena diru-sarrerak bermatzean, zerbitzuak erabiltzeko aukerak ematean eta kalitateko enplegua sustatzean datza.

122. artikulua. Prestazio ekonomikoak

Lehenik eta behin, hauxe ezartzen da **1.a) apartatuan**: «*Eusko Jaurlaritzak, diru-sarrerak bermatzeko politikaren esparruan, honako neurri hauek hartuko ditu: a) Beren ardurapean haurrak edo nerabeak dituzten familien oinarrizko premiak beteko direla bermatzeko, Diru Sarrerak Bermatzeko Errentaren prestazio ekonomikoa tresna eraginkorra izango dela bermatzeko neurriak. Pobrezia-egoeren prebentzio-neurri gisa jarduteko balioko dute beren esparruan lehentasunezko tratamendu bat emanez, honela islatuko dena: ardurapeko haur edo nerabe bakoitzeko osagarri bat jasoko duten zenbateko ekonomiko batzuk, eta zenbateko horiek hobetzea familia-unitateak, beren ezaugarri edo inguruabarrak direla-eta, premia handieneko egoeran edo egoera bereziki zaurgarrian egon badaitezke, lege honen 102.4 artikuluan ezarritako moduan*».

Gure ustez, erreferentzia bat sartu beharko litzateke DSBE eta beste laguntza eta prestazio espezifiko batzuk bateragarriak eta osagarriak izatea bermatze aldera. Era berean, uste dugu bermatu behar dela haurrak eta nerabeak dituzten familien behar guztiak asetzea, eta ez soilik oinarrizkoak; hortaz, «oinarrizkoa» kentzea proposatzen dugu.

Bigarrenik, **1.b) apartatuan** ezartzen du Eusko Jaurlaritzak neurri hau ere hartuko duela: «*Beren ardurapean haurrak edo nerabeak dituzten familien Diru Sarrerak Bermatzeko Errentaren prestazioa jasotzeko eskaerei ahalik eta azkarren erantzuteko mekanismoak, baldin eta dagoeneko pobrezia-egoeran badaude, bai eta beren ezaugarri edo inguruabarrak direla-eta, lege honen 102.4 artikuluan ezarritako moduan, premia handieneko egoeran edo egoera bereziki zaurgarrian egon daitezkeen familien eskaerei ere*».

Izapideak azkar egitearekin batera, eta babes eraginkorra eta automatikoa bermatze aldera, ziurtatu beharko litzateke erreferentzia-aldia diru-sarrerak familia-unitatearen egungo egoerara ahalik eta gehien egokitzea, eta, gainera, diru-sarrerak kalkulatzeko erreferentzia-aldia ezarri beharko litzateke, eskaera

egiten den unetik hurbilen dagoen hautagarritasuna zehazteko.

123. artikulua. Bizitegi-bazterketako arriskuko eta bizitegi-bazterketako egoeren prebentzioa eta detekzioa

Lehenik eta behin, artikulua hori berrikustea gomendatzen dugu, argiagoa izan dadin. Adibidez, honela:

«Gizartean baztertua izateko egoerak edo arrisku horretako egoerak prebenitzea eta detektatzea».

2. apartatua letra lodiz nabarmendu dugun testua **gehitzea** proposatzen dugu:

«2.– Berariaz, eta betiere Etxebizitzaren ekainaren 18ko 3/2015 Legean eta arlo horretan espezifikoki aplikatu behar den gainerako araudian ezarritako moduan, honako helburu hauek lortzera bideratutako neurriak hartuko dituzte:

7) Etxebizitzarako irispidea erraztea beren ardurapean haur edo nerabeak dituzten eta etxebizitza-premia duten familia-unitateei eta, bereziki, honako hauei:

– *Bizitoki egonkorrik edo egokirik ez duten familiak edo infraetxeetan edo gehiegi okupatutako etxebizitzetan bizi diren familiak, aipatutako Etxebizitza Legean definitzen diren moduan, eta bizitokia izateko behar diren baliabide ekonomikorik ez dutenak, eta, beraz, bazterketa-arriskuan daudenak.*

– *Ohiko etxebizitza hipoteka-betearazpenagatiko utzarazpen-prozedura batean sartuta duten familiak, baldin eta ezin badiete hipoteka-maileguaren ordainketei aurre egin gizarte-bazterketako arriskuan egotea eragin gabe.*

– *Beren etxebizitzaren errentari diren eta gizarte-bazterketako arriskuan egotea eragin gabe errentaren ordainketei aurre egin ezin dieten familiak, eta, egoera berean izanda, utzarazpenen xede diren familiak, bizileku-konponbiderik jaso gabe.*

– ***Salmenta- edo alokairu-prezioak direla eta, gehiegizko finantza-ahalegina egin behar duten familiak, diru-sarrera garbiak eta ezaugarri bereziak kontuan hartuta, hipoteka-kuota edo errentamendu-errenta zein hipotekatutako jabeari edo errentariari ordaindu beharreko oinarrizko gastu eta hornidurak kontuan hartuta.***

b) Neurriak hartzea, etxebizitza sozialei buruzko politiken esparruan, lehentasunezko irispideko kolektiboen artean sartzeko beren ardurapean haur edo nerabeak dituzten familiak, baldin eta beren ezaugarri edo inguruabarrak direla-eta premia handieneko egoeran edo egoera bereziki zaugarrian egon badaitezke, lege honen 102.4 artikuluan ezarritako moduan.

c) Modu subsidiarioan, etxebizitza baterako irispidea izateko prestazio ekonomiko bat bermatzea, etxebizitza bat eskura jartzea ezinezkoa denean.

d) Alokairurako kenkari fiskal itzulgarriak sortzea, etxebizitza bizitegi-merkatu tentsionatuko eremu batean kokatuta dagoenean, eta errentaria guraso bakarreko familia edo bizikidetzaren unitate bat denean, edo urteko diru-sarrerak estatuko edo autonomia-erkidegoko medianaren % 60tik beherakoak direla egiaztatzen duenean. Etxebizitza berean errentari bat baino gehiago dagoenean, idatz-zati honetan aurreikusitako baldintzak betetzen dituzten errentariei proportzionalki dagokien etekin garbiaren zatiari aplikatuko zaio murrizketa hori».

Gehikuntza horiek proposatzen ditugu, testua Etxebizitzarako Eskubidearen aldeko Estatuko Legea egokitzeke.

Gizarte-bazterketaren prebentzioa eta detekzioa (125. artikulua eta hurrengoak)

Gure ustez, atal horren planteamenduak alde batera uzten du prestazio eta zerbitzu giltzarriak eskuratzea (hezkuntzakoez harago) haurrak eta haien familiak gizarteratzeko ardatz gisa.

125. artikulua. Gizarte-bazterketaren prebentzioa eta detekzioa

2.a apartatuan ezartzen da neurriak helburu hauek lortzera bideratuta egongo direla: «*Familien gizarte-isolamenduari eta bereizkeriari lotutako ondorio negatibo kolektibo zein indibidualei buruz herritarrak sentsibilizatzea eta kontzientziaztea*».

Gure ustez, sentsibilizazioak ez du berez laguntzen pobrezia detektatzen eta prebenitzen; beraz, administrazioek proaktibitate handiagoa, *outreach* jardun indartsuagoa garatu behar dute, hau da, erakundeekin lankidetzan aritu, eta familia kalteberenak funtsezko zerbitzuetara hurbiltzea lortu behar dute.

126. artikulua. Gizarte-bazterketako arriskuan edo egoeran dauden pertsonen ardurapeko haur eta nerabeen arreta

Artikulu horretako **3. apartatuan** hauxe ezartzen da: «*Zerbitzu horiek honako hauek izango dira: a) Etxe barruko hezkuntza eta familiako oinarrizko esku-hartzea, familiaren egoitzan emandakoak. b) Kaleko hezkuntza eta gizarte- eta kultura-bitartekaritza, komunitate-ingurunean eskainiak*».

Lehenik, gure ustez, «etxe barruko hezkuntza» terminoak familien esku uzten du balizko gabezien ardura. Hortaz, inklusiboagoa eta eraikitzaileagoa den beste termino bat erabiltzea gomendatzen dugu.

Bigarrenik, **arreta psikosoziala** ere zerbitzu gisa **sartzea** proposatzen dugu.

V. TITULUA: HAURREN ETA NERABEEN AURKAKO INDARKERIA-EGOEREN PREBENTZIOA, DETEKZIOA ETA BABESA

I. kap.: Xedapen orokorrak

128. artikulua. Babesgabetasun-egoera izan daitezkeen indarkeria-egoerak

Gomendatu egiten dugu **2. apartatuan bigarren paragrafo bat gehitzea**, Gizarte Zerbitzuek bete behar dituzten kasuen araberako jarraipena berariaz jasotzeko, bereziki, babesgabetasun-egoeran (arriskuan edo babesgabetasunean) dauden adingabeen aurkako indarkeria-egoerak behin eta berriz detektatzeko eta prebenitzeko helburuarekin.

Horren arabera, testua honela osatuko litzateke:

«2.– Orobat, indarkeria familia-eremutik kanpo gertatzen denean, zehaztu beharko da, VI. tituluan aurreikusitako moduan, legezko ordezkariak egoera hori toleratzen duten edo onartzen duten. Hala ulertuko da baldin eta, gertatzen ari zirela jakin ondoren, hura amaitzeko behar diren neurriak hartu ez badituzte edo esku hartzen zuten zerbitzu eta profesionalei era aktiboan lagundu ez badiete, eten zedin. Horrelakoetan, baloratu egin beharko da haurra edo nerabea babesgabetasun-egoeran dagoen ala ez.

Nolanahi ere, gizarte-zerbitzuek baloratuko dute familiak indarkeria-kasuen aurrean babes-

ingurune gisa jardutea, esku hartzeko eta laguntzeko plan baten beharra baloratzeko, baita beharrezkoa den beste edozein babes-neurri ere».

II. kap.: Haurren eta nerabeen aurkako indarkeriaren prebentzioa

131. artikulua. Familia-ingurunean indarkeria prebenitzeko jarduketak

Artikulu horretako **1.a) apartatuan** letra lodiz nabarmendutakoa **gehitzea** gomendatzen dugu:

«1.– Familia-eremuko indarkeria prebenitzera bideratutako jarduketan xedea da familia-testuinguru seguruak sortzea erraztea, errespetuan eta afektu-harremanetan oinarritutakoak. Bereziki, honako helburu hauek izango dituzte:

- 7) Familia-nukleoan bizikidetzaharreman onak sortzea eta indartzea, bai amaren eta aitaren artean, bai gurasoen eta seme-alaben artean, **bai familia-unitateko gainerako bizikideen artean, baita zaintzaileen artean ere**, lege honen 54. eta 55. artikuluetan jasotako moduan...».*

Gure ustez, familia-eremuan bizikidetzaharreman onak sustatzea bizikide guztietara eta beste zaintzaile batzuetara hedatu behar da.

132. artikulua. Familia-unitatea hausten denean indarkeria prebenitzeko jarduketak

Artikulu horretako **2. apartatuan** letra lodiz nabarmendutakoa **gehitzea** gomendatzen dugu:

*«2.– Aurreko paragrafoan xedatutakoak ez du hargatik eragotziko aipatutako gizarte-zerbitzuek egokitzat jotzen dituzten prebentzio-jarduketak egiteko aukera, familia-bitartekaritzako zerbitzura edo beste baliabide edo zerbitzu espezializatu batzuetara bideratzea barne; bereziki, familia-bitartekaritzako zerbitzuek agintzen dituzten terapia-zerbitzuetara, eta ez du eragozten legezko arduradunei, harreragile edo zaintzaileei haustura-prozesuan zehar eta beren guraso-erantzukizunak betetzeko laguntza profesional espezializatu emateko aukera ere. **Arrisku- edo indarkeria-egoera bat antzemanaz gero, haurren edo nerabearen interes gorenaren beste ebaluazio bat egin behar da, eta babes-neurri egokiak hartu beharko dira.***

Aldaketa hori proposatzen da, indarkeria hautemanaz gero, familia-bitartekaritzak adingabearen ongizatea kaltetu ez dezan edo arriskuan jar ez dezan. Familiaren bitartekaritza ez da bideragarria izango, indarkeria dagoela antzematen bazaio.

133. artikulua. Eskola-eremuan indarkeria prebenitzeko jarduketak

Artikulu horretako **1.b) apartatuan** letra lodiz nabarmendutakoa **gehitzea** gomendatzen dugu:

«1.– Ikastetxe guztiek, publikoek nahiz pribatuek, eskola-indarkeria prebenitzeko jarduketak egingo dituzte, eta, bereziki, honako hauek: ...

*b) Haurren eta nerabeen eskubideak aitortzea, **betetzea** eta babestea sustatuko duten hezkuntza-neurriak hartzea eta horien jarraipena egitea bultzatuko dute».*

134. artikulua. Ongizateko eta babeseko koordinatzailea

Artikulu horretako **2. apartatuan** letra lodiz nabarmendutakoa **gehitzea** gomendatzen dugu:

«2.– Eusko Jaurlaritzak, hezkuntza-arloan eskumena duen sailaren bitartez, ongizateko eta babeseko

*koordinatzaileak bete beharreko betekizunak eta eginkizunak ezarriko ditu, eta zehaztuko egingo du, halaber, eginkizun horiek ikastetxean lehendik dauden langileek edo langile berriek bete behar dituzten, **baina profil horri dagozkion funtzioak baino ez dituzte beren gain hartuko**».*

Ñabardura hori proposatzen dugu figura berri horren prestakuntza eta dedikazioa ziurtatzeko. Figura hori Haurrak eta Nerabeak Indarkeriaren aurrean Osorik Babesteko Lege Organikoan jasota dago (ekainaren 4ko 8/2021 Legea da, hain zuzen ere).

III. kap.: Haurren eta nerabeen aurkako indarkeria-egoeren detekzioa eta esku-hartzea

147. artikulua. Haur eta nerabeen egoitza-harrerako baliabideak eta askatasunaz gabetzen duten neurriak betetzeko eta heziketa-taldeko bizikidetzarako heziketa-zentroen jarduketak.

Artikulu horretako **1. apartatuan** letra lodiz nabarmendutakoa **gehitzea** gomendatzen dugu:

*«1.– Foru-aldundiek, haurrak eta nerabeak babesteko eskumena duen sailaren bitartez, berariazko planak prestatu eta onetsiko dituzte babes-neurri bat duten eta egoitza-harrerako zentroetan bizi diren adingabeak, beren erantzukizunpekoak, biktima gisa dituzten indarkeria-kasu posibleak prebenitzeko, goiz detektatzeko eta horietan esku hartzeko –**sexu-abusua**, **sexu-esplotazioa** edo **pertsonen salerosketa** egonez gero, bereziki–, eta kontuan hartu gabe zentroa kudeatzen duen entitatearen izaera publikoa edo pribatua eta haren titulartasuna.*

Eusko Jaurlaritzak koordinazio-guneak bultzatuko ditu Fiskaltzarekin, Segurtasun Indar eta Kidegoekin, Foru Aldundiekin eta erakunde espezializatuekin batera, babes-neurrien mende dauden adingabeen salerosketaren biktimak identifikatzeko eta haiei arreta integrala emateko.

Testu hori gehitzea proposatzen dugu agindua bat etor dadin Haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean osorik babesteko ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoarekin, bereziki, haurrak eta nerabeak babesteko senarekin eta 53. artikuluan eta hurrengoetan jasotako kasu espezifikoekin.

151. artikulua. Eremu judizialeko jarduketak

Artikulu horretako **1. apartatuan** letra lodiz nabarmendutakoa **gehitzea** gomendatzen dugu:

*«1.– Indarkeriaren biktima diren hurrek eta nerabeek aukera izan dezaten lege honetan aitortutako eskubideak berdintasun-baldintzetan eskuratu ahal izateko, lege honen 13. artikuluko b), c) eta d) letretan jasotako bereizkeriarik ezaren, ekitatearen eta irisgarritasun-bermearen printzipioak aplikatuz, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoek, bakoitzak bere eskumen-eremuan, eskura jarriko dizkiete beren eskubideen eta interesen defentsarako **eremu judizial espezializatu** bermatzeko behar diren **baliabide pertsonal eta materialak (ekonomikoak)**.*

Uste dugu justiziaren espezializazioa funtsezkoa dela eskubideak bermatzeko eta biktimizazio sekundarioa prebenitzeko.

152. artikulua. Legitimazioa, indarkeria-egoera baten haritik etorritako prozedura judizialean

Gure ustez, artikulu horren **izenburua aldatu** behar da:

*«Legitimazioa, indarkeria-egoera baten haritik etorritako **prozedura guztietan**».*

Legitimazioak, prozesu judiziala ez ezik, haurren eta nerabeen aurkako indarkeria eragiten duten

guztiak ere barne hartzeko helburuz proposatu dugu, baina prozesu judizialek eta administrazio-prozesuek duten garrantzia alde batera utzi gabe.

Halaber, **5. apartatuan** letra lodiz nabarmendutakoa gehituz osatzea proposatzen dugu:

«5.– Adingabe baten aurkako indarkeria-egoera baten ondorioz zigor-prozedura hasi ondoren, Justizia Administrazioaren letraduak Biktimari Laguntzeko Bulego eskudunera bideratuko du, delituaren larritasuna, biktimaren zaugarritasuna edo biktimak berak eskatzen duen kasuetan beharrezkoa denean, betiere Delituaren Biktimaren Estatutuaren apirilaren 27ko 4/2015 Legearen 10. artikuluan xedatutakoa betez.

Biktimaren Estatutuan ezarritakoarekin eta Haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean osorik babesteko ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoan ezarritakoarekin bat etorrira, delituaren biktimei laguntzeko bulegoek babes-baliabideen koordinatzaile gisa jardun behar dute, bai eta informazioa, aholkularitza, laguntza eta laguntza emateko organo gisa ere. Horretarako, behar beste baliabide pertsonal eta ekonomiko izan beharko dituzte, diziplina anitzeko talde espezializatu bat ere barne hartuta».

Kontuan hartu behar da delituaren biktimei laguntzeko bulegoek koordinazio- eta laguntza-organo gisa betetzen duten zeregina. Izan ere, haien eginkizunak betetzeko, autonomia-erkidego bakoitzak egiten duen kudeaketaren mende daude bulego horiek, autonomia-erkidegoak justizia-arloko eskumenak transferituta baldin baditu.

153. artikulua. Biktimizazio sekundarioa saihesteko neurriak

Lehenik eta behin, **titulu hori aldatzea** proposatzen dugu. Honela:

«Biktimizazio sekundarioari aurrea hartzeko neurriak»

Edukia tituluaren arabera egokitzeko, **1. apartatua** berrikustea proposatzen dugu:

«1.– Adingabea delituaren biktima den zigor-arloko prozeduretan, Delituaren Biktimaren Estatutuaren apirilaren 27ko 4/2015 Legearen 26. artikuluan ezarritakoaren arabera, Prozedura Kriminalaren Legearen aurreikuspenei lotuta, ikerketa garatzea edo judizioa egitea biktimarentzat beste kalte-iturri bat bihur daitezten **prebenitzeko**, ahal den neurrian, behar diren neurriak hartuko dira, eta honako hauek zehazki:...».

156. artikulua. Jarduketa judizialak informazioaren eta komunikazioaren teknologia berrien bidezko indarkeria-kasuetan

Artikulu horretako **1. apartatuan** letra lodiz nabarmendutako testua **gehitzea** proposatzen dugu:

«1.– Haurren edo nerabeen aurkako indarkeria hedabideetan informazioa zabaltzean edo irudiak erabiltzean datzanean, sare sozialak eta teknologia berriei lotutako beste edozein bitarteko barne, **estortzioan, eduki sentikorra edo barne-barnekoa eskatzean (sexuala barne), bai eta sexu-jarduerak ere, besteak beste, betiere babesgabetasuna eragiten badie, edo**, horren ondorioz, haurren edo nerabeen intimitatean, ohorean edo ospean edo senitartekoenean era ez-legitimoan sartzea **ekar badezake**, haren irudiaren ustiapen ekonomikoa badakar, edo haren interesen aurkakoa bada, eta legitimatutako beste subjektu batzuei kalterik egin gabe, Ministerio Fiskalak esku hartu beharko du legeak ezarritako kautela- eta babes-neurriak berehala eskatuz, baita eragindako galerengatik dagozkion kalte-ordainak ere. Jarduketa horiek egin ahal izango dira haurren edo nerabearen edo

haren legezko ordezkarien adostasuna jasota badago ere».

Eduki hori bat dator lege honetan ematen den indarkeriaren definizioarekin, eta, hartara, ekainaren 4ko 8/2021 Legearekin ere bai.

VI. TITULUA: BABESGABETASUNAREKIKO ZAURGARRITASUN-EGOERAK ETA BABESGABETASUN-EGOEREN PREBENTZIOA, DETEKZIOA ETA BABESA

I. kap.: Xedapen orokorrak

161. artikulua. Administrazio-jardunaren printzipioak

Lehenik, **d) apartatuan** letra lodiz nabarmendutako testua **gehitzea** proposatzen dugu:

«Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoek, prebentzioaren, detekzioaren, arretaren eta babesaren arloan dituzten eskumenak egikaritzuz, honako irizpide hauek beteko dituzte, lege honen 24.4 artikuluan ezarritako irizpide orokorrez gain, kasu bakoitzean adingabearen interes gorena interpretatu eta aplikatzeko: ...

*7) **Informatua izateko**, entzunarazteko eskubidea aplikatuta, bultzatu eta erraztu egingo da hurrek eta nerabeek aplika daitezkeen neurrien eta jarduketan inguruko eta dagokien garapenari buruzko erabakiak hartzean parte hartzea, haien baldintza pertsonalak kontuan hartuta –batez ere haien adina eta heldutasuna–, baita aitak edo amak parte hartzea ere, haurren edo nerabeen interesekoa bada. Ondore horretarako, adingabeari jakinarazi beharko zaio zer galdetuko zaion eta zer ondore izango dituen bere iritziaik».*

164. artikulua. Familia-integraziorako entitate laguntzaileak

Lehenik, **3.b) apartatuan** letra lodiz nabarmendutako **aldaketa** egitea proposatzen dugu:

«3.– Familia-integrazioko entitate laguntzaileak honako eginkizun hauetarako gaitu ahal izango dira:...

*b) **Bitartekotza sustatzea**, haurrak eta nerabeak familietan hartzeko prozesuetan».*

Gure ustez, bitartekari lanak baino gehiago egin behar da, harrerako familien eta familia biologikoen eskubideak eta betebeharrak maila berean ez daudelako, eta erabakiak hartzeko prozesuetan haien parte-hartzea ere oso desberdina delako. Ez datza soilik artekari lanak egitean; horren ordeztan, bitartekotza edo esku-hartzea ere izan daiteke, eta familia-harrerako programen funtzionamenduari egiten dio erreferentzia. Programa horietan, profesionalek bitartekotza-lanak egiten dituzte, baina erabakiak ere hartzen dituzte, alderdien artean akordiorik egon ez arren.

Agian, familia-harrerari buruzko gaietan, eta, bereziki, harrera-familiaren eta familia biologikoaren artean, tartean egoteko terminoa baino egokiagoa izan daiteke bitartekotza-lanak egitekoa. Banantze-prozesuetan, bi gurasoek eskubide eta betebeharrak berberak dituzte, baina familia-harrera batean, familia biologikoari babes-neurria aplikatu diote, eta bere eskubideak mugatuta eta erabaki profesionalen mende daude.

II. kap.: Babesgabetasunarekiko zaurgarritasun-egoeren eta babesgabetasun-egoeren prebentzioa

168. artikulua. Familia-unitateen haustura-egoeretan laguntzeko neurriak: familia-bitartekaritza eta elkarguneak

2. apartatuan hauxe ezartzen da: «*Orobat, komenigarritzat jotzen bada, beste baliabide edo zerbitzu espezializatu batzuetara bideratu ahal izango da, bereziki, familia-bitartekaritzako zerbitzuek agintzen dituzten terapia-zerbitzuetara, edo gurasoentzako, legezko ordezkarietzako edo, hala badagokio, harreragileentzako edo zaintzaileentzako laguntza profesional espezializatura, haustura-prozesuan zehar eta beren guraso-erantzukizunak gauzatzeko*».

Zaintzaileei egindako erreferentzia hori nahasgarria da. Harrera-familia batetik bananduta egonez gero, familia-bitartekaritzako zerbitzuak, batez ere, esku har dezake, harreran hartutako adingabearen arretaren inguruko gaietan izan ezik, arreta hori foru-zerbitzuen erabaki edo eskumen eksklusiboa baita.

Horrenbestez, harrera-familiei egindako erreferentzia kendu behar da, bitartekotza barne hartzen duen banaketetan babes-ingurukoa ez den gainerakoari helduko diote, babes hori foru-aldundiei dagokielako.

III. kap.: Babesgabetasuna detektatzea eta baloratzea

170. artikulua. Gizarte-zerbitzuen eremuan berehalako arreta ematea

Proposatzen dugu **2. eta 7. apartatuetan** letra lodiz nabarmendutako testua **gehitzea**:

«2.– *Orobat, **dokumenturik gabeko** pertsona bat adingabea den ala ez zalantzan dagoenean, Ministerio Fiskalari eskatu ahal izango zaio adina ikertzeko eta zehazteko eginbideak gauza ditzala, eta adingabea dela iritziko zaio, lege honetan aurreikusitakoaren ondoreetarako, harik eta haren adina zehaztu arte. **Horretarako, bere tutoretza antolatu eta gauzatu da, adina zehazteko prozeduran entzuna izateko eta parte hartzeko eskubidea gauzatu ahal izan dezan.***

...

7.– *Nazio-lurraldera bakarrik iritsi diren eta Euskal Autonomia Erkidegoan dauden adingabeei dagokienez zaintza edo tutoretza eskaintzeko erabakia hartu eta gero, foru-aldundiek neurri horren berri emango diote Barne Ministerioari, Estatuko dagokion Erregistroan inskriba dezan. Horrez gain, **bermatu egingo da haur migratzaileei eta errefuxiatuei eragiten dieten asilo-eskaerak eta bizileku-edota lan-baimenak ahalik eta arreta handienaz izapidetzea**».*

176. artikulua. Arrisku-adierazleak

Halaber, **2.r) apartatuan** letra lodiz nabarmendutakoa gehituz osatzea proposatzen dugu:

«2.– *Arrisku-egoera bat dagoen zehazteko, honako hauek joko dira arrisku-adierazletzat, gurasoei edo, hala badagokio, tutoreei, tutoretza-, zaintzaile- edo harrera-ahalmenak dituzten pertsonen esleitutako babes-eginbeharrak nola bete diren aztertzeo adierazleak baloratu eta haztatu ondoren: ...*

*r) Haur edo nerabearen aurkako indarkeria dakarren beste edozein inguruabar, baldin eta, iraunez gero, haurraren edo nerabearen desanparo-egoera eragin badezake, **bai eta ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoaren azken xedapenetako zortzigarrenaren 5. apartatuan eta gaia arautzen duen Estatuko gainerako araudian jasotakoak ere**».*

Helburua da ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoari eta Estatuko gainerako araudiari berariazko erreferentzia egitea, hemen proposatutako araubidea osatzeko.

187. artikulua. Desanparo-adierazleak

Lehenik eta behin, **3. apartatuan** hauxe hartu da desanparo-adierazletzat: «*Egoera horren deklarazioa jaso duen neba edo arreba izatea desanparo-adierazletzat hartuko da, besteak beste, familia-inguruabarrak nabarmen aldatu ez direnean izan ezik*».

Adierazle horrek arriskutsua dirudi, bereziki, haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean babesteko legeak baloratu beharreko adierazletzat jo duelako. Desanparo gisa ezartzen baldin bada, arbitrariotasun handia sar daiteke esku-hartzeetan.

Gainera, adierazi behar da, modu generikoan ez gertatu arren, «inguruabarrak aldatu direla», balorazio oso orokorra eta zehaztasunik gabekoa delako, eta mantendutako kalteberatasun-faktore gisa zehaztu behar direlako, besteak beste, lankidetzarik eza eta kontzientziarik eza.

Beharrezkoa da, beraz, aparatu hori are gehiago zehaztea eta doitzea, erabilera desegokirik gerta ez dadin.

Bigarrenik, hauxe ezartzen da **4.d) apartatuan**: «*Zehazki, ulertuko da desanparo-egoera dagoela honako inguruabarretako bat edo batzuk larritasun-maila nahikoarekin direnean tartean, zeinak, premia- eta proportzionaltasun-printzipioen arabera baloratu eta neurtu ondoren, esan baitaiteke mehatxu direla haurraren edo nerabearen osotasun fisikorako edo mentalerako: (...) d) Haurraren edo nerabearen osotasun mentalerako, osotasun moralerako eta haren nortasunaren garapenerako arriskua, legezko ordezkarien aldetik etengabeko tratatu txar psikologikoa edo haren afektibitate- edo hezkuntza-beharrekiko arreta-falta larria eta kronikoa dagoelako. Arreta-gabezia horrek lotuta dituen nahasmendu mental larria, mendekotasun-sortzaileak izan daitezkeen substantzien ohiko kontsumoa edo mendekotasun-sortzaileak izan daitezkeen beste ohiko jokabide mota batzuk, desanparo-adierazle gisa baloratuko da legezko ordezkariak tratamendurik ez jartzea tartean edo tratamenduan zehar behar adinako laguntzarik ez ematea*».

Gure ustez, nahasmendu mentala duten pertsonen aurkako xedapen diskriminatzailea da. Izan ere, gure ustez, desanparo-adierazlea izango da haurrak edo nerabeak tratatu txar psikologikoa edo bere premien arreta larri eta kronikorik ez izatea, legezko ordezkarien egoera edozein dela ere.

Ez du zentzurik desanparo-adierazle gisa planteatzea tratamendurik ez izatea edo laguntza nahikorik ez izatea pertsonak nahasmendu mentala duenean. Lehenengo kasuan (tratamendurik ez dagoenean), gaur egun, pertsona bat ezin da behartu tratamendua hartzera, bere borondatez hartzea erabaki ez badu. Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko NBERen Konbentzioan eta NBEko errelatoreen hitzetan irizpide berari eusten diote.

Bestalde, bertan behar adinako lankidetzarik ez egotea desanparo-adierazletzat hartzeko proposamena zuzena eta ez-diskriminatzailea irudituko litzaiguke lankidetzak falta hori duten legezko ordezkari guztiei aplikatuko bazaie, eta ez soilik nahasmendu mentalaren eta adikzioen kasuei. Hori guztia dela eta, azpimarratu dugun zatia kentzea ala pertsona guztiei aplikatzea proposatzen dugu.

209. artikulua. Harrerako adingabeen eskubideak

Lehenik eta behin, **1.b) apartatua** honela osatzea gomendatzen dugu:

«1.– Oro har, harrera-neurri bat duten adingabeek, familia-harrera nahiz egoitza-harrera izan, honako eskubide hauek izango dituzte: ...

b) Zer dioten entzunarazteko eskubidea, **haiei eragiten dieten gai guztietan haien iritzia kontuan**

hartzea, hamabi urtetik gorakoak badira; eta heldutasun nahikoa badute, adin horretara iritsi ez diren haurrek eta nerabeek ere izango dute eskubide hori, bai familia-eremuan, bai zuzenean inplikaturik dauden prozedura administratibo edo judizialean, haien esparru pertsonal, familiar edo sozialean eragina duten erabaki garrantzitsuei dagokienez».

Gure ustez, haurren eta nerabeen iritzia emateko eskubidearekin batera doaz bai parte hartzeko eskubidea, bai eta haurrei eta nerabeei eragiten dieten gaietan haurren eta nerabeen iritzia kontuan hartzeko eskubidea ere.

Bigarrenik, hauxe aipatzen da **1.n) apartatuan**: «*Banakako babes-plan bat izatea, eta plan hori prestatzen parte hartzea, baita horren aldizkako ebaluazioetan ere, baldin eta hamabi urtetik gorakoak badira eta, heldutasun nahikoa badute, adin horretara iritsi ez diren haur eta nerabeek ere bai».*

Uste dugu beharrezkoa dela, espedientean jasota egoteaz gain, hartutako neska-mutil guztiei plan hori hizkuntza egokitan entregatzera behartzea.

Hirugarrenik, **1.t) apartatuan** eskubide hau aipatzen da: «*haien espedientera jotzea eta haien jatorri eta senitarteko biologikoen datuak ezagutzea, adinez nagusi direnean».*

Hor guztia zalantzan jarri behar dugu, adingabeei ere espedientea irakurtzeko aukera eman behar baitzaie, profesionalek lagunduta irakurri behar badute ere. Bestelakoa da, eta hau aipatu beharra dago, espedientea kopiatzeko aukera izatea. Agian kopia egitea adin nagusikoei baino ez zaie baimendu behar, balizko erabilera okerrak murrizte aldera.

213. artikulua. Banakako babes-plana

Artikulu honetako **6. apartatuan** hauxe ezarri da: «*familia berriz elkartzea ezinezkoa dela uste denean, edo adingabe babestuen garapen ebolutibo egokia arriskuan jartzeko bezain esku-hartze luzea behar denean, helburua izango da ordeztu familia batean modu egonkorrean sartzea».*

Eduki horrekin ados gaude, baina ez da zehazten jatorrizko familiarekiko esku-hartzea familian esku hartzeko idatzizko plan batean jasota egoteko betebeharra. Plan horretan, behintzat, bisitetan aurrera egiteko edo aldaketak egiteko irizpideak zehaztuko dira.

222. artikulua. Bizitza independenterako prestaketa

Artikulu horretako **5. apartatuan** hauxe ezartzen da: «*Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoek garatutako politikek kontuan hartuko dituzte bizitza independenterako programetan parte hartzen duten gazteen premia partikularrak, eta lehentasuna emango diete derrigorrezko bigarren hezkuntzarako eta goi-mailako hezkuntzarako irispidea izateko, eta enplegua sustatzeko eta gizarteratzea eta laneratzea sustatzeko programetan sartzeko, baita etxebizitzak alokatzeko laguntzak eta beren independentzia pertsonala garatzen lagun dezakeen beste edozein prestazio edo laguntza publiko eskuratzeko ere».*

Gure ustez, garrantzitsua da legean politiken koherentziari eustea (diru-sarrerak bermatzeko, prestakuntza emateko, laneratzeko...), Kasu zehatz horretan, garrantzitsua iruditzen zaigu, politika publikoen bitartez, gazteak behar bezala babestea independenteak izateko ibilbidean.

224. artikulua. Hezkuntzaren arloko tratu lehenetsia

Artikulu horretako **1.a) apartatuan** hauxe ezarri da: «*Eusko Jaurlaritzak, hezkuntzaren arloan dituen*

eskumenen eremuan, honako hauek bermatuko ditu: a) Foru-aldundien edo, hala badagokio, adingabeen babesaren arloan eskumena duten beste entitate publiko batzuen tutoretzapean edo zaintzapean dauden haurren eta nerabeen ohiko eskolatzea edo eskolatze berantiarra, baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldean bizi badira edo bertan badaude, edo adopzio-prozedura batetik badatoz».

Horren harira, gure ustez, legeak 2015eko Estatu Legean ezarritakoa jaso behar du, eta ikastetxeetako plaza kopurua % 2ra arte handitu behar du, adopzioa, harrera edo egoitza-baliabide batean hasten diren neska-mutilen kasuetan, nahitaezko matrikula-epetatik kanpo.

226. artikulua. Familia-harrera formalizatzeko prozedura

Guk proposatzen dugu **6. apartatuaren** idazkera honela osatzea:

*«6.– Gero, pertsonak edo familia harreragileak ebazpenaren eranskina eta **familia-harrerari buruzko kontratua** sinatu beharko ditu, eta bere gain hartu bertan ezarritako konpromiso, eginbehar eta betebehar guztiak. Neurria bereganatu, eta hilabeteko epean, Ministerio Fiskalari jakinarazi beharko zaio neurria hartzen den egunetik zenbatzen hasita».*

Gure ustez, zehaztu behar da ebazpenaren eranskina sinatzeaz gain, familia-harrerari buruzko kontratua ere sinatu behar dutela familia harreragileek, hori baita familia harreragileen konpromisoaren oinarria.

227. artikulua. Familia-harreraren modalitateak

Hauxe ezartzen da **5. apartatuan**: *«Familia-harrera espezializatuak berekin ekarriko du harreragileak edo harreragileek funtzio hori eskuragarritasun erabatekoz bete beharra; horren truke foru-aldundiak ezarritako konpentsazioa eta, hala badagokio, horretarako ezarritako laguntza ekonomikoa jasoko ditu, harrera gauzatzeko inguruabar zehatzak eta behar duen laguntza teknikoa aintzat hartuta.*

Horrez gain, familia-harrera espezializatua arduraldi eskusibokoa izan daiteke, baldin eta foru-aldundiak hala erabakitzen badu, arrazoituta, harreran hartzeko egoeran dagoen haurrak edo nerabeak dituen premia edo inguruabar bereziak direla-eta. Kasu horretan, harreragile izendatutakoak edo izendatutakoek arduraldi horren araberrako konpentsazioa jasoko dute, Gizarte Segurantzaren kasuan kasuko araubidearen esparruan erregelamenduz ezartzen diren modu, irismen eta baldintzekin; halaber, dagokien eta aplikatu behar zaien araubidean aurreikusitako afiliazio-, alta- eta kotizazio-prozedura bete beharko dute».

Hainbat zalantza bururatu zaizkigu familiako harrera mota horri buruz:

- Dedikazio eskusiboko kasuetan konpentsazio ekonomikoa definitzen da, baina laguntza izango da harrera espezializaturako ezarritakoa. Alderdi hori argitzea proposatzen dugu.

- Era berean, gure ustez, harrera espezializatuko familiari planteatzen zaizkion funtzio teknikoak definitu behar dira eredu homogeenok ahalbidetzeko. Halaber, harrera-familia espezializatuen betebeharrak eta haien kontsiderazio teknikoa ere jaso behar dira, profesionalak ez izan arren, adingabearen espedienteari buruzko informazioa eskuratzeari eta alderdi horiekiko tratu desberdina izateari dagokienez.

232. artikulua. Familia-harrerari laguntzeko modalitateak

Artikulu horretan haxe ezartzen da:

«1.– Ezarritako familia-harrerako neurria formalizatu aurretik, neurriak iraun bitartean eta behin bukatu ondoren, foru-aldundiak pertsona edo familia harreragileei, adingabeari –bereziki, familia-harrerako neurriaren indarraldia amaitu bada, adin-nagusitasunera iritsi delako– eta jatorrizko familiari berari eskaini beharko dizkie neurriak, programak, baliabideak edo aholkularitza, orientazio, laguntza eta arreta tekniko espezializatuko zerbitzuak, neurria beharrezkoa bada haur edo nerabearen interes gorena kontuan izanda. Era berean, konpentsazioak eta laguntza ekonomikoak edo bestelakoak eman ahal izango ditu, kasu bakoitzerako erabakitzen den moduan.

2.– Neurri horiek bereziki nabarmendu beharko dute pertsona edo familia harreragileei, adingabeari eta jatorrizko familiari berari prestakuntza egokia eman beharko zaiela harrerarako neurria formalizatu baino lehen, ulertu ahal izan dezaten zer egin behar, bete behar eta erantzukizun hartzen dituzten beren gain, eta aurre egin diezaieten harreraren zailtasunei eta inplikazioei, prestatuta egonda harrerapeko adingabeari dagokionez dauzkaten ardurak ondo betetzeko».

Honako gabezia hauek topatu ditugu, neurri horiei dagokienez:

- Gizartearen, hezkuntzaren eta psikologiaren arloetako laguntza-baliabideak ezartzea jarraipen fasean, alderdi guztiak (jatorrizko familia, harrera-familia eta haur eta nerabeak) kontuan hartuta.
- Aipatu egin behar da laguntzak emateari eutsiko zaiola, adingabeek adin-nagusitasuna betetzen dutenean, etenaldi bat gertatzen denean, bertan behera uzten denean edo harrera-familia aldatzen denean.
- Jarraipenaren edukia ez da jaso, eta ezarri egin behar da eduki hori.
- Laguntza hori aholkularitza, orientazio, balorazio psikologiko eta psikoterapiako prestazioen bidez eman behar da banaka, familian zein taldean.

VII. TITULUA: GIZARTE- ETA HEZKUNTZA-ARLOKO ARRETA EMATEA ZIGOR-LEGEAREKIN GATAZKAN DAUDEN ADINGABEEI

Gure ustez, izenburu horretan **neurri errestituatiboak aipatzea** falta da; horretarako, **honako testu hau** jasotzen duen artikulu bat gehitzea proposatzen dugu:

«Administrazio publikoak justizia errestituatiboko eta bitartekotzako prozesuak sustatuko ditu, bai neurri judiziala betearazteko fasean, bai instrukzio-fasean. Prozesu horiek biktimari eragindako kaltea konpontzera bideratuta egongo dira, bai eta biktimarioa hezteko eta birgizarteratzeko prozesura ere».

VIII. TITULUA: ERAKUNDE ARTEKO LANKIDETZA ETA KOORDINAZIORAKO ORGANOA ETA ORGANO AHOLKU-EMAILEAK ETA PARTAIDETZAKOAK

II. Kapituluak: Organo aholku-emaileak eta partaidetzakoak

307. artikulua. Partaidetza bermatzea

Partaidetza bermatzeko, kontuan hartu behar da ingurune zaugarrietako pertsonak gizartean parte hartzeko dituzten aukerak eta gainerako herritarrenak ez direla berdinak.

Hori dela eta, haur eta nerabe guztiek parte hartzeko eskubidea izango dutela bermatzeko betebeharra zehaztu behar da sortzen edo garatzen diren organoetan, eta berme hori sustatzeko neurri egokiak jarriko direla abian.

308. artikulua. Haur eta Nerabeentzako Euskal Kontseilua

Artikulu horretako **6. apartatuan** hauxe ezarri da: «*Haren osaera, eginkizunak eta jarduteko araubidea erregelamendu bidez zehaztuko ditu Eusko Jaurlaritzak*».

Gure ustez, garrantzitsua da legean ezartzea Kontseiluan haurren eta nerabeen ordezkari-tza egongo dela.

IX. TITULUA: HAUR ETA NERABEENTZAKO ARRETAREN EREMUKO GARAPENA ETA HOBEKUNTZA

I. kapitulua: Haur eta nerabeentzako informazioa eta arretaren kalitatea

310. artikulua. Haur eta Nerabeei buruzko Informazioko Euskal Sistema

Bi gai aipatu nahi ditugu sistema horri buruz:

- Parte hartzeko eskubideari buruzko adierazleak sartzea.
- Sistemak koordinatuta egon beharko du 8/2021 Legean araututako jarraipen estatistikoko estatuko erregistroekin.

312. artikulua. Arretaren kalitatea bermatzeko neurriak

Guk proposatzen dugu **e) apartatuaren** idazkera honela osatzea:

«Aurrekoa betetzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoek, bakoitzak bere eskumen-eremuan, neurri hauek hartuko dituzte.

*e) Eremu horretako profesionalen etengabeko prestakuntza eta gaitasunak hobetzea bultzatzea, haur eta nerabeen eskubideen inguruko sentsibilizazioa eta prestakuntza barne, hurrengo artikuluan ezarritako moduan, **bai eta arretaren koordinazioa eta diziplinartekotasuna ere**».*

XI. TITULUA: ARAU-HAUSTE ETA ZEHAPEN ADMINISTRATIBOAK

I. kapitulua: Arau-haustek

327. artikulua. Arau-hauste arinak

Gure ustez, deigarria da arau-hauste arinik aipatu ez izana, arau-hauste «astun» edo «oso astun» guztietan kalte fisikoa edo psikologikoa dagoela hartu baita.

328. artikulua. Arau-hauste astunak

29. apartatuan, honako arau-hauste astun hau definitu da: «*Familia-harrerako edo adopzioko prozesuetan dauden eta desgaitasunen bat duten haur edo nerabeen aurkako bazterketako, bereizkeriako edo haien aukera-berdintasunerako oztopoak ez kentzeko praktikak sustatzea*».

Gure ustez, kalifikazio hori ezin da mugatu eremu horretara soilik (hau da, Familia-harrerako edo

adopzioko prozesuetara); horren ordezt, edozein haurri edo neraberi aplikatu beharko litzaioke.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Bigarren xedapen gehigarria. Euskal Autonomia Erkidegoan osasun mentaleko arazoak dituzten haur eta nerabeei emandako gizarte- eta osasun-arloko arretari buruzko diagnostikoa.

Xedapen horretako **1. eta 4. apartatuak** honela aldatzea proposatzen dugu:

*«1.– Lege hau indarrean hasi eta **urtebeteko** epean, diagnostiko orokor eta espezifikoko bat egin eta onetsiko da, Euskal Autonomia Erkidegoan osasun mentaleko nahasmenduak dituzten haur eta nerabeei gizarte- eta osasun-arloetako arreta ematearekin zerikusia duten alderdi guztiena, eta arlo horretako Liburu Zuri bihurtuko da; eta egoeraren diagnostikoa lau urtean behin egingo da, eta Liburu Zurian arlo horri buruz jasotako datuak eguneratuko dira.*

...

*4.– Diagnostikoa egiteko, batzorde tekniko bat eratuko da, Osasun Mentalari buruzko Euskadiko Aholku Batzordearekin batera. Batzorde hori haurren eta nerabeen arloan eskumena duen sailari atxikita egongo da, eta batzorde horren osakeran parte hartu beharko dute Eusko Jaurlaritzan osasun-arloan eskumena duen saileko, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko eta foru-aldundi bakoitzeko ordezkariak, **bai eta hirugarren sektoreko erakundeen ordezkariak ere eta, bereziki, gaixotasun mentala duten pertsonen eta senideen ordezkariak**».*

Lehenik eta behin (**1. apartatuari** buruz), arreta-diagnostikoa egiteko ezarritako epeari dagokionez, gehiegizkoa iruditzen zaigu bi urteko epea, lege hau indarrean hasten denetik zenbatuta. Azken xedapenetako zazpigarrenaren arabera, Legea EHAAn argitaratu eta sei hilabetera jarriko da indarrean; hortaz, diagnostikoa egiteko epeak bi urte eta erdi iraungo du. Gure ustez, urtebeteko epea egokia da, eta horri indarrean hasteko epea gehitzen badiogu, azkenean, urtebete eta erdikoa izango da.

Egoeraren diagnostikoa aldizka egiteko proposamenari dagokionez, proposamen hori bat dator biztanleria-eremuaren egoera aldakorrarekin eta baliabideak sortzen ari diren beharretara egokitzeko behararekin. Hori dela eta, gure ustez, diagnostikoa aldizka egin behar da, Liburu Zuria eguneratzeko.

Bigarrenik (**4. apartatuari** buruz), gure ustez, honako hauek parte hartu behar dute: eragindako pertsonak ordezkatzeko dituzten erakundeak, bai eta nerabeen eta haien familien ordezkariak ere, haurren eta nerabeen premiak helarazteko eta diagnostikoan baloratu ahal izateko. Izan ere, parte-hartzea funtsezkoa da prozesu horretan. Proposamen hori Euskal Gizarte Zerbitzuen Legeak, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren Legeak eta Osasun Mentaleko Sistema Nazionalaren Osasun Mentaleko Estrategiak babesten dute, besteak beste.

Laugarren Xedapen Gehigarria. Sektore-protokoloak

Hauxe ezartzen da **2. apartatuan**: «*Protokoloak bi urteko epean onetsi beharko dira, lege hau indarrean sartzen denetik zenbatzen hasita, eta lege honen 140.3 artikuluan ezarritako eremu bakoitzerako espezifikokoak izan beharko dute*».

Gure ustez, epeak laburragoa izan beharko luke.

V.- ONDORIOA

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak egokitzat jotzen du «*Haur eta Nerabeen Legearen aurreproiektua*» izapidetzea, betiere organo aholku-emaile honek egin dituen oharbideak kontuan hartuta.

Bilbon, 2022ko irailaren 30ean.

O.E. Presidentea

Emilia M. Málaga Pérez

Idazkari nagusia

Olatz Jaureguizar Ugarte

VI.- Eranskina: Testua zuzentzeko zenbait proposamen

Komeni da artikulua batzuk berrikustea, honako gai hauek kontuan hartzeko:

- **7. artikulua. Jarduketa-ardatzak:** 1.d) apartatuan akats bat dago gaztelaniazko bertsioan, «*en su caso*» bitan idatzi baita.
- **56. artikulua. Gurasokidetasuna sustatzea eta familia eta lana bateragarri egitea sustatzea:** 1.b) apartatuan akats bat dago. Zehazki, gaztelaniaz hauxe idatzi da: «*para la atención hijos e hijos*», beraz, hauxe idatzi behar da: «*para la atención de hijas e hijos*».
- **X. kapitulua. Lan-eremuan eskubideak sustatzeko jarduketak.** Gaztelaniazko testuan akats bat dago: «*laboral*» izen beharko luke.
- **209. artikulua. Harrerako adingabeen eskubideak.** 1.x) apartatuan akats bat dago gaztelaniazko testuan: «*respeto*» idatzi behar da.
- **282. artikulua. Aplikazio-eremu pertsonala.** 282.2 apartatuko eta 283. apartatuko edukia bikoiztu da.